

## ■ ASTIGARRAGA

## Festak segida, Zamalbiden eta Bentetan

*San Isidro jaiak ospatuko dituzte, gaur eta bihar ere, Zamalbide auzoan eta Astigarragako Bentetan. Haur eta gazteen eguna izango da gaurkoa, eta jubilatuen, biharkoa.*

ASTEAZKENEAN, San Isidro egunez, ospakizunak izan ziren Hernanin zein Astigarragan; baina bereziki ospatu zuten, Astigarragako Bentetan eta Zamalbide auzoan. Eta horietan, gaur eta bihar izango du segida festak, asteburu osoko egitarauarekin. Haur eta gazteei eskainitako eguna izango da gaurkoa, eta jubilatuen, biharkoa. Bazkari-afariak, ipuin kontaketa, mus txapelketa, karaokea... Denetik izango da! /6

## ■ ASTIGARRAGA

**Usurbilen marka, Emarri taldeak**

3.800 kiloko harriari tiraka, marka ezarri zuen Emarri taldeak, aurreko asteburuan, Usurbilen: hiru plaza, bi zinta eta 2,2 metro osatu zituzten, 22 neskek. /2-3

## ■ HERNANI

**Lore eta Landare Azoka, Urbietan**

Gaur jarriko dute, Urbietan kalean, Lore eta Landare Azoka berezia. Goizeko 10:00etatik 14:00etara egongo dira, mota eta jatorri askotako 17 postu. /5

## ■ ARANO

**20 zeramika lan ikusgai, Kontsejun**

Erakusketa jarri dute, Aranoko Kontsejun: Amagoia Olazabal hondarribarraren 20 zeramika lan egonen dira ikusgai, ekainaren 14ra arte. /8

## ■ KIROLAK

**Nesken futbol topaketa, gaur**

CD Hernanik antolatuta, nesken futbol topaketa egingo dute gaur, arratsaldeko 16:00etan, 2006-2009 urteetan jaiotako-entzat. Urumea ikastolan izango da azkenean, eguraldi txarra iragarrita dagoelako. /9

**GAUR KRONIKAN****Hernani /4-5**

Animalien erabilpena, Goiz Eguzki, Jasota Bezala...

**Astigarraga /6-7**

Ilar Astea, Astarbe, EH Bildu, Sagardoetxea...

**Goizueta-Arano-Ereñotzu /8****Kirolak /9-10**

Atletismoa, judoa, kirol tabla...



## Erritmoa eta doinua, 2018ko sagardo uztari

*Uztaberri Eguna antolatu du Euskal Sagardoak gaur, eta horren iragarle izan zen ZoZongó musika taldea, atzo. /4*

**URTINEA**  
LORADENDA · EKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA

Urtelaga auzoa, 11  
USURBIL  
943 917 562

**IRUBIDE JATETXEA**  
Zure jatetxea. Epelen

Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 647 208 702

**CANEXION**  
Maskotenzako kalitatezko denda eta aholkularitza

Scalibor lepokoa erosiz gero  
**%20**ko deskontua txertaketetan

Akarregi poligonoa, 10. Hernani  
943 04 87 83

facebook.com/Canexion



■ ASTIGARRAGA EMARRI TALDEA

## Emarri giza proba taldeak marka ezarri du Usurbilgo 3.800 kiloko Harri Haundiarekin

22 neska aritu ziren harrizarrari tiraka, eta hiru plaza, bi zinta eta 2,20 metro egin zituzten ordu erdian. Lehenengo aldia zen neska talde bat 'Harri Haundi' horrekin lehiatzen zena eta ongi jardun zuten lanean.

PASA den igandean Emarri giza proba taldeak marka berria ezarri zuen Usurbilen. 32 urte eta gero Usurbilgo Harri Haundia erabili zen. Ez da nolanhiko harria, eliz harria deitzen zaiotenetako bat da eta 3.800 kilo pisatzen ditu hain justu. 1924garren urtean erabili zen txapelketa batean eta azkenengo aldiz 1987an plazaratu zen. Harri 'historikoa' da eta Usurbilera orain 32 urte Euskal Herri osotik etorri ziren lehiazera.

Oraingoan hiru talde bildu ziren. Bi mixtoak eta sei tiralarik osatuta; Lasuen eta Txori-erri bizkaitarrak biak, nahiz eta Txorierrin aritu ziren bi neskek gipuzkoarrak izan: Alatzne Etxaburua eta Elixabeth Txertudi. Hirugarren taldea Astigarragako Emarri nesken giza proba taldea zen, baina taldeak berezitasun bat zuen. Sei tiralariren ordez 22 neska aritu ziren harrizarrari tiraka edo, hobe esanda, bultzaka. zergatik bultzaka eta ez tiraka? Hori tiralarien kopuruak baldintzatu zuen. Horrek suposatu zuen burdinezko egitura bat eraikitzea denak bultzatu ahal izateko.

### Ordu erdiko lanean hiru plaza, bi zinta eta 2,20m osatu zituzten

Lehendabizikoak plazaratzen Emarriko neskek izan ziren. 30 minutu zituzten ahalik eta metro gehien egiteko harriari tiraka. Usurbilgo plaza lepo beteta zegoen eta ikuskizun ezin hobea eskaini zuten aurreneko aldiz neskez osatutako taldeak Harri Haundiari bultzaka.

Guztira hiru plaza, bi zinta



Emarri taldeko tiratzaileen artean ikusi daiteke puskatu zen harri zatia, Usurbilgo Harri Haundiaren gainean.

eta 2,20 metro osatu zituzten, baina izan zituzten gora beharak bide horretan. Ez zen lan xamurra izan. Hasteko Usurbilerako marka jartzea zuten helburu eta horretarako 22 emakumezko behar zituzten. «Ez da erraza izan 3.800 kiloko harria mugitzeko prest eta ilusioz zeuden emakume kirolariak biltzea. Baina lortu dugu eta pozik gaude», dio Olatz Mitxelena Emarriko kideak.

Aurrez martxoaren 31, igandean, elkartu ziren harria mugitzeko gai ote ziren probatze-ko. «Baina aldi hartan plaza bakarra egin genuen. Gaurkoan hiru izan dira. Ez genuen horrenbestetik espero». Izan ere, lehen aldia da soilik emakumez osatutako talde batek harri hori mugitzen zuela.

Garikoitz Etxeberria entrenatzaileak zuzentzen zituen

esfortzuan, baina lehenengo plaza egin eta gero lehenengo arazoak etorri ziren. Saiakera pare batean harria ez zen mugitu ere egin, 20 minutu inguru geratzen ziren, baina indarrak joan zirela pentsa zitekeen.

Ez zen horrela gertatu. Usurbilgo probalekuak bere koskak ere baditu eta batean geratu ezker zail izaten da bertatik irtetea. Lortu zuten krisi txiki hori gainditzea eta berriz ere zitzu bizian hasi ziren metroak egiten. Zitzu bizian esateko modu bat da, horrelako harri handia beti baita zaila mugitzen eta pixkana-pixkana egiten da aurrera. Emarririk lorturiko hiru plazak marka berria suposatzen du, beti ere kontuan hartuta berezitasunak. Orain arte beti seiko taldeak osatu izan

ziren eta 22koa lehenengoz plazaratu zen.

### Bigarren plaza egitear zirela harriaren zati bat puskatu zen

Beste oztopo bat ere izan zuten. Bigarren plaza egitera iristear zudela Usurbilgo Harri Handiaren zati bat askatu zen harritik, puskatu eta banandu egin zen. Erabaki azkar batean pusketa hartu eta harriaren gainean jarri zuten. Horrek bere alde ona ere bazuen, marruskadura gutxiago izango baitzen lurrarekin.

Behin plaza bat egin eta gero buelta ematea eta berriz bere lekuan kokatzea ere berezia zen. Horrenbeste tiratzailekin egiturari buelta eman behar zitzaion eta ondoko hesiak alde batera kendu, eta gero berriz bere lekuan jarri.

Garikoitz Etxeberriak agintzen zuen noiz hasi bultzaka, denak batera egitea garrantzitsua zen, baita zuzen jartzea ere. horregatik zuzentzen zituen behin eta berriz neskek ahalik eta hoberenen ipintzeko bultzaka aurretik. Gero agindua eman eta ehunzangoen moduan, kasu honetan 44 hanka batera hasten ziren mugitzen, koordinazio osoarekin.

### Jendearen animoek lagundu zuten

Plazan bildutako jendeak ere lagundu zien tiratzaileei: «Tiraka hasi garenean eta ikusi zutenean azkar gindoazela jendea harrituta hasi zen hizketan». Proba gogorra izan zen. Gustora agertu ziren protagonistak lortutakoarekin: hiru plaza pasatxo. Gainera harria mugitzen ikusteak

**TXOTX-2019**  
**AGUR AFARIA**  
**DUO JADEREN**  
**KONTZERTUA**  
 IPARRAGIRRE SAGARDOTEGIAN  
 Maiatzak 25 20:30  
 Sagardotegi menua - hontzertua 3350€  
 H355 6328 - C/Inaga Auzoa II, Hernani

*Eskerrik asko!*

Berogailua badankagu

**OTSUA - ENEA**  
 SAGARDOTEGIA  
 Sagardoa gure kontura  
 asteartetik ostiralera, ilunabarrean

Osiñaga auzoa, Hernani Tel. 943 55 68 94





Emarriko neska proba amaitu eta ordu erdira.



Jende asko bildu zen giza proba ikusteko Usurbilgo plazan.

ikusizuna hobetu zuen. Askotan, kilo asko eta ezin mugitzen aritzeak ikuskizuna itsusitzen baitu.

**22 tiralari lortzeko jendea deika eta beraien kontaktu bidez**

22 neska edo mutil 3.800 kiloko harriari tiraka jartzeko animo-arekin ez da erraza lortzen. Emarri taldeak berez hamar neska inguru izaten ditu taldean saio desberdinetan aritzeko, baina 22 kopuru haundia da. Hainbeste probalari lortzeko deika ibili ziren, baina telefonoa eta beraien kontaktua ere jarri zuten martxan jendeak deitu zezan. Antolatzaileek ere horretan lagundu zuten. Olatz Mitxelenaren esanetan, «24 neska bildu ziren eta, azkenean, bik kanpoan geratu behar izan zuten».

**Lasuenek Txorierrri gaintitu zuen zinta bateko aldearekin** Emarriko nesken saioa eta gero Lasuen eta Txorierrriko talde bizkaitarren txanda izan zen. Hori bai, aurretik puskatu zen harri zatia konpondu zen eta Emarrik erabili zuen egitura kendu eta sei tiralariarentzat prestatu. Aurretik lauk tiratzen zuten eta bik bultza atzetik. Mixtoak ziren taldeak, lau gizon eta bi neskez osatuak.

Lasuen aritu zen lehenengo eta bere marka ez zen plazara

Usurbilgo plaza lepo bete zen Lasuen, Txorierrri eta Emarri lanean ikusteko 3.800 kiloko harriarekin

iritsi 10 zinta eta 2,34 metrorekin. Txorierrrik bederatzi zinta eta 2,20 metro egin zituen. Lasueneko Gorane Ugarte eta Batirtze Izpizu neskek aurrean beste bi mutilekin aritu ziren tiraka eta beste bi mutilek bultzatzen zuten atzetik. Txorierrin aldiz lau mutil aritu ziren tiraka eta Alatzne Etxaburua eta Elixabeth Txertudi bultzaka atzetik.

**1987ko marka, plaza bat, hamaika zinta eta 1,10 metro urruti geratu zen**

Usurbilgo Harri Handiarekin errekorra Bizkaiko Artadialdek ezarri zuen 1987ko saioan plaza bat, hamaika zinta eta 1,10 metrorekin. Talde hartan zegoen Markinako Leoia beste indartsu batzuen artean. Beraz plaza batera geratu ziren irabazleak. 1987an zazpi taldek hartu zuten parte eta seik lortu zituzten pasa den igandeko irabazlearen marka baino lan hobeak. Bigarren marka onena Gabikako bizkaitarrak

1987 urtea izan zen azken aldia harria plazaratu zela eta oraingoan hiru taldeak desberdin antolatu ziren.

dute: plaza bat, zazpi zinta eta 0,74 metrorekin. Iruzubietak du hirugarren plaza, lau zinta eta 0,35 metrorekin.

Usurbilgo talde batek amaitu zuen urte hartan laugarren: plaza, bi zinta eta 0,15 metrorekin; Ispaster bosgarren plaza, zinta eta 1,25 metrorekin; Lapurdi seigarren: 12 zinta eta 2,10 metrorekin eta Arabako Motxotegik: zortzi zinta eta 1,05 metrorekin.

**Bihar marka saiakera, 600 kiloko harriarekin Bentetan**

Hurrengoan zer izango den galdetuta Olatz Mitxelenak jarri du hitzordua. Bihar, 18:00-etan, Astigarragako Bentetako probalekuan. San Isidro ospakizunekin ari dira jarraitzen Zamalbide eta Bentetan eta Euskal Pentatloia ikusgarri baten ondoren Emarriko zortzikoteak 600 kiloko harriarekin marka saiakera egingo du ordu erdian.

Euskal Pentatloian zazpi kirolari ariko dira: Xabier

Lasuen eta Txorierrri lau gizon eta bi emakumez zeuden osatuta, eta zegoen markatik plaza batera geratu ziren.

Ariztegi Santxin, Beñat Amade, Iñaki Errazkin, Jagoba Otaegi, Joseba Otaegi, Luis Txapartegi, eta Unai Ardeo Zaldua.

Egin beharreko lanak, gorrak: 100 kiloko bolari 15 jasaldi, 400 kiloko harriarekin bi laza, kanaerdiko egurra moztu, 50 kiloko txingekin sei plaza eta kilometroa korrika.

Lan guzti horiek jarraian egin behar dira eta denbora gutxien egin duenak irabaziko du. ||

- Emarri Taldea**
1. Maialen Garciarena Otermin
  2. Araitz Elgueta Arbelaitz
  3. Olatz Mitxelen Garmendia
  4. Estibx Almandoz Maya
  5. Iratxe Lopetegí Suarez
  6. Eneritz Gartzia Arruabarrena
  7. Ane Oskoz Egiguren
  8. Ainhoa Mazkieran San Roman
  9. Marina Del Rio
  10. Izaskun Urrestarazu De La Iglesia
  11. Amalur Arbelaitz Arbelaitz
  12. Eider Arco Salaberria
  13. Ainhoa Alzugaray Almandoz
  14. Ainhoa Galdos Arizmendi
  15. Enara Elizegi Rivera
  16. Naiara Zumeta Elicegui
  17. Ane Zinkunegi Hernandez
  18. Anne Belaunzaran Idarreta
  19. Ainara Otamendi Elizalde
  20. Ainhoa Otaño Albizu
  21. Karmele Irastortza Lekuona
  22. Malou Henriken Lacey

**Kids&Us.**  
language school

**the English Formula**  
Ingelesa urte 1etik aurrera

**Matrikulak Zabalik**  
\*\*\* 2019-2020 ikasturtea \*\*\*

**HERNANI - Antziola auzoa 7**  
673 812 144 - 943 841 786

**basmodec**

**PINTURAK**  
Etxe barrurako  
Kanporako  
Egurra babesteko  
Nahi duzun kolorea

**ZURE PINTURA DENDA**

**PAPER PINTATUAK**

**LAMINATUAK**  
Obrarik gabe

**FATXADAK**  
Akarregi poligonoa  
3.pabilloia 3-A Hernani

943 52 16 50  
basmodec.com

## ■ JAI BATZORDEA ANIMALIEN ERABILERA JAIETAK

### Animalien erabilera galdeketa bidez erabakitzearen kontra, bi aldeak

Jai Batzordeak antolatuta, eztabaida jendetsua izan zen aurreko ostegunean Askekintzako eta Sokamuturra Bai!-ko ordezkariekin.

SAN Joan Jai Batzordeak badaramakizki urte batzuk Hernaniko jaietan animalien erabilera nolakoa den aztertzen. Bide horretan, eztabaida antolatu zuen aurreko ostegunean *Animalien erabilpena Hernaniko jaietan* izenburupean, Biterin.

Jon Odriozola hernaniarrak moderatuta, sokamuturraren aldekoek eta animalien eskubideen aldekoek hartu zuten parte. Hain zuzen, Aitor Jaurrietak ordezkatu zuen Askekintza, eta Chapu Apaolazak, aldiz, Sokamuturra Bai! Aretoa jendez lepo, gazteak izan ziren nagusi. Hasteko, talde bakoitzak aukeratutako bideo bana ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek, eta ondoren hasi zuten eztabaida.

Iritziak mahai-gaineratzen laguntzeko, Odriozolak egindako galderei erantzun zieten, banan-banan; denera, bost.

#### Adostasun bakarra

Aitor Jaurrietak hartu zuen hitza bideoak ikusi ondoren. Haien inguruan hausnartu zuen:



Biterin izan zen eztabaida, aurreko ostegunean.

«argi eta garbi ikusten da bigantxak eta zezenak gogoz kontra daudela. Ez da justua animalio, gizakiak edo ez, horrela tratatzea». Eta areago ere joan zen: «dibertsioak ez du justifikatzen beste inoren sufrimendua».

Chapu Apaolazak, aldiz, zezenak berezkoa duela adierazi zuen: «borrokarako animalia da zezena, hori da haren izaera. Eta bakarrenetarikoa da sufrimenduaren aurrean ihes egiten ez duena».

Animalien sufrimenduen eta ekintzaren beraren inguruan, aurreko tesiei erant-

zunez, aritu ziren haien iritzia ematen, bata besteari entzuten. Adostasun bakarra lortu zuten: ez bata, ez besteak ez du galdeketa bat babesten. Sokamuturraren aldekoek, «aniztasuna» aipatzen dute arrazoitzat; Askekintzakoek, aldiz, diote «animalien gaineratik» ezin dugula erabaki.

Eztabaida sutuena, aldiz, publikoari hitz eman zitzaionean sortu zen.

#### Bideoa, webgunean

Bi ordezkarien arteko bideoa [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus) webgunean dago ikusgai. ■

## ■ EUSKAL SAGARDOA

### Uztaberri Eguna gaur, Atsegindegin

Arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara egingo dute, 2018ko uzta aurkezteko.

ATSEGINDEGIN jarri du zita gaur, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak. Uztaberri Eguna ospatuko dute bertan, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara, 2018ko uzta aurkezteko. Aukera izango da, 15 sagardotegitako sagardo berriak dastatzeko.

Izango ditu berezitasunak, dastaketak: batetik, kopan dastatuko dute sagardoa, bertaratuak; eta bestetik, dastatze

azkarrak eskainiko ditu Mikel Garaizabal enologoak. Pintxoak ere jarriko dituzte.

Goizean, berriz, bestelako ekintzak izango dira, ostalari-tzako profesionalei eta elkarte gastronomikoetako arduradunei zuzendutakoak, hain justu. Goizeko 11:30etan, hamaiketakoa egingo dute Euskal Sagardoarekin, Mikel Garaizabalek berak zuzenduta. ■

## ■ MUSIKA GOIZ EGUZKI

### Udaberriko kontzertua abesbatzak, Milagrosan

Gaur arratsaldeko 19:00etan kantatuko du Goiz Eguzkik, dantzari eta musikariek.

MILAGROSARA eramango ditu bere ahotsak gaur, Goiz Eguzki abesbatzak. Udaberriko kontzertua eskainiko du, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Aurrena, lau abesti eskainiko ditu gizonen abesbatzak, Javier Zubimendik zuzenduta; Gero, beste lau abesti emaku-

meen abesbatzak, Ixiar Zubimendiren esanetara; eta azkenik, lau abesti gehiago, denek elkarrekin. Batzuetan, gainera, Xabier Odriozola biolin jolea eta dantzariak izango dituzte lagun; eta beste batzuetan, Boni Agirresarobe txistularia eta Kanario atabala. ■

## ■ SAN ISIDRO EGUNA



Tilosetan egin zieten omenaldia, Aristegi eta Illarratsueta Berri baserrietakoei.

### Aristegi eta Illarratsueta Berriko baserritarrei, aitortza

San Isidro eguna ospatu zuten asteazkenean, Tilosetan elkartuta, eta pelota partidu eta bertso artean, omenaldia ere egin zieten, lau baserritari, lehen sektorearen alde egindako lana aitortzeko: Aristegi baserriko Joxe Mari Zelaia Olano eta Salustiana Irazusta Iraolari; eta Illaratsueta Berriko Roke Miranda Genua eta Arantxa Isasa Urrestazaruri. Lore sortak eta oroigarriak eskaini zizkieten, udal ordezkariak. ■

## ☞ JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

### Iruña-Veleia, epaiketa noizko?

Urtebete baino gehiago da Iruña-Veleia aferako akusazio-izatzak ezagutu zirela: Arabako Aldundiak zazpi urte eta erdiko kartzela-zigorra eta 300.000 euroko isuna eskatzen ditu Eliseo Gilentzat, Oskar Escibanorentzat 5 urte eta antzeko isuna, Ruben Cerdanentzat bi urte eta erdi. Fiskaliak ere antzeko zigorrak eskatzen ditu. Baina epaileak ez du izendatu oraindik epaiketa-eguna, hamar urte baino gehiago luzatu den auzi honentzat.

Normalean, zigor-eskaerak ezagutu eta pare bat hilabetera-edo hasi ohi da epaiketa. Ba kasu honetan, ez dakigu zergatik, urtebete igaro da eta orain-

dik akusatuek ez dakite noiz epaituko dituzten. Akaso, epaiketaren mamian dago arrazoi: zer epaituko dute froga zientifiko formalik egin ez bada? Eta nor epaituko dute, Ertzantzak faltsutzailerik aurkitu ez badu?

Bitartean, epai bidean dauden eta inguruko sufrimendua luzatzen ari da eta pertsona askoren jakinmina eta euskal kulturarako garrantzitsuak izan daitezkeen gaiak zapuzten.

Ez dago eskubiderik! Hau ez da justizia!

**Tomas Elortza Ugarte, Jexux M. Eizagirre Portillo, Juanjo Uria Zubiarrain eta Beñi Agirre Oiartzabal**



■ LORE ETA LANDARE AZOKA

# 17 postu, azoka koloretsuan

Lore eta Landare Azoka jarriko dute Urbieta kalean, goizeko 10:00etatik 14:00etara. Bi tailer ere eskainiko dituzte.

GAUR jarriko dute Hernanin, seigarrenez, Lore eta Landare Azoka. Goizeko 10:00etan hasi, eta 14:00ak arte egongo dira postuak; guztira 17, mota guz-

tietakoak: landare usaintsu eta apaingarriak, barrukoak, kaktusak, lore prentsatu eta lehorrak, kosmetika naturala, landare karniboroak...

Haurrentzako egur jolasak ere izango dira, eta bi tailer: lo-reekin orri markatzaileak egitekoa 11:30etan; eta loreak landatzeari buruzkoa 12:30etan. ■

■ MUSIKA GAZTE GANBERA

# Jon Ansorena txistularia txapeldun Espainian, Trio Zukan hirukotearekin

Madriilen egin den Espainiako Gazte Ganbera Musikari lehiaketa irabazi du, Maria Zubimendi akordeoi-jolea eta Gorka Catediano perkusio-jolearekin.

TRIO Zukan hirukoteko kideetako bat da Jon Ansorena txistulari hernaniarra, Maria Zubimendi akordeoi-jole zuma-iarrarekin eta Gorka Catediano perkusio-jole mirandarrarekin batera, eta Madriilen egin berri den Espainiako Gazte Musikarien lehiaketan aurreneko saria lortu dute pasa den asteburuan, Ganbera Musika sailean.

Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorio Realeko Manuel de Falla Auditorioan jo du hirukoteak, eta lehiaketa egin den 40 urte haueko parte-hartze haundiena izan da bertan. Denera, aurkeztutako taldeen artean 13 aukeratu zituen epaimahaiak Madriilen, zuzeneko sailkapen saioetan jotzeko, eta sei pasa ziren finalera. Horien artean gailendu da Trio Zukan.

**Txistua, akordeoia eta perkusioa, musika garaikidea egiten**  
Hirukote berezia osatzen du Trio Zukan deitutakoak, normalean elkartuta entzuten ez

diren hiru musika-tresna uz-tartuta osatu baitute taldea.

Donostiako Musikene Goi Mailako Musika Ikastegian ezagutu zuten elkar, eta 2014an osatu zuten taldea. Aurreneko diskoa, berriz, pasa den martxoan aurkeztu berri dute: *Soinuzko Begiradak. Toma 1*. Gehi-ago egiteko prest dauden seinale.

Eta, hain zuzen, aurrerantzean lanik ez dute faltako. Izan ere, diskoaren aurkezpenean aitortu bezala, musika

tresnen formazio berezi honetarako «ikerketa eta sorkuntza bultzatzea» izan dute beti helburu, hasiera horretan ez baitzegoen hirurek musika garaikidea egiteko aukera haundirik. Horrela, hainbat proiektutan mugilduta dabilta, eta diziplina ezberdinak nahastuta *Begirada Anitzak* proiektua ere jarri dute martxan. Era berean, jasotako sariari esker, estatuan barrena lau kontzertu bira emango dituzte. ■



Trio Zukan, Espainiako Gazte Musikarien lehiaketa irabazi berriaren.

Argazkia: HAROLD ABELLAN.

■ KIROLDEGIA

## Igerilekuak itxita, gaur goizean

Eskola kiroleko ekintzak tarteko, itxita egongo dira kiroldegiko igerilekuak, gaur goizean, 09:45etatik 12:00etara. ■

■ LANBIDE HEZIKETA

## Zikloen berri gaur, Lanbide Heziketan

Ateak irekiko ditu gaur Hernaniko Lanbide Heziketak, Karmelo Labaka eraikinean, bertan dauden zikloen inguruko informazioa emateko. Goizeko 11:00etatik aurrera izango da, eta bertaraterik ez daukanak, telefonoz deitu dezake, informazio eske: 943 55 19 58. ■

■ MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## Ate irekiak, Orona Ideoko kanpusean

Ate irekien jardunaldia antolatu du gaur, Mondragon Unibertsitateak, Orona Ideon daukan kanpusean. Goizeko 10:30etan hasiko da, eta aukera izango da, bertako ikasleen eskutik informazioa jasotzeko. ■

■ GAZTELEKUA

## Plana aldatuta, ping-pong txapelketa gaur

Plan berezia zeukan prestatuta Hernaniko Gaztelekuak, gaurko: aerorumba, jolasak eta merendola, Ave Maria parkean. Baina eguraldi txarra iragarrita dagoela eta, plana aldatu dute, eta Gaztelekuan gertatu dira: ping-pong txapelketa jokatu dute, bertan. ■

■ EH BILDU

## Osiñagako auzotarrek solasaldia, gaur

Auzoz auzoko erronda ari dira egiten EH Bilduko hautagaiak, eta gaur, Osiñagako auzotarrek egingo dute solasaldia. Arriatsu eskolan jarri dute hitzordua, eguerdiko 12:00etan hasita, EH Bilduk daukan proposamenak azaldu, auzotarren kezka argitu eta galderei erantzuteko. ■

■ ELKARREKIN PODEMOS



Plaza Berrin egin zuten aurkezpena.

## Proposamenak jendaurrera, ostegunean

Ekitaldia egin zuen Elkarrekin Podemos-Orain Hernanik, ostegunean Plaza Berrin. Bertan aurkeztu zituen, zerrenda osatu duten hautagai guztiak; baina baita programan jaso dituzten proposamen zehatzak ere. ■



**FUNERARIA  
ORBEGOZO  
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?  
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...




Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

## ■ SAN ISIDRO FESTA

# Zamalbiden eta Bentetan, festek jarraipena

*San Isidroko ospakizunetan gaur haurren eta gazteen eguna izango da eta bihar jubilatuen eguna. Herri kirol jaialdia Bentetako probalekuan 18:00etan hasiko da Euskal Pentatloiarekin.*

SAN ISIDRO eguna asteazkenean ospatu zen Astigarraga eta Zamalbiden ekitaldi desberdinekin. Asteburu honetan jaiak jarraipena izango dute bai Zamalbiden, baita Astigarragako Bentetan ere. Egitaraua, gainera, zabala izango da.

Gaur hasiko dira ekitaldiak haur eta gazteen egunarekin. Jolasak, bazkaria ipuinak, mus txapelketa karaokea, txokolatada, afaria... denetarik egongo da.

Bihar berriz jubilatuen eguna da eta meza, bertsolariak, pala txapelketak, bazkaria eta herri kirolak egongo dira. Herri kirol jaialdi indartsua antolatu da, 18:00etan hasita, Emarri taldeko neskekin eta Euskal Pentatloiarekin, Astigarragako Bentetako probalekuan. ||



Idi probek jende asko biltzen dute urtero Astigarragako Foru Plazan eta asteazkenean ere horrela izan zen.

### SAN ISIDRO JAIK ZAMALBIDE-BENTAK AUZOAN

#### GAUR, HAUR ETA GAZTEEN EGUNA

- **10:30-13:00:** Haur jolasak eta puzgariak, Perurenako frontoian.
- **13:00:** Haur bazkaria Auzolan Elkartearen.
- **15:00:** Pello Añorga ipuin kontalaria eta tailerrak Perurenako frontoiko lokalean.
- **16:00:** Mus txapelketa Auzolan Elkartearen.
- **17:00:** Karaokea lokalean.
- **18:00:** Txokolatada.
- **20:30:** Afari herrikoia. Musikarekin girotua, Auzolan Elkartearen 25 euroren truke.

### BIHAR, JUBILATUEN EGUNA

- **12:00:** Herri-meza. Ondoren, salda eta bertsolariak eliz atarian: Sebastian Lizaso, Adrian Arruti eta Xamoa.
- **12:30:** Auzoko 4garren Pala Txapelketako finala Perurenako frontoian.
- **14:00:** Jubilatuen omenaldiko bazkaria, musika eta bertsolariarekin girotua, Auzolan elkartearen.
- **18:00:** Herri kirol desafioa. Pentatloi saioa: Xabier Ariztegi *Santxin*, Beñat Amade, Iñaki Errazkin, Jagoba Otaegi, Joseba Otaegi, Luis Txapartegi, eta Unai Ardeo Zaldua. Emarri taldea 600 kiloko harriarekin marka jartzen saiatuko da. Bertsolariak ere arituko dira. Doan.



Zamalbidetako bizilagunek salda hartzen dute San Isidro egunez.

## ■ ILAR ASTEA

# Ilarraren azoka berezia bihar ospatuko da

*Joseba Barandiaran Plazan 11:00etatik 14:00etara Euskal Herriko produktuak egongo dira salgai eta bertako ilarrak eta barazkiak ere bai. Tailerra eta argazki saioa ere antolatu dira aurten.*

BARATZE elkarteak Udalararen babesarekin antolatzen duen Ilar Eguna deitzen den asteak zortzigarren edizioa betetzen du aste honetan.

Ilar egun haundia, berriz, bihar izango da, eta besteak beste, Luis Irizar eskolako sukaldariak egindako ilar pintxoak dastatu ahal izango dira. Joseba Barandiaran Plazan izaten da azoka berezi honen

erdigunea. 11:00etan emango zaio hasiera eta 14:00ak arte egongo da zabalik.

Bertako ilarrak, barazkiak eta Euskal Herriko produktuak egongo dira eskura eta *Hazia eta landarea* tailerra eta tomate landareen banaketa antolatu dira. Argazki saio irekia Idoia Lizeaga disenatzaile eta Alfredo Pastainek argazkilarik datuko dute. ||

### VIII. ILAR EGUNA

#### GAUR

- **11:00etan:** Astigarragako barazketara bisita gidatua: 11:00etatik aurrera Udaletxeko Kontzejupean.

#### BIHAR

- **09:30etan:** Txiriskla txistularien diana berezia.
- **11:00-14:00:** Joseba Barandiaran

enparantzaren Ilarra azoka berezia: Astigarragako ilarrak/barazkiak eta Euskal Herriko produktuak (artisau ogia, txerrikiak, pastak, gazta, e.a) eta *Hazia eta landarea* tailerra eta tomate landareen banaketa Marc Badal-en eskutik Haziera (Cristina Enea Fundazioko hazien arbi-boa)

Argazki saio irekia *Egun bateko andrea eta ilarra jauna* (Idoia Lizeaga lore arte disenatzailea eta Alfredo Pastain argazkilaria eskutik).

## ■ XAGUXAR

### Udalekuetako zerrendak, jarrita

Xaguxarrek antolatzen dituen udalekuetako zerrendak ostegunean argitaratu ziren kultur etxeko kortxoan eta sare sozialetan. Gogorarazi dute ordainketa egiteko epea asteazkenean arte dagoela. Nabarmentzekoa da 3. txandatan Astigarragan erroldatutako guztiak onartu direla eta 1 eta 2 txandatan zozketa egin behar izan dela. bertan erroldatuta ez daudenak kanpoan geratu dira. ||

### Kanpaldirako denak onartu dira

Bestetik, Kanpaldia 2019 Gardera apuntatu ziren denak izan dira onartuak eta ez da zozketaren beharrik izan. Hemen ere ordaintzeko epea asteazkenean arte, maiatzak 22, dago. ||

## ■ URTEURRENA

### Txiki taberna ospakizunetan dabil

Astigarragako Txiki taberna, bigarren urteurrena ospatzen ari da atzotik eta hainbat ekintza antolatu ditu asteburu honetarako. Gaur pintxopote girotua, 19:00etatik aurrera, egongo da. Gauean, 22:00etatik aurrera, karaokea eta 23:30etatik aurrera, Astigarragako Zulo taldearen kontzertua. Bihar, mus txapelketa antolatuko da, 16:30etatik aurrera. 20 euro bikoteko. Parte hartzera animatu dituzte herritarrak. ||

## ■ MUSIKA

### Batukada argentinarra, gaur

Harituzek antolatuta, Argentinako emakumez osatutako batukadaren emanaldia izango da gaur, 20:00etan, Joseba Barandiaran Plazan. Azken diskoa aurkeztuko dute Desbandas taldekoek..

## ■ HEGAZTIK

### Ornitologia ibilaldia Santiagomendin

Gaur eta maiatzaren 25ean hegaztiak ikusteko Haritzalde elkarteak antolatu dituen ibilaldiek aldaketak izango dituzte. Egun horietan, Ergobian beharrez, Santiagomendiko ermitaren apartokalekuan jarriko dute hitzordua, goizeko 09:00etan, eta bi orduko ibilaldia egingo dute, handik. ||

# Kronika

2019ko maiatzaren 18a, larunbata



HAUTESKUNDEAK  
**2019**

## ARANO



HERRI AIERRIZ  
**Joxean Ruiz Miner**  
4 - 5

## ASTIGARRAGA



EH BILDU  
**Xabier Urdangarin Lasa**  
6 - 7



EAJ-PNV  
**Zorione Etxezarraga Ortuondo**  
8 - 9



PSE-EE  
**Mikel Duran Gonzalo**  
10 - 11



PP  
**Jacobo Caparros Ruiperez**  
12

## GOIZUETA



EH BILDU  
**Unai Miranda Berroeta**  
14 - 15

## HERNANI



EH BILDU  
**Xabier Lertxundi  
Asteasuinzarra**  
16 - 17



EAJ - PNV  
**Andoni Amonarraiz Gomez**  
18 - 19



ELKARREKIN PODEMOS  
**Jaione Aristregi Cao**  
20 - 21



PSE-EE  
**Ricardo Crespo Rubio**  
22 - 23

## EREÑOTZU



PP  
**Cristobal Carretero Gomez**  
24



EREÑOTZU EKINEZ  
**Unai Erroitzena Gamio**  
26 - 27

HERNANI ETA ASTIGARRAGA - Udal hauteskunde emaitzak urtez urte

# Historiak lagundu dezake jakiten zer gertatu daitekeen hauteskundeetan

Demokraziako aurreneko bi udal hauteskundeetan, 1979an eta 1983an, Hernanik hartzen zituen Lasarteko bizilagunen ia boto gehienak, oraindik ez zelako udalerrri. Gauza bera gertatu zen Astigarragarekin, haien botoak, aldiz, Donostian kontatzen ziren.

FRANCO hil eta hiru urte eta erdira antolatu zituzten lehenengo udal hauteskundeak Espainian. Hernaniarrek apirilaren 3an bozkatu zuten lehenengo aldiz Hernaniko Udaleraren osaketareako. Astigarrarrek ez zuten aukera hori izan, eta Donostiako Udalerako eman zuten botoa. Hori horrela izan zen 1983garren urtera arte. 1987an aukeratu zuten aurreneko aldiz Astigarragako Udaleko korporazioa.

Hernanin, 1979an 21 zinegotzi aukeratu behar ziren. Gogora ekarri behar da urte horietan Hernaniren errolda 20.053 biztanlekoa zela. Lasarteko zati bat ere bere gain hartzen zuen, eta lasartear gehienek Hernaniko Udalerako ematen zuten botoa, oraindik ere ez baitzen Lasarte udalerrri.


Aurreneko zita horretan, Herri Batasunak irabazi zituen hauteskundeak 3.925 botorekin eta zortzi zinegotzi lortu zituen. Bigarren posturako lehia oso parekatua izan zuten EAJ-PNV eta PSOEk. Alderdi jeltzaleak, 2960 botorekin, sei zinegotzi eskuratu zituen, eta sozialistek, ordea, bost, 2726 botorekin. Ondoren, Euskadiko Ezkerrak bi zinegotzi atera zituen. Ez zen beste alderdirik egon ordezkariarekin.

Lehenengo hauteskunde hauetan, Juanjo Uria (HB) izan zen aukeratua Hernaniko alkate bezala.

## 1983an, HB eta PSOE 440 bototan

Legealdia bukatuta, Juanjo Uria ez zen berriro ere aurkeztu alkategai bezala. Lasarte-Oria ez zen oraindik udalerrri bezala eratu, eta horrek ere eragina izan zuen Udal Hauteskundeetan: Hernanik inoiz izan duen erroldarik haundiena izan zuen, 21.100 hain justu. Astigarraga ere, oraindik ez zen udalerrri eta Donostiarako bozkatzaren zuten.

Urte horretan, lehia oso estua izan zen Herri Batasuna eta PSOEren artean. 440 botoren aldea besterik ez zen egon bi alderdien artean, ezker abertzalearen alde; 4.193 eta 3.753 boto izan zituzten,



Hauteskunde emaitzen bilakaera, Hernanin.

hurrenez hurren.

Bi alderdiek zazpi zinegotzi lortu zituzten. EAJ-PNV ere bazegoen lehian, eta 3.510 botorekin, sei eserleku eskuratu zituzten Udalean. Hiru alderdi nagusien artean 683 botoren aldea zegoen. Euskadiko Ezkerrak ere lortu zuen ordezkari-tza; bakarra, 907 botorekin.

Maiatzaren 8an izan ziren; eta bera, San Joanak eta San Pedroak ospatu baino lehen Hernanik bazuen alkate berria: Ricardo Mendiola.

## Hernanin 21etik 17 zinegotzira 1987an; eta Astigarragako Udalerako lehenengo udal hauteskundeak

Egoera aldatu egin zen 1987ko ekainaren 10ean. Hernaniren errolda asko jaitzi zen, 14.208 biztanlera arte. Lasarte-Oria udalerrri zen dagoeneko eta horrek emaitzetan eragin zuzena izan zuen. Astigarragan ere aldaketa izugarria gertatu zen; Donostiatik banandu eta udalerrri bihurtuta, han ere, aurreneko Udala hautatu behar izan zuten.

Bestelako aldaketak ere izan ziren. EAJ-PNVren barruan, eztabaida piztu, eta ondorioz sortu zen Eusko Alkartasuna alderdi berria, hilabete batzuk lehenago.

Horren guztiaren eraginez, Hernanin emaitzak zeharo aldatu ziren. Herri Batasunak nagusitasunarekin irabazi zituen hauteskundeak 3.958 botorekin eta zortzi zinegotzi lortuz. 17 aukeratu behar ziren eta gehiengo absolututik bakarrera geratu zen Agustin Ezponda buru zuen zerrenda. Bera izendatu zuten alkate, ekainean.

Bigarren geratu zen PSOE, berriro ere, 1.885 boto eta hiru zinegotzirekin. EA alderdi berriak emaitza oso onak lortu

zituen Gipuzkoan, baita Hernanin ere, 1.632 boto eta hiru eserlekurekin. Eek bi lortu zituen, eta EAJk jaitziera nabarmena izan zuen 807 boto eta zinegotzi bakarrarekin.

Astigarragan ere emaitzak Herri Batasunaren aldekoak izan ziren, baina hemen lehia estua izan zuen Eusko Alkartasunarekin. Hamaika zinegotzi aukeratu behar ziren, 2.351ko errolda betetik. HBk bost zinegotzi lortu zituen, 695 botorekin, eta EAK lau zinegotzi, 599 botorekin; 96ko aldea izan zuten. EAJ, aldiz, birekin geratu zen (292 boto). Banaketak kalte egin zien jeltzaleei.

Antton Arka (HB) alkate bezala izan zen aukeratua, nahiz eta ez zuen legealdia bukatzerik izan. 1990ean Martin Agirre alderdikideak ordezkatu zuen Arka Auzitegi batek Espainiako bandera «iraintzeagatik» kargua betetzeko gaitasunik gabe utzi zuenean.

## 1991n ezker abertzaleak alkatetzak galdu zituen akordioen ondorioz, bai Hernanin, baita Astigarragan ere

1991. urteko hauteskundeak, Euskal Herri osoan, 1988ko urtarrilaren 12an sinaturiko Ajuria-Eneako Itun edo hitzarmen politikoak baldintzatu zituen, batez ere, alkateak erabakitze garaian.

Inoiz baino alderdi gehiagok lortu zuten ordezkari-tza Hernanin. Herri Batasunak irabazi zituen hauteskundeak, baina alde gutxiagorekin eta zazpi zinegotzi lortu zituen, gehiengotik urruti. PSOE, laugarrenez jarraian, bigarren alderdi bozkatuena izan zen, hiru zinegotzi lortuz, eta EAK ere hiru lortu zituen. EAJ-PNV zerbait errekuperatu eta bira iritsi zen. Euskadiko Ezkerrak bat lortu zuen

eta LKI-EMK ere sartu zen Udalean, ordezkari batekin. PSOE, EA, EAJ eta EE akordio batetara iritsi ziren eta Joxan Rekondo, EAKo hautagaia, izendatu zuten Hernaniko alkate. Lehendabiziko aldiz, Herri Batasuneko hautagaia ez zen alkate bat izango zuen Hernanin.

Astigarragan ere akordioa aurrera eramane zen. Bertan, HBk bost zinegotzi lortu zituen, baina EA eta EAJren baturak sei ordezkari eman zituztenez, EAKo Mikel Zabala izan zen alkate berria.

Bai Rekondok, baita Zabalak ere bi legealdi osatu zituzten, 1991tik 1999ra. 1995eko udal hauteskundeetan Astigarragan ez zen akordioaren beharrik izan. EAK irabazi baitzituen hauteskundeak botoetan, nahiz eta zinegotzietan berdinketa egon HBrekin, bosna zinegotzirekin. EAJ-PNVk bakarra lortu zuen.

Hernanin akordioa egon zen, bigarrenez. Herri Batasunak, berriz ere, zazpi eserleku lortu zituen. Lehenengo aldiz, bigarren bozkatuena ez zen PSE izan, orain jada EEREkin batera. Rekondo alkatearen EA alderdiak lortu baitzuen hori. Hori horrela, Eusko Alkartasunak lau eserleku lortu zituen; eta PSE-EEK, hiru. EAJ, berriz, bakarrarekin geratu zen, EB eta PP bezala. Lehenengo aldiz, alderdi popularrak ordezkari-tza lortu zuen Hernanin.

## Herri Batasunako Mertxe Etxeberriak inoiz alkate batek lortu duen emaitzarik onena

1999ko hauteskundeek aldaketak ekarri zituzten. Gainera, ETAK su etena eman aldarrikatu zuen; eta badirudi eragina izan zuela hauteskundeetan. Ezker abertzaleak izena aldatu zuten eta



Euskal Herritarrok izenarekin, inoizko emaitzarik onenak izan zituzten Hernanin.

5.015 hernaniarrek eman zioten botoa EHri eta %48ko portzentajearekin, 9 zinegotzi eskuratu zituen. EA eta EAJ elkarrekin joan ziren, koalizioan, eta bost eserleku lortu zituzten. PSE-EEK ordurarteko emaitzarekin kaxkarrenak atera zituen bi zinegotzi eta 1.428 botorekin eta PPK bere zinegotzia mantendu zuen.

#### Bi emakume alkate lehenengo aldiz, Hernani eta Astigarragan

Emaitza horiekin, Hernanin Mertxe Etxeberria zen alkate berria gehiengo absolutuarekin. Ordura arte, inoiz ez zuen mota horretako gehiengorik izan.

Astigarragan ildo beretik joan ziren emaitzak, nahiz eta bertan indarrak parekatuagoak egon bi zerrenda nagusien artean. 63 botoen aldea egon zen Euskal Herritarrok eta EA-EAJ koalizioaren artean; botoen %48a eta %44a, hurrenez hurren. Zinegotzietan, ezker abertzaleak sei eserleku lortu zituen; eta EA-EAJk, bost. Han ere, emakume batek hartu zuen alkatetza: Eli Laburuk.


#### 2003an Batasuna legez kanpo eta EA-EAJ koalizioa, berriz, alkatetzara

2003ko hauteskundeak Batasunaren, ezker abertzalearen izena orduan, ilegalizazioaren eraginpean antolatuta ziren. Eta Bailaran zuten indarra ikusita, emaitzak guztiz baldintzatu zituen. Hernanin, EA-EAJ koalizioak irabazi zituen hauteskundeak 2.840 boto eta zortzi zinegotzirekin. Berrero ere, Joxan Rekondo alkate aukeratu zuten. Bere hirugarren legealdia izango zena eta, 1979 gerotik, Hernaniko alkate bezala urte gehien egin dituen hernaniarra bihurtuz. PSE-EEK lau zinegotzi lortu zituen; EB, hiru eta PPK, bi.

Astigarragan EA-EAJ koalizioak hamaikatik bederatzia eserleku eskuratu zituen, ia zinegotzi guztiak. Beste biak, PSE-EE eta PPren artean banatu zituzten. Alkate berria Bixente Arrizabalaga izan zen, eta zortzi urtez izan zen Udalaren buru.

#### 2007an, aldaketa Hernanin, eta jarraipena Astigarragan

2007a urte berezia izan zen. Ezker abertzalea herri batzuetan aurkeztu ahal izan zen, EAE-ANVren izenpean, baina hautagaitza batzuk ez ziren onartu. Hernaniko zerrendak aurkezteko aukera izan zuen; Astigarragakoak, aldiz, ez.



Udal Hauteskundeetan alderdiek izan duten joera, Astigarragan.

Hori horrela, Hernanin ANVk irabazi zituen hauteskundeak 4.187 boto eta zortzi zinegotzirekin. PSE-EEK bigarren postua lortu zuen, hiru zinegotzirekin. EA eta EAJ ez ziren koalizioan aurkeztu; emaitza oso antzekoak lortu zituzten, eta bina zinegotzi banatu. Ezker Batuak bat lortu zuen, PPK bezala. Marian Beitia-larrangoitia aukeratu zuten alkate, Hernaniko bigarren alkate emakumea.

Astigarragako emaitzak historikotzat hartu daitezke egon zen banaketarengatik. Bost alderdi irten ziren ordezkatuak, inoiz baino gehiago. Alkatetza EAko Bixente Arrizabalagak mantendu zuen. Lau zinegotzi eskuratu zituen EAK, EAJk hiru, EBak bi, PSE-EEK bat eta PPK, bi.

#### EH Bilduk gehiengoa absolutua Hernanin eta Astigarragan, 2011n

Handik lau urtera, ezker abertzaleak, legez kanpokotasuna gaindituta eta ETaren behin betiko su etenarekin, emaitzak hobetu egin zituen bai Hernanin, baita Astigarragan ere, gehiengo absolutuarekin. EH Bildu koalizioa sortu zen eta bertan integratu ziren EA, Aralar, Alternatiba eta Sortu alderdiak.

Hernanin, Luis Intxauspe izendatu zuten alkate 4.205 botorekin, baina 1999ko 5.015eko langa urruti geratu zen. Kontuan hartu behar da, Hernanin bigarren, boto kopururik altuena Amairrek, lortu zuela urte horretan bertan, Hauteskunde orokorretan, 4.747 botorekin. Hirugarrena, hurrengo urtean Eusko Legebiltzarra osatzerakoan, 4.488 boto eskuratu zituen EH Bilduk. Eta laugarrena, 1998an izan zen, Eusko Legebiltzarrerako zitan, 4.600 bototik gora lortuta.

2011ko Udalekoetan bederatzia eserlekuarekin bigarren aldiz gehiengo absolutua lortu zuen. Bigarren geratu zen EAJ hiru zinegotzirekin, eta PSE-EEK, beste hiru eskuratu zituen. Eusko Alkartasunatik banandu zen Hamaikabatek bi zinegotzi lortu zituzten. Alderdi popularra, 1995tik Udalean ordezkari izan eta gero, zinegotzi gabe geratu zen.

Astigarragan ere, EH Bilduk gehiengo absolutuarekin irabazi zituen hauteskundeak. Hamaika zinegotzietatik, zazpi eskuratu zituen, 1.050 boto lortuz. EAJk bi eskuratu zituen, eta HI! ere birekin geratu zen. Beraz, Andoni Gartzia (EH Bildu), Bixente Arrizabalagaren erreleboa hartu zuen alkatetzan.

Astigarragan ere, EH Bilduk gehiengo absolutuarekin irabazi zituen hauteskundeak. Hamaika zinegotzietatik, zazpi eskuratu zituen, 1.050 boto lortuz. EAJk bi eskuratu zituen, eta HI! ere birekin geratu zen. Beraz, Andoni Gartzia (EH Bildu), Bixente Arrizabalagaren erreleboa hartu zuen alkatetzan.

#### Jarraipena, Luis Intxausperekin

2015eko hauteskundeak izan dira azkeneko Udala osatu dutenak. Hernanin, EH Bilduk aurreko zitako emaitzei eutsi zien, nahiz eta 23 boto gutxiago eskuratu. 4.182 botorekin gehiengoa lortu zuen Luis Intxauspek, berriz ere, bederatzia zinegotzirekin, baina partaidetza

jaitsi zela ikusita, botoen %45,69era iristea lortu zuen. Horrek esan nahi du, portzentaian inoiz lorturiko hirugarren emaitzarik altuena izan zuela, 1999ko eta 2007ko %48a eta %46aren atzetik, hurrenez hurren.

#### Aldaketa Astigarragan, PSE-EErekin akordioa eginda

Astigarragan aldaketa urtea izan zen, zentzu zabalean. Herriaren hazkundearen ondorioz, hamaika zinegotzi aukeratzetik hamaikak aukeratzera pasa zen herria, bi zinegotzi gehiago.

Emaitzetan ere aldaketak izan ziren. EH Bilduk irabazi zituen, berriz ere, hauteskundeak, 1.130 botorekin, eta EAJ, 17 botorik ez zen geratu zen. Alde txikia bi alderdi nagusien artean. Horrek ekarri zuen zinegotzietan berdinketa egotea, biak seina ordezkariarekin. Hamaikagaitza PSE-EEK lortu zuen, eta hori erabakiorra izan zen Udal Gobernuaren eratzeko orduan. PSE-EEK eta EAJk akordioa egin zuten Gipuzkoan, eta Astigarragan ere eragina izan zuen. Andoni Gartzia alkate izateari utzi behar izan zion, eta bere ordezkari, Jesus Mari Santosek, EAJren hautagaiak, hartu zuen alkatetza. Hala ere, alkate berriak ez zuen legealdi osoa bete. 2017garren urte hasieran utzi egin zuen eta EAJren zerrendan bigarren postuan zegoen Zorione Etxezarragak hartu zuen lekukoa. ||

ARANO HERRI AIERRIZ - Joxan Ruiz Miner

# «Garraio publikoa herrira igotzea da erronketako bat, eta badago aukera»

Aurreko bi legealdietan, zinegotzi izan da Joxan Ruiz Miner, Herri Aierrizekin, Aranoko Udalean. Eta orain, taldearen zerrendaburu da, alkatetzarako. Uste du, «talde polita» osatu dutela, eta nabarmendu du, Ainhoa Ansa irekitako bidetik jarraitu nahi dutela: «ekarpen politikak egin dizkiogu herriari, azkeneko lau urteotan. Azpiegituretan daukagu erronka nagusietako bat». Xabier Legarreta, Kontxi Claver, Xabier Cueto eta Jon Mari Beasain izango ditu lagun, horretarako.



Joxan Ruiz Miner, Herri Aierrizeko alkategaia.

Joxan Ruiz Miner izango da, aurtengo Udal Hauteskundeetan, Herri Aierriz taldearen alkategaia, Aranon. Ainhoa Ansa alkatearen erreleboa hartu, eta berarekin bi legealdiz zinegotzi aritu ondoren, aurreneko lerrora emango du pausoa, Ruizek. Edozein kasutan, Ansa-ren bideari segi nahi diola nabarmendu du, eta azpiegituretan ditu erronka nagusia. Zerbitzuei dagokionez, garraio publikoa Aranora ekartzeko eskaera, errealitate bilakatzea espero du, datozen lau urteotan: «gauzak agindu bezala betetzen badituzte, aukera badagoela dirudi, baina ikusiko dugu zertan gelditzen den proiektua».

## Lantaldetik alkatetzara pasako zara. Animatuta zaude?

Bai noski, bi legealdi zinegotzi bezala pasa ondoren, polita izango da erronka hau hartzea.

## Bost laguneko taldea osatu duzue. Nola ikusten dituzu lankide berriak? Bakoitzak zein gai landuko du?

Lan talde polit bat osatu dugu, indarrak berritzeko lankide berriak ondoan edukitzea ezinbestekoa dela iruitzen zait.

Alde batetik, Xabier Legarretak, orain arte hirigintzako zinegotzia izan denak, gurekin jarraituko du. Eta bestetik, aurpegi berrien artean, Xabi Cuetok alkateordearen lanak egingo ditu; Kontxi Claver Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia izango da; eta azkenik,

«Zalantzarik gabe jarraituko dugu, Ainhoa Ansa ireki duen bidetik. Azkeneko urteotan, ekarpen politikak egin dizkiogu herriari»

Jon Mari Beasainek euskera eta kultur arloak jorratuko ditu.

Denon artean, datozen lau urteetan lan polit bat egitea espero dut.

## Ainhoa Ansa-ren lan taldean egon zara aurreko legealdietan. Lan ildo beretik jarraituko duzu orain, alkatetza hartuta?

Zalantzarik gabe jarraituko dugu, Ainhoak ireki duen bide horretatik. Azkeneko urteetan, ekarpen politikak egin dizkiogu herriari, eta ildo beretik

«Hemendik inguruko herrietara joatea 'erraza' da; baina belaunaldi berriei begira, hauek herrian gelditzea nahi badugu, ahal den herri osasuntsu eta erakargarriena egiten indar haundia jarri beharra daukagu. Zorionez, haur asko ditugu orain herrian, eta jende berria ere etorri da kanpotik»

jarraitu nahiko nuke.

## Zer dago egiteko Aranon? Zein erronka dauzka herriak?

Lehendik datozen lanekin jarraitzea da asmoa, eta azpiegituretan daukagu erronka nagusietako bat. Hemendik inguruko herrietara joatea erraza da; baina belaunaldi berriei begira, hauek herrian gelditzea nahi badugu, ahal den herri osasuntsu eta erakargarriena egiten indar haundia jarri beharra daukagu.

## Besteak beste, Maisuenea jarri da martxan legegintzaldi honetan. Zein onura ekarri dizkio herriari?

Edozein motatako kultur ekiltadietarako egokia da, eta egunerokotasunean bilgune bat suposatu du, hainbat ekin-tza antolatzen baitira bertan; besteak beste, ludoteka umeentzat, gitarra ikastaroak, yoga... Eta euria egiten duen egunetan, aterpe bat izatea suposatzen du.

Honekin batera, Jalki Kultur Elkartea





Herri Aierrizen boskotea: Xabier Legarreta, Jon Mari Beasain, Joxan Ruiz, Kontxi Claver eta Xabier Cueto.

«Ez dugu inoiz pentsatu Aranora pediatria zerbitzua ekarri beharko litzatekeenik. Baina Goizuetako zerbitzua kolokan egon denean, ez gara isilik geratu. Hala ere, honek bestelako premiak azaleratu dizkigu; Osakidetza eta Osasunbidearen arteko hitzarmen baten aukera aztertu beharra, esate baterako»

«Maisuenea egokia da edozein motatako kultur ekitaldietarako, eta egunerokotasunean bilgune bat suposatu du, hainbat ekintza antolatzen baitira bertan; besteak beste, ludoteka umeentzat, gitarra ikastaroak, yoga... Eta euria egiten duen egunetan, aterpe bat izatea suposatzen du»

**ere sortu da. Zein eragin izan du eta izango du Aranoko herri bizitzan?**

Jalki kultur elkarteak, herriko kultur dinamika astintzeko sortu da; eta aldi berean, herriko garapenean eragiteko. Udalarekin elkarlanean aritzeko borondatea duen elkarteak da Jalki kultur elkarteak, eta indarrak batzea beti da ona herriarentzat.

**Beherakada demografikoa arazo bilakatu da herri txikietan. Aran nola bizi duzue kontu hau? Zer egin daiteke halako herri txiki batek biziraun dezan?**

Argi dago, bertan bizi eta lan egiteko aukerak sortu egin behar direla. Ezin gara lo gelditu, lehendik datorren belaunaldi baten faltak berriz ere hutsunea ekarriko duelako. Baina zorionez, haur asko ditugu orain herrian, eta jende berria ere etorri da kanpotik. Horri eutsi behar diogu.

**Kostata, baina Goizuetako pediatria**

**zerbitzua berreskuratzea lortu da. Pediatra zerbitzua Aranora ekartzeko aukerarik izango litzake? Nola dago kontua?**

Ez dugu inoiz pentsatu Aranora ekarri beharko litzatekeenik, ikusita zenbat arazo sortu diren pediatria eskasiarekin. Baina Goizuetako zerbitzua kolokan egon denean, ez gara isilik gelditu. Hala ere, bestelako premiak azalean utzi dizkigu honek; Osakidetza eta Osasunbidearen arteko hitzarmen baten aukera aztertu beharra, esate baterako. Hitzarmen hau eskatu dugu, esaterako, Osasunbidean.

**Beste zerbitzu publiko batzuk ere, ez daude Aran bertan. Hurbildu behar al dira?**

Zerbitzu publiko guztiak ongi etorriak izango dira. Asko dira Aran falta direnak, eta oraintxe bertan, erronketa bat litzateke garraio publikoa herriraino igotzea. Gauzak agindu bezala betetzen badituzte, aukera ba-

dagoela dirudi, baina ikusiko da zertan gelditzen den proiektua.

**Herritarrei bidea errazteko, Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean hitzarmenik behar al da?**

Izatez hitzarmen batzuk egon badaude, baina badago zer hobetua. Eta arlo batzuetan, ari gara gai horiek lantzen; pediatriaren arloa adibidez. Segurtasun arloan ere, hobetu beharreko gauzak daude, administrazioen artean.

**Lau urte hauetan Nafarroako Gobernuan izandako aldaketak, lagundu al du Aranorekin zeukan harremanean?**

Bai, badirudi aurreko legealdietan baino jarrera gertukoagoa izan dutela behintzat. Hizkuntza aldetik nabaritu da, eta nabaritu da herri txikienganako keinu bat, nahiz eta oraindik legeak ez dauden herri txikiengatik pentsatuta.

**Saiakerak egin dira, Irakurri**

**Poligonoan herriko ekonomia sustatuko duten jarduerak bultzatzeko. Nola dago proiektua gaur egun?**

Gorabeherak zuzentzea zaila izan da. Poligono pribatua da, eta herrirako onuragarriak diren jarduerak bultzatu nahi ditugu, sortu daitezkeen lanpostuak ezinbestekoak baitira herriaren garapenerako.

**Euskararen erabilera kontuan hartuta, arnagune da Arano. Zein erronka ditu, zure ustez?**

Galdu ez dadin, euskalkia bera mantentzea da erronka nagusia. ||

*Titularrak*

1. Joxan Ruiz Miner
2. Xabier Cueto Martin
3. Xabier Legarreta Etxarri
4. Jon Mari Beasain Irazusta
5. Kontxi Claver Oiarbide

ASTIGARRAGA EH BILDU - Xabier Urdangarin Lasa

# «Garrantzia eta lehentasun osoa izango dute hezkuntzako azpiegiturek»

Andoaindarra da izatez Xabier Urdangarin Lasa, baina 20 urte daramazki Astigarragan bizitzen. Herrian «hainbat saltsatan» ibilia da, berak onartu bezala: Musika Eskolan, Guraso Elkartean, Gure Esku Dagon... eta orain, beste pauso bat eman du: EH Bilduren alkategaia da.

**AURRENEKO aldiz izango zara alkategai. Nola hartu duzu erronka?** Herriko gauzetan parte hartzen bai, ibili ohi naiz, baina hau berria da niretzat. Politikak ez du izen onik, baina iruditzen zait Astigarraga bezalako herri batean alkate edo zinegotzi izatea gauzak egitea dela, politika haundien hitz potologetatik urrun. Erronka haundia da, baina egia esan, gogoz nago; talde polita osatu dugu. Gauzak ondo egingo dituen taldea da.

**Talde berri xamarra aurkeztu duzue. Indar berrien beharra ikusi duzue?** Zerrendako lehen hamahiru lagunetan bi daude orain zinegotzi direnak. Beste guztiak berriak gara. Ona da taldeak berritzea, batzuk atseden hartu eta beste batzuk saltsan sartzea. Gainera, herrian hainbat arlotan ibili ohi garen pertsonak gara, gogoz gatozenak eta herri programa baten inguruan bat egin dugunak. Lanerako gogoz gatoz, ilusioz. Bestalde, EH Bilduren proiektuak pertsona berriak erakartzeko duen gaitasunaren isla ere bada aurtengo zerrenda.

**Ze balorazio egiten du EH Bilduk azkeneko lau urte hauen inguruan?** Balorazioa bi hitzetan laburtuta hauxe da: kudeaketa txarra. Datuek argi erakusten dute EAJ-PNVko udal gobernuaren kudeaketa oso kaskarra izan dela. 2018ko aurrekontuari buruzko datu bat nahikoa da hori ikusteko: 2018ko aurrekontu osoaren %59a baizik ez du gauzatu EAJ-PNVko udal gobernuak. Inbertsioen datua are eta okerragoa da, 2018ko inbertsioetarako aurrekontuaren %19 erabili da. 2017 eta 2018ko datuek erakusten dute kudeaketa txarra, aurrekontuak egiteko zehaztasunik eza, beraiek onartutako aurrekontuak gauzatzeko gaitasunik eza... Autobus garraioan arazoak eta murrizketak, Haurreskola berria hasi gabe, Herri Eskola haunditu gabe, DBHko ikastetxea eraikitzeke lurra prestatu

«Aldaketa EH Bilduri botoa emanda soilik lortuko da»

«Partxeen aroari amaiera eman behar zaio»

gabe... Eskumena ez da Udalarena, esango du EAJ-PNVren udal gobernuak, bai, baina Udalak askoz ere gehiago egin zezakeen.

**Azken legegintzaldian krispazio-giroa nabaria izan da bi talde nagusien artean. Ze jarrera hartuko du talde berriak?**

Gure jarrera garbia izango da: elkarriketa eta elkarlana. Guretzat oso garrantzitsua da hitz egitea, gauzak argi esatea, adostea... Lanerako eta elkarlanerako jarrerarekin gatoz. Baina argi eta zintzo hitz egin behar da, gai batean zeresana duten guztiakin, informazioa mahai gainean jarri eta mamuak eta errezeloak alde batera utzita. Udal gobernu honek gai askotan errezelo txar gehiegirekin jokatu du gurekin. Lau urteotan, EH Bilduk jarrera zorrotza izan du, baina jarrera eraikitzailea ere izan du: EH Bilduk oposiziotik 687 ekimen edo proposamen baino gehiago bideratu ditu (EAJk aurreko legegintzaldian 80 ozta-ozta), baina behin eta berriz EAJren itsukeriarekin topo egin du.

**Hauteskunde orokorrak nahiko estu irabazita, nolako emaitzak espero dituzue udal hauteskundeetarako?**

Gure helburua 7 zinegotzi lortzea da, hau da, gehiengo osoa, izan ere, badakigu EAJ-PNVk eta PSEk tratua egingo dutela, duela lau urte bezala, elkar babestu eta agintea eskuratzeko. Hauteskunde orokorretako emaitzak ikusita, gogotsu gaude eta uste dugu aukera badugula 7 zinegotzi eskuratzeko. Aldaketa EH Bilduri botoa emanda soilik lortuko da.

**Taldearen aurkezpenean esan zenuen Kontxa Etxeberria plazan egin zenutela «hau ere badelako Astigarraga»...**

Astigarraga ikaragarri hazi da. 15 urtean biztanle kopurua %85 hazi da, 4.000 biztanletik 7.000 biztanlera. Etxebizitzak, kaleak, espazio berriak... Hamar urtean Astigarragara etorri ez denak ia ez du ezagutuko. Horrelako aldaketa batek ezinezona eta kezka sortzen du, Astigarragaren nortasunari buruz, hazteko moduari buruz, etorkizunari buruz... Kezka bai, baina alferrik da garai bateko Astigarragari be-



Xabier Urdangarin Lasa, Astigarragako EH Bilduren alkategaia.

gira egotea. Gaurko Astigarraga dugu eskuetan eta hortik abiatuta eraiki behar dugu denontzako herria. Horregatik egin genuen aurkezpena Kontxa Etxeberria plazan, plaza hori ere gurea delako, Astigarraga delako, Joseba Barandiaran plaza bezala.

**Zein gaitan jarriko du indarra EH Bilduk?**

Gai asko dira garrantzitsuak. Hara, herri-programan 9 lan esparru bereizi ditugu eta 45 proposamen zehatz landu ditugu. 80 pertsona inguruk parte hartu dugu hori guztia lantzen (3 batzar ireki egin ditugu). Lan haundia eta sakona egin dugu eta ahalegin berezia kostuak kalkulatzeko. Garrantzia eta lehentasun osoa izango dute hezkuntzako azpiegiturek: Haurreskola, Herri Eskola haunditzeko proiektua, DBH... Pelotalekua eta kiroldegia berri eta egokitu behar ditugu, duela 20 urtekoak dira, Astigarragak 3.500 biztanle zituenekoak. Gazteak eta nerabeak ere izango dira gure jomuga nagusi.

Lau urteotan guztiontzat zerbitzu publiko egokiak edukitzea lortu nahi dugu. Batzuetan, eskumena ez da Udalarena, baina horrek ez du esan nahi zain geratu behar denik. Ezta pentsatu ere, ezin da zain egon! Autobus zerbitzua Aldundiaren eskumena da, ezin dugu, besterik gabe, zain geratu. Joan egin behar da, hitz egin, eskatu, exijitu...

Bestetik, 2019-2023ko agintaldian

Planeamendu Orokorra eguneratzeko lanak egin behar dira. Hor erabakiko da datozen 8-12 urteetan Astigarragan zer eraiki eta non. Gure proposamena etxebizitzak eraikitzeke bidean geldiene bat egin eta gogoeta sakona egitea da. Astigarraga modu orekatu eta jasagarrian hazteko oinarriak adostu eta erabakiak hartu behar ditugu.

**Hazkunde demografikoa arazo bilakatzen ari dela aipatu izan duzue. Zertan nabari da hori?**

Hazkunde demografikoa berez ez da ez txarra, ez ona. Kontua da modua, epealdia, proportzioa... Irudika ezazu Donostiako populazioa hurrengo 15 urteetan %85 hazten dela, hau da, 180.000 biztanletik 330.000 biztanlera. Pentsatze hutsak garbi erakusten du zerbitzu publikoak egokitzeko lan ikaragarria egin beharko litzatekeela (garraio publikoa, anbulatorioak, eskolak...).

Astigarragan proportzioan hori gertatu da eta zerbitzuak egokitu gabe ditugu. Oso atzean gabilta. EAJk inposatu zuen Plan Orokorra dago arazo horien oinarrian: etxe ugari bai, baina zerbitzu eta azpiegitura aurreikuspenik ez. Arazoa sinplea da, askoz ere pertsona gehiago gara eta zerbitzuak berberak dira (anbulatorioa, garraioa, hezkuntzako azpiegiturak, kiroldegia...) edo, autobusaren kasuan, okerragoak, izan ere murriztu egingo dute. Goizetan komeriak izaten dira askotan auto-



## «Datuek argi erakusten dute EAJ-PNVko udal gobernuaren kudeaketa oso kaskarra izan dela»

busean kabitzeko.

3.500 biztanlerentzako zerbitzuak ditugu eta ia 7.000 biztanle gara. Oreak lortu behar dugu hazkunde demografiko eta urbanistikoaren, zerbitzuen eta integrazio soziokulturalaren artean. Partxeen aroari amaiera eman behar zaio.

### Herria geldirik dagoela salatu izan duzue askotan, baina EAJk dio hainbat proiektu egin direla: kultur etxe berria, tren geltokia... Nola aterako da herria geldialdi horretatik?

Kultur etxe berria aspalditik dator, promotorarekin etxebizitzak eraikitzearen ordainetan egin zen tratutik, beraz, ez da legegintzaldi honetako kontua. Gainera, ekainerako amaitua behar luke baina ez dute amaituko. Kultur etxea izan daiteke udal gobernu honen begiko proiektua, baina egiteko eran hutsune asko ikusi ditugu: ez da parte hartze prozesu txukun bat egin, nolako kultur etxea egin, ez da herritarrokin hitz egin, udaletxeko teknikarien iritziak ere ez dut uste kontuan hartu dituztenik nahiz eta promotorarekin sinatutako hitzarmenak horrela jaso...

Gaiez gai begira hasten bazara, ikusiko duzu oso emaitza kaskarra izan dela eta zerbitzuen eta azpiegitura publikoen arloan oso atzera geratu gara. Egin diren apur horiek, ez dira Udalaren ekimenarengatik izan, hirugarren batzuegatik baizik: kultur etxea, erribera parkea, tren geltokia... Eta tren geltokia martxan ikusteko, zoritxarrez oraindik pazientzia beharko dugu astigartarrok.

Geldialdi horretatik ateratzeko hiru gauza behar dira: bat, zer egin nahi den argi eduki; bi, autonomiaz jokatu herri gisa, Astigarragaren interesak jarriz gauza guztien aurretik; eta, hiru, gogotik, gogoz eta eraginkortasunez lan egin.

### DBHren korapiloa, aldiz, askatzeke dago oraindik. Zer egin daiteke Astigarragak DBHa lehenbailehen izan dezan?

Eusko Jaurlaritzak hamabost urte pasa ditu esanez Astigarragan ez zuela DBHko ikastetxerik egingo. Joan den urtarrilean, berriz, baietz esan du, horren premia ikusten dutela eta lurra prestatuta bere esku utzi bezain laster hasiko direla. Eta Astigarragako Udala etxeko lanak egin gabe!

EAJ-PNVren udal gobernu mahai gainean ezinezko alternatibak jartzen aritu da, ez du argi hitz egin, orain alternatiba bat, orain agian beste bat... Lurra osorik erosi gabe dago, hiritartzeko lanak egin gabe... Gure ustez posible den alternatiba bakarra hilerriaren azpialdekoa da. Ergobiako alternatiba ez da bideragarria, uholde arriskuko eremuan dagoelako eta Ur Agentziak esan duelako hor ezin dela eraiki.



EH Bilduk aurkeztutako taldea, Urdangarin alkategaiarekin.

Hor eraikitzeotan, aurretik, Urumeako ibai arroan uholde arriskua murrizteko plangintzako obra guztiak amaituta egon behar dute eta ez dira amaituta egongo 6 urte baino lehenago.

Guk konpromisoa hartzen dugu urtebeteko epean hilerriaren azpialdeko lurra hiritartuta Jaurlaritzaren esku jartzeko (lurra osorik eskuratu, proiektua idatzi, obra esleitu eta gauzatu egin behar da; urtebetean egin daiteke).

### Haurreskolarekin, zer egin daiteke? Eta Herri Eskola, zein egoeratan dago?

Haurreskolarena ikaragarria da. 2016ko azaroan plenoak onartu zuen Haurreskola berria egitea. Lokala hor dago, Udalak dirua badauka... Bada, EAJ-PNVren udal gobernuak ez du Haurreskola berria egin. Oraindik ez du proiektua idatzi ere egin. Joan den irailean martxan egon behar zuen.

Herri Eskolak, berriz, leku arazo larriak ditu. Une honetan ikasgela gisa erabiltzen ari dira informatika gela, psikomotrizitate gela... Bizpahiru ikasturte barru, gelak faltako dira eta ikasle talde batzuk beste leku batera eraman beharko dira. Gauzak dauden bezala, ez dirudi epe horretan Herri Eskola haunditzeko proiektua amaituta egongo denik.

Udalak etxeko-lan bakarra zuen: haunditzea ahalbidetzeko, plan orokorra aldatzea. Legealdia amaitu da eta ez zaio hasierako onarpenik ere eman, atera kontuak! Bi gai horietan EAJ-PNVren udal gobernuaren kudeaketa oso txarra izan da: Haurreskola egin gabe, Herri Eskola haunditzeko proiektua noizko egongo den zehaztasunik gabe, sortuko diren arazoei aurre egiteko plangintzarik gabe...

### Hondakin bilketa sistemaren gaiak markatu zuen, nolabait, 2015eko udal hauteskundeetako kanpaina. Berrero ere, gaia azaleratzeko asmorik?

Uste dut 2015ean hondakinekin kokoteraino amaitu genuela denok. Bost edukiontzien sistema aukeratu genuen astigartarrok galdeketa baten bidez. Guk ez dugu asmorik hondakinak biltzeko sistema aldatzeko eta, aldatzekotan, galdeketa baten bidez erabakiko litzateke.

Gustatuko litzaidake galdeketa bat egitea erraustegiaren gaia erabakitzeke.

Uste dugu oraingo birziklatze-tasaren datuak hobetu ditzakegula Astigarragan, hondakinak biltzeko sistemari hainbat hobekuntza eginez. Puntu beltzak eta zikinkeria fokoak ere badaude. Bada zer hobetu.

### Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da. Zer egitea aurreikusten duzue?

Udalak negu honetan ikerketa bat egin du, Txotx denboraldiak sortzen dituen eragozpenei buruzko herritarren iritziak jasoz. Ikerketa horrek erakusten du herritarrek kezkatuta gaudela txotx denboraldiak dakartzan ondorioekin eta ondorio txar gisa agertzen dira: zarata, lasaitasun eza, zikinkeria... Ikerketa horrek erakusten du astigartarontzat sargardo denboraldiak eragiten duen egoera bigarren arazo nagusia dela (lehen-dabizikoa garraio publikoa da; hirugarrena DBHko ikastetxerik ez izatea...).

Elkarbizitza zailtzen duten hainbat gai ditugu herrian: txotx denboraldia, zarata, txakurrak, terrazak... Ez dira lantzeko gai errazak, baina ahalegin zintzoa egingo dugu. Elkarbizitza arazoak kudeatzeko protokoloa landuko dugu, kasuan kasuko parte hartze prozesuen bidez. Prozesu horietan parte hartuko dute interesdunek, elkarteek, udal agintariek eta udal zerbitzuek. Azken lau urteotan ez da arlo horretan ia ezer egin. Argigarria da Udalak Txotx garairako izan duen ekimen bakarra sagardotegitara doan joateko autobusa izatea.

### 27 Poligonoko trafikoa Astigarragako errotondora bideratzeko asmoa du Aldundiak. Zein eragin izan dezake?

Eragin handia. Aldundiak aurreikusten du egunero 5.000 ibilgailu gehiago bideratuko dituela bide horrek Astigarragako sarrera nagusira. Jakina da Ubarburun trafikoa arazo larriak daudela, baina irtenbide egokia da trafikoa hori guztia Astigarragako sarrera nagusira bideratzea? Guk uste dugu, ezetz. Eta ezinbestekoa balitz ere, orain arteko jokatzeko modua lotsagarria iruditzen zaigu: batetik, auzotarrak eta Bide-

bitarteko erabiltzaileak oraindik ez dituzte informatu eta, bestetik, hitzetik hortzera mugikortasun jasangarriaz jardun eta oinezkoentzat eta bizikletentzat pasabide segururik ez da aurreikusitua. Gai honekiko ere Udalaren jarrera utzikeria haundikoa izan da.

**Euskeraren erabileran omen dago erronka datozen urteetan. Zein ildo jarraituko duzue gaiari dagokionean?** Iaz Euskaraldia, aurten Korrika, 2020an berriz Euskaraldia... Euskeraren aldeko jarrera hor dago, jende askoren ahalegina eta konpromisoa ere bai, euskeraz bizitzeko ahalegina egiten dugun astigartarrok hor gaude. Abiapuntua ona da, baina lan egin behar da.

Gure helburua euskeraren erabilera indartzea da. Horretarako, Euskaraldiaren ekimenean sakonduko dugu herriko elkarte eta eragileekin lanketa berezia eginez. Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatuko dugu. Gure asmoa da, baita ere, udalak AEKrekin duen hitzarmena indartzea, lokal haundiagoa uzteko. Beste helburu bat ere badugu, euskera ikasteko doakotasuna bermatzea. Proposamen horiek guztiak gure herri-programan datoz zehaztuta. ||

#### Titularrak

1. Xabier Urdangarin Lasa.
2. Aintzane Barandiaran Ezponda.
3. Andoni Gartzia Arruabarrena.
4. Rosalia Fernandez Rodriguez.
5. Estibaliz Neira Martinez.
6. Aitor Güemes Oyarbide.
7. Ione Olatziregi Mendiorotz.
8. Idurre Garmendia Ollokiegi.
9. Joseba Ilari Etxeberria Calvo.
10. Manex Alberdi Olatziregi.
11. Ianire Urrutibeasko Elordi.
12. Jose Mari Zubiarain Iturralde.
13. Amaya Apecechea Arizmendi.

#### Ordezkoak

1. Juan Maria Salaberria Armendariz.
2. Maddi Roteta Artuzamunoa.
3. Ugaitz Iturralde Calonje.
4. Ainara Vazquez Martinez.
5. Iker Goñi Salaberria.
6. Maria Teresa Bernal Monroy.
7. Ander Goikoetxea Okariz.

ASTIGARRAGA EAJ - Zorione Etxezarraga Ortuondo

# «Lau urtetan asko egin du hobera herriak eta jarraipena eman nahi diogu»

Zorione Etxezarraga Ortuondo izan da Astigarragako alkate azken bi urte eta lau hilabetetan postuan Jesus Mari Santos ordezkatu eta gero. Alkate izaten jarraitu nahi du eta «martxan ditugun proiektuak gauzatzeko EAJ-PNV taldekook herriaren alde lanean jarraitu nahi dugu eta prest gaude».

**LEGEINTZALDI honetan EAJ-PNV eta PSE-EEren arteko akordioari esker izan zarete udal gobernuan. Berrir egingo zenukete akordioa? (zein emaitza espero dituzue?)**

Maiatzaren 26ean herritarrek erabaki-ko dute nolako Astigarraga nahi duten, eta horretarako zeini ematen dioten babesa. Martxan ditugun proiektuak gauzatzeko Astigarragako EAJ-PNV taldekook herriaren alde lanean jarraitu nahi dugu eta prest gaude.

**Azken lau urte hauen zein balorazio egiten duzue? Zein izan dira zailtasun handienak? Alkate aldaketa ere tartean izan da...**

Orokorrean balorazio positiboa egiten dugu. Gure programak jasotzen zituen eginkizun guztiak bete ditugu eta beste berri batzuk ere martxan jarri ditugu. Horrez gain, Astigarragar guztien proposamenak entzun eta bideragarriak ziren gauzatu ditugu. Argi dugu herriaren zerbitzura gaudela, guztiontzat, eta horrela jokatu dugu. Talde bat gara eta estrategia argi bat dugu: Astigarraga guztiona eta guztiontzat izatea. Gure taldea herriaren zerbitzura jarri dugu.

**Urumea Berri proiektua zena, errealitate da, dagoeneko. Zein eragin dauka horrek Astigarragan?**

Urumea Berri auzoak gure herria gaztetu du. Alde batetik, astigarrarrek herrian bertan egin dezakete orain euren bizi-proiektua. Bestetik, etorri diren familia gazteak inguruko herrietatik etorri dira gehienak: astigarrar berri asko euskaldunak dira. Beraz, Astigarragak aukera paregabea du: etorkizuna izan-ko du.

**Proiektu horrek, besteak beste, herriaren hazkunde demografikoa eragin du. Zein erronka dakarzki horrek?**

Erronka bai, baina baita aukera polita



Zorione Etxezarraga Ortuondo alkategai izango da EAJ-PNVren zerrendetan.

*«Inposaketa ez dela bidea eta erabakitzeko aukera eman behar zaiela herritarrei erakutsi dugu»*

ere. Hasteko herriko zerbitzuak hobetzeko balioko du: kiroldegiaren berrikuntza, Herri Eskolako handipena, martxan den Kultur Etxe berria, trena, autobusa maizago jarri... eta noski, oraindik ez ditugunak exijitzeko, garrantzitsuena: DBH.

**Hondakin bilketa sistemaren inguruko galdeketa egin, eta sistema aldatu duzue udal gobernuan egon zareten bitartean. Gaia pil-pilean izan zen aurreko hauteskundeetan. Oraingoan eraginik izan dezake?**

Bai, noski. EAJ-PNVko gobernu taldeak erakutsi dugu herritarrei erabakitzeko aukera eman behar zaiela. Inposaketa ez dela bidea, ez hondakinak biltzeko sistemaren kasuan, ez beste arloetan. Astigarragako EAJ-PNVk herri galdeketa egingo zuela esan eta hitza bete dugu: sistema aldatu da. Herritarrek badaki hitza betetzen dugun taldea garela.

**Legegintzaldi honetako gai nagusia**

*«Gure lehentasuna hezkuntza izango da: Haurreskola aukera hobereana bermatu, Herri Eskolari baliabideak eman eta Astigarragarako DBH lortu. Proposamen asko ditugu datorren legealdirako»*

**bada, DBH. Herritarrek ere antolatzen ari dira. Zer egin dezake Udalak? Zein dira bere asmoak? Eta Haurreskola eta Herri Eskolaren inguruan?**

Herritarrek egiten duten eskaerarekin bat egiten dugu. Gure alderdiak hiru legegaldi daramatza DBHa izan dezagun Jaurlaritzarekin elkarlanean. Legegintzaldi honetan Hezkuntzari behin eta berriz helarazi diogu Astigarragak daukan gabezia eta Jaurlaritza jabetu da. EAJ-PNVk DBHa lortuko du Astigarragarentzat.

**Hainbat azpiegitura berri egin dira azken urteetan: kultur etxe berria, tren geltoki berriaren proiektua... Zein behar eta zein erronka dauzka Astigarragak?**

EAJ-PNVren udal gobernuaren kudeaketak kultur etxe berria, trena, ibai parkea, ikastolaren handitzea... ekarri dizkigu, legealdia hasi baino lehen pen-tsaekin ziren egitasmoak. Gaur egun

Astigarragak dituen erronka nagusiak mugikortasuna (garraio publikoa) eta irisgarritasuna, hezkuntza, enplegua eta uholdeen aurkako neurriak dira.

**Oposizioak, hala ere, behin eta berrir aurpegiratu dizue inbertsio falta, eta aurtengo aurrekontuetan gerakin handia izan dela. Geldirik al dago Astigarraga?**

Zifretan galdu gabe esan beharra dago udalaren inbertsio gaitasun errealean gabiltzala. Garapen urbanistikoa dela eta izan ditugun dirusarrera ez ohikoak aukera eman digute etorkizuneko Astigarraga diseinatzeko, baina ez edozein modura. Langile berriak ditugu udal-txetan: alde batetik, berdintasuna, partehartzea eta elkarbizitza lantzeko, eta, bestetik, enplegua, merkataritza eta turismoari bultzada emateko. Kirol teknika lanaldi osoan dago guri esker, erregistroan bi langile...

Bestalde, kalera begiratzea besterik ez dago ikusteko azken lau urtetan As-





EAJ-PNV taldeak aurkeztu duen zerrendako partaideak.

«EAJ-PNVk Udala herriarena dela eta herriarentzat lan egin behar duela ulertzen du, oposizioak ez bezala»

tigarragak zenbat egin duen hobera: kaleak garbi, lorategiak zainduta, parkeak berrituta eta estalpearekin, herri eskolaren handipena martxan, ibai parkea irekitzeaz, trenan iristear, Santiagomendirako proposamen eta proiektu jasagarriak landuta, kultur etxe berria zutik...

Udal zorra kitatzeaz gain, datorren legealdirako kutxa diruz beteta utzi dugu, ez dugu guztion dirurik alperrik zahutu.

Maiatzetik aurrera gobernuan jarraitzeko aukera izanez gero, hasita duguna bukatu eta gure herriak behar duen udal estrategiarekin jarraitzeko aukera izango genuke: Ingurumena, kultura, ondarea, paisaia, ... Astigarragaren etorkizunari begira ari gara lanean.

**Udal gobernuaren eta oposizioaren arteko krispazioa nabarmena izan da lau urte hauetan. Nola bideratu daiteke hori?**

Legealdiaren hasieran eskua luzatu genion oposizioari udal aurrekontuak elkarrekin diseinatzeko. Ez hori bakarrik. Alderdi arteko bizikidetzaren hobetzeko lantaldea ere antolatu genuen. Tamalez, errespetu falta besterik ez dugu jaso. EAJ-PNVk Udala herriarena dela eta herriarentzat lan egin behar dela ulertzen du, oposizioak ez bezala. Ari-

«Astigarraga guztientzat eta guztiona izatea da estrategia, gure taldea herriaren zerbitzura jarri nahi dugu»

keta demokratiko hori oraindik egiteko dute zenbaitzuk.

**Euskaraldia egin zen iaz. Soziolinguistika klusterraren azken ikerketaren arabera, euskeraren erabilera behera egin du. Zein ildo jarraituko du udalak euskerari dagokionean?**

Datu okerrekin zabilgata. 2006-2011ko beharoko joerari buelta eman zaio azken urte hauetan. 2011ean astigarraren %30,4ak soilik hitz egiten zuen euskaraz. 2016ean egindako azkeneko kale neurketaren arabera, aldiz, emakumeen %42,8ak eta gizonezkoen %34,4ak euskaraz egiten dute.

Udalak euskararen aldeko apustu sendoa egiten jarraituko du, emaitzak jasotzen ari baikara. Ikustea besterik ez dago herriak izan duen hazkundeak eragin positiboa izan duela euskararen erabileran.

**27 Poligonoko trafikoa Astigarragako errotondora bideratzeko asmoa du Aldundiak. Zein eragin izan dezake horrek herrian?**

Astigarragako industrialdea horri irteera-sarbide zuzena emango zaio herri-tik, lehen aldiz. Beraz, neurri positibotzat jotzen dugu, kontuan izanda Foru Aldundiaren proiektua dela eta Uda-

«Proposamen asko ditugu: erregistria hobetu, kirol eta kultur ekipamenduak berritu eta egonkortu, enplegua sustatu...»

lari ez diola gasturik eragin.

**Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da, eta kalteei aurre egiteko hainbat neurri hartzen ari da Udala. Zer egitea aurreikusten da?**

Bizikidetzaren arlotik ikerketa bat bideratu da txotx denboraldiaren inguruan herritarren iritzia ezagutzeko. Herritarren herenak kezka bizi du denboraldia eta udala prest dago arazoak identifikatu ondoren, herritarrekin batera diagnostia egin eta konponbideak emateko. Parte-hartze saio ezberdinak egingo dira, hartu behar diren neurriak elkarrekin adosteko.

**Oposizioaren arabera ez da uholdeen kontrako neurriak hartu. Zein puntutan dago prozesua?**

Uholdeen aurkako inbertsio eraginkorrek egiteko ezinbestekoa da informazio egokia izatea. Hortaz, legealdi honetan eskatu dugu azterketa zorroztza egitea Astigarraga 100 urteko ur joan-etorrietan uholdeetatik babesteko. Gure asmoa da neurriak hurrengo lau urteetan martxan jartzea. EAJ-PNVren udal gobernuari ari da finantzaketa bilatzen erronka horri erantzuteko.

**Ezberdinen arteko akordioetara iritsi daiteke?**

Akordioetara iritsi daiteke eta iritsi beharra dago. Astigarragaren eta astigarraren onerako. Herriak behar dituen proiektu estrategikoetan zintzo jokatuz. Alderdikeriak alde batera utzita.

**Zeintzuk izango dira legegintzaldi honetako apustuak?**

Gure lehentasuna hezkuntza izango da: Haurreskola aukera hobereana bermatu, Herri Eskolari baliabideak eman eta Astigarragarako DBHa lortu.

Proposamen asko ditugu: udal erregistroa hobetu, kirol eta kultur ekipamenduak berritu eta egonkortu, merkataritza eta enplegua sustatu, Santiagomendin inbertitu, herriguneko plazak eta espazioak birmoldatu...

Igerilekua berrituko da eta estaltzea ere aztertuko dugu. Uholdeak, gazteria, adinduen arloa, berdintasuna... Landu ditugun proiektu guztiak sakon-sakonean ezagutzeko gure programa irakurtzera gonbidatzen zaituztegu.

Kalitatezko mugikortasuna bermatu nahi dugu: autobus zerbitzu ona, bidegorriaren erabilera indartu, eta, nola ez, Astigarragako aldiriko tren geltokia. ||

*Titularrak*

1. **Zorione Etxezarraga Ortuondo.**
2. Juan Martin Arregui Sagues.
3. Urkiri Salaberria Gracia.
4. Nerea Zusberro Alberro.
5. Antonio Costa Casco.
6. Iñigo Touzani Velasco.
7. Jose Ormazabal Miner.
8. Ainhoa Fontal Arce.
9. Olaia Pastoriza Santos.
10. Julio Cesar Aranzasti Torrecilla.
11. Angel Manuel Fernandez Sanchez.
12. Miren Arantzazu Cortabitarte Berasaluce.
13. Ion San Martin Ugarte.

ASTIGARRAGA PSE-EE - Mikel Duran Gonzalo

# «Nire helburua da gobernu plurala lortzea, legegintzaldiari egonkortasuna emango diona»

Mikel Duran Gonzalo izango da PSE-EEren Astigarragako alkatetzarako hautagaia maiatzaren 26an. Bigarren aldiz izango da hautagaitzaren buru, eta legegintzaldi honetako jarrerari eutsiko diote, horretarako: «Talde sozialistaren jarrera beti izan da laguntzarena; eta gure helburua izan da ahalik eta kontu gehien hitzartzea, Astigarragaren eta astigartarren mesedetan».

GARRANTZITSUA izan da oso Mikel Duran PSE-EEren zinegotzia azken legegintzaldi honetan, eta horretan jarraitu nahi du, beste legegintzaldi batez. Haien helburua, «beti izan da herriaren bizi-kalitatea hobetzen duten, eta bereziki, herritarrentzat onuragarriak diren proiektuak/proposamenak babestea», eta horretan jarraitzea da PSE-EEren asmoa, etorkizunera begira ere.

**Azken legegintzaldiko giltza izan da udal talde sozialista Astigarragan. Zer-nolako emaitzak espero dituzue udal hauteskunde hauetarako?**

Oso baikorrak gara eta emaitza onenak espero ditugu. Astigarraga herri oparoa, irekia eta plurala egiteko konpromezu sozial eta politikoa duen sozialisten hautagaitzaren buru naiz.

**Gobernu berria osatzerakoan, zein da PSE-EEK izan dezakeen papera? EAJ-PNV babestuko al zenuke, berriro ere?**

Nire helburua da gobernu plurala lortzea, legegintzaldiari egonkortasuna emango diona, enplegua, gizarte politikak eta garapen ekonomikoa lehentziko dituen gobernu programa batekin.

**Aurreko legegintzaldiaz, zein balorazio egiten duzu?**

Balorazio positiboa. Talde sozialistaren jarrera beti izan da laguntzarena; eta gure helburua izan da ahalik eta kontu gehien hitzartzea, Astigarragaren eta astigartarren mesedetan. Hori dela-eta, besteak beste, hondakin bilketa sistemaren etorkizunaren inguruko galdeketa hitzartu eta bultzatu genuen. Gogorarazi nahi dut aurreko hauteskunde-kanpainako agintea izan zela Atez Atekoaren sistema zaharkitu eta zikina kentzea. Gure agintea bete dugu, eta egin dugu herritarrekin galdeketa bat hitzartzen, haien mezua entzuten.

Ulertzen genuen aurreko legegintzaldian bizitako krispazioaren eta inposizioaren ondoren, azkeneko lau urte hauek akordioarenak eta elkarriketarenak izan behar zirela. Eta lan horretan aroti gara sozialistok aurreneko egunetik.

Herri Eskolari, kultur etxeari eta ibai-parkeari lotutako gaiekin ere, entzuteko eta adostutako jarrera batera iristeko prest izan gaituzte. Gainera, poztekoa da Haurreskolarentzat lokal egokia ezartzea gauzatu izana; berehala izatea espero dut.



Mikel Duran Gonzalo, PSE-EEren alkategaia, Herri Eskolaren parean.

**«Herri Eskolari, kultur etxeari eta ibai-parkeari lotutako gaiekin ere, entzuteko eta adostutako jarrera batera iristeko prest izan gaituzte»**

**Inbestidura plenoan EAJ-PNV-ren hautagai Jesus Maria Santosen aldeko botoa eman ondoren, EH Bilduren hainbat mozio babestu dituzu. Bateragarriak al dira?**

Erabat. EAJ-PNV-rekin ez geneukan gobernu-akordiorik, eta beraz, gure helburua beti izan da herriaren bizi-kalitatea hobetzen duten, eta bereziki, herritarrentzat onuragarriak diren

proiektuak/proposamenak babestea. Eta hala izan da.

Gehiengoaren interesak defendatzen dituen ezker posibilista ordezkatzen dut, eta beraz, mozioen eta egiten zizkidaten proposamenen atzean zeuden sigla politikoak ez ditut begiratu. Beti egon naiz prest gainontzeko udal taldeekin elkarlanean aritzeko, proiektuak gauzatzeko edo Astigarragako

zerbitzu publikoak hobetzeko badira.

**Zein dira Astigarragaren lehenasunezko beharrak? Eta ildo horretatik, zein dira PSE-EEren ustez, erronka nagusiak?**

Azken urteetan Astigarraga biztanle kopuruan hazi egin da, eta horren ondorioz, beharrak ere hazi egin dira. Sozialiston ustez zerbitzu publikoak egokitu egin behar dira behar hauetara; hala nola, anbulategia haunditzea, DBHaren ezarpena, eta aldiriko trenaren geltokia eraikitzeke obra-lanak.

**Hezkuntzaren gaia oso presente egon da legegintzaldi honetan. Nola egin**

«Espero dut alderdi politiko bakar batek ere ez izatea tentaldirik hondakinen gudara bueltatzeko»

«Egia bada Astigarragako errotondan 5.000 kotxetan areagotuko dela trafikoa, nire ustez kezkatzekoa da»

#### **dakioke aurre Astigarragak? Zein neurri hartuko zenituzkete?**

Dudarik gabe, DBHaren ezarpenaren aldeko apustua egiten dugu, lehenbailehen. Hortaz, hurrengo legegintzaldiari begira, lehentasunezkoa izan beharko luke horretara bideratutako lursaila martxan jartzea. Eskolaren haundipena ere, datozen lau urteetan egin beharrekoen artean egon beharko litzateke.

#### **Hondakin bilketaren sistemaren gaiak hartu zuen aurreko hauteskunde kanpaina.**

#### **Berriro ere mahai gainean jarriko dela uste duzu?**

Galdeketa egiteko akordioa lortu zen, eta emaitzak erabatekoak izan ziren Atez Atekoa kentzearen alde. Hortaz, espero dut alderdi politiko bakar batek ere ez izatea tentaldirik hondakinen gudara bueltatzeko. Izan ere, gogorazi nahi dut herri honetako elkarbizitza haustea ekarri zuela.

#### **Biztanleriaren hazkundeak behar berriak ekarri ditu, baita zerbitzuak hazkunde horri egokitzeko eskaera ere. Zertan nabaritu da hazkundeak? Zein gaitan egin behar da lan?**

Herria hazi egin da, eta bereziki, familia gazteak iritsi dira. Zerbitzu publikoak hobetu egin behar dira, behar berri horiei erantzuna emateko.

#### **Zer-nolako eragina izan du Astigarragan, 27 Poligonoko trafikoa berbideratzeko proiektuak? Zer egin daiteke?**

Esan beharra daukat kontu honekin kezkatuta nagoela. Informazio gutxi daukat honen inguruan, eta uste dut Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepideetako sailetik datu gehiago eman beharko lizkiguketela.

Egia bada Astigarragako errotondan 5.000 kotxetan areagotuko dela trafikoa, nire ustez kezkatzekoa da. Gardentasun gehiago eskatzen dut eta erabakirik hartu aurretik, bideragarritasun plan bat egitea.

**Euskeraren bueltan, zein izango da PSE-EEren politika? Azken azterketek diote erabilera jaitsi egin dela. Zer egingo zenuke zentzu horretan?** Euskeraren defentsan, politika aktiboan alde egiten dugu sozialistok, ha-



Duran, Foru Plazan, udaletxe aurrean.

ren kudeaketa interes politiko eta alderdikoietatik babestuz. Euskera ezin da arma politiko gisa erabili, ezta herritarren zati baten identitate-elementu gisa ere. Ikuspuntu horretatik, erakundeetatik, beti egin dugu euskeraren erabileraren alde, herritarren kultura- eta komunikazio-ondare bezala.

Onartu behar dut, zoritxarrez, nik ez dakidala euskeraz. Nire alabak, ordea, primeran hitz egiten du. Aita gisa, beti oso argi izan dut erantzukizuna nuela nire alabak gaztelaniaz zein euskeraz komunikatzeko gaitasuna izan zezan. Hori horrela, beti babestuko ditut euskera ikastearen eta erabiltzearen aldeko neurriak.

#### **Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da, eta kalteei aurre egiteko hainbat neurri hartu izan dira azken urteetan. Zer egitea aurreikusten duzue?**

Txotx denboraldiak herri honentzat duen garrantziaz jakitun naiz, diru-sarrerara oso garrantzitsua da; Astigarragarentzat eta zonalde osoarentzat. Ekonomikoki onura haundiak dakartza,

baina kontziente naiz, ekitaldi garrantzitsu honekin batera, astigarrarek jasaten dituzten arazoetat, txotx denboraldiari atxikituta dijoazenak: zarata, usain txarrak, herri-segurtasun ezaren areagotzea, eta trafikoa areagotzea.

Elkarbizitza baketsua lortu behar dugu, gure sagardoaz eta sagardotegiez gozatzera etortzen direnen eta atse-denerako eskubidea duten gure bizilagunen artean. Izan ere, uste dugu txotx denboraldia bultzatzen jarraitu behar dugula, baina ez gure bizilagunen ongizatearen kontura. Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren presentzia areagotu beharko litzatekeela uste dugu.

Era berean, hurrengo legegintzaldian kalitatezko eta etorkizuneko Sagardoetxearen kudeaketaren kontua jorratu behar dugu. Gaur egun etorkizuneko beharrei ez die behar bezala erantzuten.

**Azken legegintzaldian krispazio-giroa nabaria izan da bi talde nagusien artean, hau da, EH Bildu eta EAJ-ren artean. Ze iritzi duzu horren inguruan? Zer egin**

#### **daiteke elkarbizitzaren alde?**

Ordezkarri politikoek proiektuak proposatu eta kudeatu egin behar ditugu gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko. Baina erantzukizuna ere badugu, eta hori da, hain zuzen, elkarbizitzaren irudia eta errespetuaren irudia ematea. Datorren legegintzaldiari begira, barretasun pixka bat eskatuko nuke, ordezkarri politikoak bizilagunen esanetara egon behar baitugu. ■

#### *Titularrak*

1. **Mikel Duran Gonzalo.**
2. Juan Pedro Risco Romero.
3. Silvia Gonzalez Castiñeira.
4. Juan Carlos Hernandez Rosende.
5. Maria Francisca Guenaga Arregui.
6. Manuel Camara Galende.
7. Maria Isabel Gomez Fernandez.
8. Restituto Ayuso De La Fuente.
9. Eulogia Francisca De Abajo Nuevo.
10. Jose Luis Valles Molero.
11. Igor Zabala Muniozguren.
12. Maria Soledad Silva Ferrero.
13. Maria Vicenta Echeverria Undabeitia.



ASTIGARRAGA PP - Jacobo Caparros Ruiperez

# «Ordezkaritza izatea, aurrerapauso bat izango litzateke, zentzu guztietan»

2015ean bezala, Jacobo Caparros Ruiperez izango da PPren zerrendaburua, Astigarragan: «jakin arren nolako zailtasuna daukan, gustatuko litzaiguke presente egotea Astigarragan, datorren legealdian», azaldu du.

Aurreko Udal Hauteskundeetan bezala, Jacobo Caparros Ruiperez izango da PPren alkategaia, Astigarragako Udalerako. Nabarmendu du, hiru kolektibo jakinek kezkatzen dutela: 45 urtetik gorako langabetuek, adinekoek, eta herriko komertzioaren zailtasunek.

**Azkeneko legegintzaldietan, ez duzue ordezkari izan Astigarragako Udalean. Zer espero duzue, datozen hauteskundeetan?**

Udal guztietan aurkezten du zerrenda PPK, eta ordezkari izateko borrokatzen du, jakin arren nolako zailtasuna daukan horrek, Astigarraga bezalako udalerrietan. Gustatuko litzaiguke presente egotea datorren legealdian; aurrerapauso bat izango litzateke, zentzu guztietan.

**Ordezkaritza lortuz gero, prest zaudete beste alderdietakoren batekin negoziatu eta akordioak egiteko?**

Bai noski, presente gauden instituzioetan egin izan dugun eta egiten dugun moduan.

**Zein helburu eta erronka ditu PPK, Astigarragarentzat?**

Gainerako udalerrietan bezala, badira hiru kolektibo, bereziki kezkatzen gaituztenak: 45 urtetik gorako langabetuak, adinekoak, eta herriko komertzioa eta aurrera egiteko dauzkan zailtasunak.

**Nola ikusten duzu Astigarraga? Zertan hobetu beharko luke?**

Bere landa errealitatearen eta azken urteetako hiri garapenaren artean, elkarbizitza hobetu behar duen udalerri bat da. Hori bai, uste dugu sagardotegi turismoa zabalduz, pagotxa aurkitu duela.

**Biztanleriaren hazkundeak, behar berriak sortu ditu, eta zerbitzuak aldaketa horietara egokitzeko eskaerak, herritarren aldetik. Zein ikuspegi daukazu, gaiaren inguruan? Zertan egin behar da lan?**

Astigarragak espazio komun gehiago behar ditu, eta zerbitzu sozialek ase ditzatela herritarrek; horretarako ordaintzen baitituzte zergak, eta diru hori bueltan jaso behar dute, zerbitzu gisa. Bestalde, uste dugu oso garrantzitsua dela adineko pertsonen ez jasatea

*«Bere landa errealitatearen eta azken urteetako hiri garapenaren artean, elkarbizitza hobetu behar duen udalerri bat da Astigarraga»*

*«Astigarragak espazio komun gehiago behar ditu, eta zerbitzu sozialek ase ditzatela herritarrek; horretarako ordaintzen baitituzte zergak»*

ziurgabetasuna, jakin gabe laguntza publikoa jasoko duten ala ez, behar dutenean.

**Hondakinen bilketa sistema izan zen, aurreko hauteskundeak markatu zituen gaia. Uste duzu mahai gainean egongo dela berriro? Nola ikusten duzu gaia?**

Hondakinen bilketa bai, mahai gainean egongo da berriro. Izan ere, PIGRUGen foru arau berrian, erronka bezala markatu dugu birziklapenean aurrera egitea, Europako mailetan, %60tik gora. Eta horrek eskatuko ditu programa berriak, bilketa selektiborako eta gizartea kontzientziazteko.

**Nola eragingo dio Astigarragari, 27 Poligonoko trafikoa bideratzeko proiektuak? Zer egin behar da?**

Ulertzen dugu, proiektu bat dela non teknikariek hartutako erabakiekin fidatu behar dugun; eta konfiantza izan, Oiarbide diputatuak esan zuen moduan, kontutan hartu direla izango dituen eraginak, eta entzun direla eragin horien jasango dituztenen iritzia, hasierako ibilbidea egokituz.

Hori bai, txirriatu egiten digu, beti bezala EAJk itxarotea horrelako proiektuak aurkeztu eta martxan jartzeko, hauteskundeak iritsi arte.

**Zein izango da PPren politika, euskeraren inguruan? Azkeneko ikerketen arabera, bere erabilerak behera egin du. Zer egingo zenukete**



Jacobo Caparros Ruiperez izango da aurten ere, PPren alkategaia Astigarragan.

**horren inguruan?**

PPk ez du sekula trabarik jarriko, euskeraren erabilerarako, eta euskera sustatzeko politiketarako. Are gehiago, babestu egingo ditugu, baina ez dugu onartuko, euskera erabiltzea diskriminatzeke tresna gisa.

**Txotx denboraldia, oraindik ere, interes gatazkaren iturri da. Zenbait neurri hartu dira legegintzaldi honetan. Zer egin daiteke, konponbidea emateko?**

Inplikaturak dauden aldeak entzun, eta akordioetara iristen saiatu. Ari gara hitz egiten uztartzeaz jarduera ekonomiko bat, bizilagunen artean eragiten dituen eragozpenekin. Egiten dena egiten dela, zaila izango da guztiak poztuko dituen irtenbide bat aurkitzea. Ostalaritzako ordutegiak zehaztea garrantzitsua da, toki guztietan egiten den bezala; eta hemen ere egin beharko litzateke.

**Zer iritzi daukazu, Udalean ordezkari gehien duten bi taldeen arteko krispazioaren inguruan? Zer egin daiteke, elkarbizitza hobetzeko?** Bizilagunengan pentsatu beharrean, elkarri trastoak botatzen dizkiote, ezta-

baida antzuekin liskarretan sartuz; eta orain, haien konfiantza eskatzen diete bizilagunei, berriro bozkatu ditzaten... Barregarria da.

Bizilagunek berriro bozkatzeko badiete, behintzat, badakite zer daukaten zain. Eta ez badute liskarrik nahi, jarri dezatela konfiantza gudan, eta bozkatu dezatela Gipuzkoako PP; zentzu pixka bat jarriko dugu, guzti honetan. ■

#### Titularrak

1. Jacobo Caparros Ruiperez
2. Julio Gutierrez Figueroa
3. Francisco Javier Menendez Abueme
4. Maria Montserrat Reguera Garcia
5. Teresa Isabel Peña Cuesta
6. Enrique Acacio Jimenez Gomez
7. Julio Sanchez Rondan
8. Francisca Martin De Blas Fernandez-Marcote
9. Isidro Garrido Bermejo
10. Filomena Bermejo Garrido
11. Jose Sanchez Madrid
12. Maria Concepcion Mellado Cirujano
13. Maria Teresa Rodriguez-Pomatta Moya

#### Ordezkoak

1. Juana Valencia Paniagua

INFORMAZIO OROKORRA M 26

# 21.264 herritar bihar zortzi, Urumeako hauteslekuetara deitutakoak

Denera, hamaika eskola izango dira Urumea bailarako herrietan, eta horietan, 31 mahai, Hernaniko, Astigarragako, Aranoko, Goizuetako eta Ereñotzuko herritarrek bozkatu dezaten.

HAUTESKUNDE-URTEA da 2019a, dudarik gabe. Duela ia hilabete, apirilaren 28an, bokatu zuten herritarrek Espainiako Kongresua eta Senatua osatzeko, eta oraingo honetan, zita hirukoitza izango dute hautetsontziekin. Ereñotzun izan ezik, bertan, lau hautetsontzi izango baitituzte. Gipuzkoaren kasuan, udal ordezkariak, Batzar Nagusietakoak eta Europako Parlamentukoak erabaki beharko dira. Nafarroaren kasuan, aldiz, udal ordezkariak, Nafarroako Parlamentukoak eta Europako Parlamentukoak.

## Hamaika hautesleku, Urumea bailaran zehar

Hernani, Astigarraga, Goizuetako, Ereñotzu eta Aranokoak kontuan hartuta, hamaika hautesleku izango dira bihar zortzi Urumea bailaran zehar.

Horietatik zazpi Hernanin izango dira: Laubidieta ikastola, Elizatxo ikastola, Larramendi kalea 11 (AEK euskaltegia), Biteri kultur etxea, Haur Eskola, Beterri (lehen Gabriel Zelaia ikastola zena) eta Zikuñaga bailarako udal eraikina. Eskola guztiak kontuan hartuta, 22 mahai izango dira Hernanin, denera, eta bertan bozkatu dute 15.271 hernaniarrek.

Horiei gehitu beharko zaie Ereñotzuko Auzo Udalean bozkatu dutenak; mahai bakarrean, 478 ereñotzuarrek hartuko dute parte. Haiek, gainera, Auzo Udaleko alkatea ere hautatu beharko dute. Hautagai bakarra da, Unai Erroitzenea, beraz, berak ordezkatu du egungo auzo alkatea, Imanol Lizeaga.

Astigarragan ere, hautesleku bakarra



Astigarragako Herri Eskolako eraikin berrian bozkatu zuten apirilaren 28an ere.

izango da, Herri Eskolako eraikin berrian jarriko dutena, apirilaren 28an bezala. Bertan, sei mahai izango dira, eta bertan bozkatu dute deituta dauden 4.827 astigartarrak.

Eskolako eraikina erabiliko dute horretarako Goizuetan ere. Mahai bakarrean, 587 goizuetarrek bozkatu dute, ohi bezala.

Aranoren kasuan, udaletxeko batzar aretoa erabiliko dute horretarako. 101 herritarrek izango dute bozkatzeko eskubidea; aurrekoan baino bi aranoar gehiago daude maiatzaren 26ko zitara deituta. ||

## HAUTESKUNDE-MAHAIK

### HERNANI

Laubidieta Ikastola: 10A-10B ETA 15U sekzioak.

Elizatxo Ikastola: 7A-7B eta 12U sekzioak.

Larramendi kalea: 6U sekzioa.

Biteri kultur etxea: 1U, 2A-2B, 3U ETA 11U sekzioak.

Haur Eskola: 13A-13B, 14U eta 16A-16B sekzioak.

Beterri (lehen Gabriel Zelaia ikastola): 4A-4B eta 5A-5B sekzioak.

Udal eraikina (Zikuñaga bailara): 8U sekzioa.

### EREÑOTZU

Ereñotzuko Auzo Udala: 9U sekzioa.

### ASTIGARRAGA

Astigarragako Herri Eskola (eraikin berria): 6 mahai.

### ARANO

Udaletxeko batzar aretoa: mahai bakarra.

### GOIZUETA

Eskolan: mahai bakarra.



GOIZUETA EH BILDU - Unai Miranda Berroeta

# «Oinarrizko zerbitzu publiko guztiak baditugu, eta hauek mantentzea izango da erronka»

«Herriaren alde lan egiteko konpromisoak» animatu du Unai Miranda Berroeta goizuetarra alkatetzarako hautagai izatera, EH Bilduren zerrendako buru bezala. Behin betiko zerrendak argitaratuta, haiena da aurkeztu duten hautagaitza bakarra, beraz, bera hautatuko dute alkate maiatzaren 26an. Egindako lanari jarraipena emango diotela adierazi du Mirandak, baina bereziki goizuetarrek izango dutela hitza: «gure helburua, norabide bat edo bestea guk markatu beharrean, herritarrekin elkarlanean zein norabide hartu behar dugun erabakitzea izango da».

## HAUTAGAI berria zara, zerk bultzatu zaitu aurkeztera?

Lehen ere ibili naiz herriko hainbat talde eragiletan lanean, eta herriaren alde lan egiteko dudak konpromisoak animatu nau alkate gisa aurkeztera.

## Taldea ere berria da. Aurreko legegintzaldiko lanari jarraipena emango diozue? Zein norabide emango diozue?

Bai noski, ongi egindako lanari jarraipena emango diogu. Gure helburua, norabide bat edo bestea guk markatu beharrean, herritarrekin elkarlanean zein norabide hartu behar dugun erabakitzea izango da.

## Zein dira, zuen ustez, Goizuetak egun dauzkan erronkak?

Goizuetan, herri txikia eta nahiko isolatua dagoen arren -edo horrexegatik- oinarrizko zerbitzu publiko guztiak baditugu, eta hauek mantentzea erronka bat izango da. Beste erronka garrantzitsua, gure ingurumenarekin zer egin behar dugun erabakitzea izango da. Urte luzez mendiaren ustiaketa diru sarrera oso garrantzitsua izan da, baina hau bukatu denez, fase berri baten aurrean gaude. Orain hartzen ditugun erabakiek hurrengo urteetako Goizuetaren itxura baldintzatuko dute.



Unai Miranda Berroeta, EH Bilduren alkategaia.

## «Orain hartzen ditugun erabakiek hurrengo urteetako Goizuetaren itxura baldintzatuko dute»

### Zein garrantzia izango du Herri Batzarrak Udalaren kudeaketan?

Herri batzarrak erabakiak hartzeko eta herritarrek informazio zuzena jasotzeko baliatuko ditugu. Herritarrek erabakietan parte har dezaten beste bide batzuk irekitzen ere saiatuko gara, azken finean gure helburuetako bat, goizuetarrek udalean gertatzen denaren berri zuzena izatea eta erabakietan parte hartzea da.

### Azken urteetan, aurrekontuak osatzerakoan, diru-sarrerak lortzerakoan izan du zailtasun gehien Goizuetak. Bide berriak aztertuko dira diru-sarrera horiek bilatzeko?

Aurrekontuak osatzeko garaian diru sarrerak eta gastuak orekatu behar

## «Garbi dugu diru-sarrera garrantzitsu bat agortzen ari dela eta horrek berriak bilatzea behartuko duela»

dira. Garbi dugu diru sarrera garrantzitsu bat agortzen ari dela eta horrek berriak bilatzea behartuko duela, horretan lan egin beharko dugu dudarik gabe. Nafarroako Parlamentuan onartu berri den Tokiko maparen legeak horretan ere asko lagundu dezake. Horretarako, ezinbestekoa da Nafarroako Parlamentuan ere EH Bilduk emaitza onak lortzea.

### Jaitsiera demografikoak jarraitzen du arazo-iturri izaten. Goizuetan geratzeko politikak egin dira. Zertan hobetu da?

#### Zein da egoera orain?

Goizuetan, Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, biztanleria zahartzen ari da eta jaiotze tasa baxua da. Herritar batzuk bere bizi proiektua

herritik kanpo egiteko hautua egiten dute arazoi bat edo beste medio, baina egia da azken urteetan, kanpoan jaio eta Goizuetara bizitzera etorri diren familiak ere azaldu direla. Horrek zer pentsatua eman behar liguke. Gure ahalegina izango da Goizuetan bizitzea erakargarri egitea, kanpokoentzat bai, baina batez ere bertakoentzat.

### Etxebizitza hutsen arazoari aurre egiteko neurriak ere hartu dira. Arazo izaten jarraitzen du?

Legealdi honetan egindako lanari esker, gaur egun Udaleko webgunean badago etxebizitza hutsen egoeraren berri ematen duen txoko bat eta oso lagun-garria da bertan bizi nahi duen edozeinentzat informazio hori eskura edukitzea.

### Iazko festetan keinua egin zion Udalak eta Jai Batzordeak merkataritzari (edo zerbitzu pribatuei); nolabait aitortza egin zitzaion. Zer egin daiteke Goizuetan merkataritzari bultzada emateko?

Lehenik eta behin bertan bizi garenok





Mirandarekin batera arituko den taldea.

*«Komertzioak, tabernak, baserritarrak, etab abar dira, azken finean, herri bat bizirik mantentzen dutenak»*

bertan kontsumitzeko hautua egitea. Komertzioak, tabernak, baserritarrak, etab. dira, azken finean, herri bat bizirik mantentzen dutenak.

Udalaren aldetik, gure konpromisoa garbia da arlo honetan. Gaur egun herrian lanean diharduten pertsona hauekin elkarlanean Plan Integral bat egingo dugu egoera aztertzeke eta irtenbideak bilatzeko. Baserritarrak ere beraien produktuak bertan saltzeko gogoz daude.

Udalaren lana denon interesak zein diren jakin eta bideratzea izango da, eta horretarako balio beharko du Plan horrek. Dena dela, eta hasieran esan dudana bezala, herritarren konpromisoa izango da egoera hau aldatuko duena. Goizuetan erosi dezakeguna bertan erosten badugu, urte luzez jarraituko du Goizuetak herri bizia izaten.

**Herrian gasolindegia martxan jartzea proiektu estrategikoa izan da. Zu tartean izan zara, bultzatzaileen artean. Hasierako helburua lortu da?**

*«Goizueta herri euskalduna dela garbi dago, gainera berezko hitz egiteko era ere badaukagu eta hori babestu beharreko altxorra da»*

**Zein eragin izan du herrian?**

Noski lortu dugula hasierako helburua. Helburu nagusia herrian zerbitzu bat jartzea izan zen, eta ukaezina da lortu dela. Ia bi urte daramatza martxan gasolindegia eta oraindik pertsona batzuk eskertzen digute gasolindegia herrian bertan edukitzea.

**Kostata, baina pediatria zerbitzua berreskuratzea lortu da.**

**Aurrera begira nola dago gaia? Herritarrak lasai egon daitezke?**

Udalaren helburua, lehen esan dudana bezala, ditugun zerbitzuak mantentzea izango da, eta ahal den neurrian zerbitzu gehiago eskaintzea.

**Beste zerbitzu publiko batzuk, aldiz, ez daude Goizuetan bertan.**

**Hurbildu behar al dira?**

Saiatu beharko dugu. Honetan ere tokiko maparen garapenak lagun dezake.

**Herritarrei bidea errazteko, Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean**

**hitzarmenik behar al da?**

Gaur egun osasungintza alorrean bada-gu hitzarmen bat, garraio publikoan ere Goizueta-Hernani linea hor dago. Gauden lekuan egonda, komeni zaigu Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko harremanak onak izatea. Hori goizuetarren mesedetan izango da, baina era honetako akordioak bi herrialdeetako agintarien artean hitzartzen dira, horregatik garrantzitsua da bai Nafarroan, baita Gipuzkoan ere EH Bilduk emaitza onak lortzea.

**Goizuetak azken hilabetetan jasandako arazoetako bat izan da suteena. Galera ekonomiko handia eragin dute; nola egingo zaio aurre?**

Garbi dago, ondorioei aurre egin ahal izateko diru laguntzak beharrezkoak izango direla. Aztertu beharko dugu denon artean zer egin egin behar dugun erretako eremu hauetan. Dena dela, sute hauek nahita eragindakoak izateak kezkatzen nau gehien, gure lana aurrerantzean horrelakoak ekiditen saiatzea izango da.

**Euskera osasuntsu dago Goizuetan. Gainera, azken azterketek diote turismoa ere erakartzen duela. Ze bide hartuko du Udalak bi gai hauek lantzerakoan?**

Goizueta herri euskalduna dela garbi dago, gainera berezko hitz egiteko era ere badaukagu eta hori babestu beharreko altxorra da. Honek horrela jarraitu ahal izateko, bertakoak hitz egiteaz

gain, kanpotik etorritako familiei euskera ikasteko baliabideak eskaini behar zaizkie. Herri txikia eta euskalduna izateak turismo jakin bat erakartzen du, dena dela, turismoaren inguruan ere hausnarketa bat egin behar dugu, bultzada bat emateko eta horretan ezinbestekoa izango da Zubimuxu aterpetxeak bete beharko duen papera.

**Herri askotan hausnartzen ari dira festetan animalien inguruan egiten den erabilerari buruz. Zein egoeratan dago Goizueta?**

Duela bi urte, plazako zolaketa lanak zirela-eta, ez zen zezenik izan jaietan, eta festa desberdinak izan ziren. Ez dugu momentuz hausnarketa sakon baten beharra sumatzen. Momentua iristen bada, iritzi guztiak entzungo ditugu eta azken erabakia herritarrek hartuko dute. ||

#### Titularrak

1. Unai Miranda Berroeta
2. Alaitz Eskudero Bergara
3. Imanol Legarreta Narbarte
4. Maialen Apezetxea Etxeberria
5. Igaratza Apezetxea Salaberria
6. Iñaki Etxeberria Aranaz
7. Ana Uitzu Manterola

#### Ordezkoak

1. Igor Elizegi Erbiti
2. Rosa Maria Olaizola Azpiroz
3. Juan Antonio Lekuona Salaberria

HERNANI EH BILDU - Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

# «Auzoen biziberritzea da, gure Herri Programako lehentasunetako bat»

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra izango da EH Bilduren alkategaia, orain arte Zerbitzu Sozialen presidente eta bigarren alkateorde izan ondoren: «taldean esperientzia eta berritasuna uztartu, eta gauzatuko dugu 100 bat herritarren ekarpenekin osatutako Herri Programa».

**Aurreneko aldiz izango zara alkategai. Nola hartu duzu erronka?** Ilusio eta gogo haundiz. Ez da gauetik goizera hartutako erabakia. Bide hone-tan babes handia jaso dut: taldekideena, EH Bilduko kideena eta kalean jendeak adierazitakoa. Niretzat oso inportantea ere izan da hernaniarrek EH Bilduri buruz zintzoak eta gertukoak garela esatea, eta horrek erakutsi dit jendeak gure lan egiteko modua ulertu duela eta talde honetan lanean jarraitzea merezi duela.

**Gobernu Taldean izan zara aurreko legegintzaldian. Egindako lanari jarraipena ematea da asmoa?** Gure proiektua ez da zerrendaburuak bakarrik osatutakoa. Talde bat gara; batzuk egungo zinegotziak gara eta, beste batzuk, lehen aldiz arituko dira udalgintzan. Esperientzia eta berritasuna uztartuko ditugu. Gainera, gure taldeak gauzatuko du 100 bat herritarren ekarpenekin osatutako Herri Programa. Bertan jasotzen dira EH Bildutik Hernaniarentzat proposatzen dugun eredia eta ekimen zehatzak.

**Aldaketak izango dira aurten: 17 zinegotzi izatetik 21era pasako da. Emaitzetan zein eragin izan dezake? Berritza ere gehiago absolutua lortzea espero duzue?** 2015eko emaitzak hobetzea espero dugu. Hernaniarrok erakutsi dugu EH Bilduren proiektuaren aldeko interesa, eta horren erakusgarri izan da pasa den apirilko hauteskundeetan lortutako babes. Horrez gain, hernaniarrek nota ona ere eman diote orain arte EH Bilduk gobernuan egin duen kudeaketari.

**Gobernatzeko, gainontzeko alderdiekin balizko akordioak egiteko prest zaudete?** EH Bildu beti egon da eta egongo da prest beste alderdiekin lanean aritzeko; politika sozial, feminista eta euskaltzaleak egiteko prest dagoen edozein tal-



Xabier Lertxundi Asteasuinzarra aurrenekoz izango da alkategai, EH Bildurekin.

*«EH Bildu beti egon da eta egongo da prest lanean aritzeko, politika sozial, feminista eta euskaltzaleak egiteko prest dagoen edozein alderdirekin»*

derekin. Horren erakusle da Udalean hartu diren erabakien gehiengo handi bat alderdi guztien adostasunarekin hartu direla. Guk gobernuan jarraitzen badugu, herri honen alde proiektuak adosteko eta denen ekarpenak lantzeko prest egongo gara.

**Herri aktiboa, jasangarria, solidarioa... izatea dira zuen zutabeak. Zertan nabari daiteke hori?**

Hernanik bizitza handia du. Ikusi besterik ez dago zenbat eragile dauden eta zein aktibitate daukaten. Interes desberdinen inguruan herria hobetzeko asmoz biltzen dira herritar asko, eta Udalak hori sustatzen du.

Jasangarritasunari dagokionez, energiaren zentzuzko kontsumoaren edota mugikortasun jasangarriaren alde hainbat ekimen gauzatzen ari gara. Hondakinak kudeatzeko sistemaren muinean ere ingurumenari ahalik eta kalterik gutxiena egitea dago.

Solidarioa, bi arlotan islatzen da: alde

batetik, gure zerbitzu sozialen politike-tan (egoera zailean dauden edo behar bereziak dituzten hernaniarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko); eta, beste alde batetik, garapen bidean dauden herrialdeei haien bizimoduan hobetzen laguntzeko proiektuak garatzeko laguntzak daude.

**Legegintzaldiko proiektu potoloetako bat kirol arlokoa izan da, eta horren barruan, igerilekua berritzea. Emaitzarekin pozik? Zer gehiago dago egiteko? Herritar eta kirol taldeek badituzte eskaera gehiago.**

Igerilekua haunditu eta hobetu dugu. Kiroldegiak inoiz baino erabiltzaile gehiago ditu eta balorazioa ona jasotzen du. Herritarren eta klubaren eskaerei etengabe erantzuten saiatzen ari gara. Orain, adibidez, gimnasioko erabiltzaileen eskura gela berriak jarri ditugu, eta klubek bilerak egiteko eta materiala gordetzeko gelak ere egokitu ditugu. Kirol elkarteei dagokionez, etengabe gaude harremanetan. Orain, adibidez, Udalak CDHrekin duen hitzarmenean diru ekarpena igo dugu. Kiroldegiaz haratago, gure apustua ere jarduera fisikoa kiroldegiko paretetatik ateratzea da, eta herri osoa erabiltzea jarduera fisikoa egiteko.

**Kultur arloari ere bultzada emateko beharra azpimarratu duzue. Zer egin da, eta zer dago egiteko?**

Kulturak herria hezi egiten du eta berrikuntza handiak gauzatu ditugu. Programazioan, musikan eta antzerkian, bereziki, jauzi kualitatibo handi bat egin dugu. Uda Parkean ekimena ere nabarmentzekoa da. Aurten laugarren edizioa izango du, eta urtez urte harre-ra hobe da.

Bestetik, kultur hausnarketa prozesua ere egin da eta, eragileekin batera, aurrera begira egin beharrekoak zehaztu dira. Ave Mariaren eraikinean Sormen Gunea sortzea eta edukiz betetzea izango da datozen lau urteetarako proiektu handienetariko bat. Horrez gain, kiroldegiko lehenengo pista egokituko dugu, ekintza kulturalak ere egin ahal izateko.

**Kultur arloko behar batzuei Urumeako eraikin zaharrean eman zaie erantzuna, baina eraikina botatzekoa omen da. Zer gertatuko da?**

Musika Eskolan leku nahikorik ez dagoenez, ikastaro batzuk bertan ematen ari dira. Horri irtenbidea emateko San-diusterriko aretoa egokitze lanak hasiko ditugu laster eta, musika eskola horiez gain, Ttarla dantza taldearentzako entsegu lekua izango da. Gainontzeko taldeekin hitz egiten ari gara irtenbideak bilatzeko.

**Orain, gainera, talde batzuek hartu dute eraikina, Urumea Herri Gunea izenpean, hainbat ekimenetarako.**

«Txotx denboraldiaren inguruan, inoiz baino neurri gehiago jarri dira martxan legegintzaldi honetan; eta pixkanaka bada ere, emaitzak ematen ari dira»

#### Zertan da haiekin hasitako negoziazioa?

EH Bildun argi daukagu herri mugimenduak beharrezkoak direla herri bizia izateko eta gu beti egongo gara mugimendu guztiak interlokuzioan herria hobetzen duten jarduerak egiteko erraztasunak emanez.

#### Parte-hartzea sustatzearen alde ere azaldu izan zarete, baina prozesu batzuk kritikatu dira, parte-hartzea eskasa izan omen delako. Zer dago aldatzeko?

Ezin da orokortu parte-hartzea eskasa izan denik, batzuetan parte-hartzaile kopurua altua izan baita. Balorazioa kualitatiboki egitea da askoz garrantzitsuagoa, eta oso positiboak izan direla esateko arrazoiak baditugu; herritarrek politika publikoetan daukaten eragina haunditu egin baita. Guk bultzatu nahi dugun partaidetza ereduak, aspektu kualitatiboan eta kuantitatiboan arteko oreka bilatu nahi du.

#### Alderdien arteko akordiorik bilatuko duzue parte-hartze prozesu gehiago antolatzeko?

Noski. Beti egin izan dugu hala.

#### Zerbitzu Sozialetako patronatuko lehendakaria zara. Aurten Foru Aldundia zen Zaharren Egoitzako kargu egitekoa, baina badirudi atzeratzen ari dela. Zer gertatuko da?

Foru Aldundiko arduradunekin aldaketa lantzen ari gara. Gure zahar egoitzak oso balorazio ona jasotzen du, eta gero-ora ere egoiliarrek egungo kalitatezko zerbitzu bera jasotzea nahi dugu. Gure apustua da kalitatezko kudeaketa publikoaren duen zerbitzua ematea eta Aldundiarekin hitzarmena sinatzerakoan ere hori horrela izateko ahalegina egiten ari gara.

#### Berdintasun arloan, parte-hartze prozesuekin lotuta, Emakume Etxea egitea adostu zen, baina bi aldiz argitaratu da lanak esleitzeko deialdia, eta hutsik geratu da. Zer gertatzen da?

Udal askotan gertatzen ari da obren lizitazioak hutsik geratzea. Hala ere, obra esleitu berri da, eta urte honen bukaerarako eginda egotea aurreikusiten dugu.

#### Herri osora iristeko ahaleginean, auzo batzuk ahaztuta daudela salatzen dute. Zer dago aurreikusita arlo horretan?

Gure Herri Programako lehentasunetako bat da auzoen biziberritzea. Auzoetan inbertsioak egingo dira: asfaltatze kan-



Aurreko legegintzaldian zinegotzi izandakoak eta aurpegi berriak aurkeztu ditu EH Bilduk, zerrendan.

paina egingo da udan, aurreikusita dauden urbanizazioak ere gauzatuko dira: Lizeagan, Etxeberrin, Sorgintxulon, argiztapena berritzeko planarekin eta irisgarritasuna hobetzeko lanekin ere jarraituko dugu... Baina obretatik haratago doa gure proposamena: auzo elkarrekin lankidetzan auzoetako haur, gazte zein adinekoentzat ekintza desberdinak jarri nahi ditugu martxan.

#### Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da, eta kalteei aurre egiteko hainbat neurri hartu izan dira azken urteetan. Zer egitea aurreikusten duzue?

Legegintzaldi honetan inoiz baino neurri gehiago jarri dira martxan, Txotx Mahaia osatzen duten eragile guztien artean adostuta. Eta, pixkanaka bada ere, emaitza ematen ari dira neurri horiek. Kalte hori murrizteko bidean jarraituko dugu lanean Txotx Mahaiarekin.

#### Aparkaleku falta ere arazoa da askorentzat. Konpontzeko proposamenik baduzue?

Gure proposamena da kotxeen zein aparkalekuaren erabilera zentzuzkoa bultzatzea, eta dugun espazioa ahalik eta hoberen aprobetxatzea. Karabelen martxan dira plaza gehiago sortzeko lanak eta bertako bizilagunen elkarrekin lanean jarraituko dugu. Beste auzo batzuetan dauden aparkalekuak erregulatzea ere aztertzen ari gara.

#### Euskaraldia egin zen iaz. Soziolinguistika klusterraren azken ikerketaren arabera, euskeraren erabilerak behera egin du. Zein ildo jarraituko duzue, euskerari dagokionean?

Herria ordezkatzeko dugun hautetsiok, euskaraz komunikatzeko eta lan egiteko gaitasuna eduki beharko genuke, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko. Ez zait txukuna iruditzen kanpainetan eta argazkietan euskera-

ren alde agertzea eta gero eguneroko lanean gatzelera hutsean aritzea.

#### Hondakinen kudeaketari dagokionez, kale garbiketa publikatu duzue.

Foru Aldundiak hondakinak tratatzeko eredu bat inposatu nahi digu. Errauskailua dirutza bat kostatuko zaigu eta jaten eman behar zaio. Horregatik, udal guztiok behartzen gaituzte sistema horrekin bat egiten. Guk nahi dugu gure konposta modu jasangarrian tratatu: Ihobek (Eusko Jaurlaritzak) eta Espainiako Ingurumen Ministerioak babestu zuten gure planta egiteko proposamena eta diru-laguntza ere onartu zigen. Aldundiak atzera bota du ez duelako nahi agerian gelditzea, hondakinak beste modu batean kudeatuta, erraus-tegiaren beharrik ez dagoela.

#### Titularrak

1. **Xabier Lertxundi Asteasuinzarra**
2. Koro Etxeberria Tolosa
3. Esti Aldeiturriaga Amuriza
4. Oier Agirresarobe Lizaso
5. Patxi Ibarbure Etxeberria
6. Mattin Aldaia Olasagasti
7. Isabel Sanchez Perez
8. Itsaso Lekuona Legorburu
9. Estitxu Agirre Agirre
10. Alex Erdozia Igoa
11. Ane Ibarburu Lizeaga
12. Mikel Von Wichmann Pavletich
13. Lulu Barragan Merce
14. Aitzol Arrieta Erauskin
15. Miren Clemente Lozares
16. Kepa Pikabea Urdangarin
17. Igotz Zerain Usandizaga
18. Imanol Arana Goikoetxea
19. Begoña Arrondo Iruin
20. Larratiz Mendiabe Apezetxea
21. Inhar Olano Iradi

#### Ordezkoak

1. Alfredo Moraza Barea
2. Pepi Lafourcade Casado
3. Juan Lucas Moral

Kale garbiketa publikatzearekin izugarritzko pausoa eman dugu: burtsan kotizatzen duen multinazional deslokizatu batek kudeatzeetik, irabazi asmorik ez duen enpresa publiko batek kudeatzerara pasa da.

#### Elkarbizitzaren alorrean, legegintzaldi hasieran sortu zen Bizikidetzak Mahaia, baina azken hilabeteetan desadostasunak sortu dira. Horiek gainditu eta ildo horri jarraitzeko modurik ikusten duzue?

Desadostasun bat publiko egin dute. Desadostasun asko izan dira eta modu diskretuan kudeatu dira. Argi eta garbi esan dugu biktima guztien errekonozimendua egiteko prest gaudela, baita ETaren biktimena ere. Ez dugu, baina, onartuko biktima batzuek besteek baino gehiago sufritu duela esatea. Gogorazi behar baitugu oraindik ere Hernanin gatazka politikoen ondorioak jasaten ari diren pertsona asko daudela. ■

#### Euskara arloan urrats garrantzitsuak eman dira, baina badago zer hobetzea. Lehentasuna non jarriko zenuke? Proposatuta bizpahiru neurri.

Beti aipatzen dut Hernaniko Udalak duen hizkuntza politika oso ausarta dela, benetako normalkuntza bilatzen duela. Hartuko ditugun neurriak:  
-EH Bilduren zinegotzi guztiak euskaldunak gara, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko modu bakarra baita. Lehentasuneko gaia da guretzat.  
-Udal barruan eta erakundeekin euskara hutsez lan egiten jarraituko dugu.  
-Herriko eragileekin elkarlanean, haien jardunean euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko baliabideak eskaintzen jarraituko dugu.  
-Herritarrek euskara ikasi eta maila hobetu dezaten aukerak errazten eta diru-laguntzak indartzen jarraituko dugu doakotasunaren bidean.

Dobera Euskara Elkarrekin babestutako galdera





HERNANI EAJ - Andoni Amonarraiz Gomez

# «Akordioak, kudeaketa eta gardentasuna izango dira legegintzaldiko oinarriak»

Udaletxea ederki asko ezagutzen du Andoni Amonarraiz Gomezek, Hernaniko alkatezarako EAJ-PNVren hautagaiak. Aldaketa beharra antzematen du, eta horretarako, haien taldea prest dagoela: «itxaropena dugu botoetan gora egiteko eta horrek alkatezara iristea ahalbidetzeko».

## HAINBAT legegintzalditako esperientzia duzu. Zein balorazio egiten duzu azken lau urte hauena?

Udaletxearen kudeaketa ezagutu dugunetan okerrena izan da. EH Bildu ez da gai izan 14.000.000 euro gastatzeko, eta kajoietan dauzka, beraz, ez dute balio izan hernaniarren bizitza hobetzeko. Udal teknikariek obra publikoetara joatea debekatu digute; informazioa ezkutatu digute; munduan barrena bidaiatu dute Udalaren kontura Hernaniri onurarik ekarri gabe; ez dute teknikari postu bakar bat bete lehiaketa publiko bidez (%99 interinoak dira eta asko beste herrietako zerrendetatik etorri dira); aholkulariekin gobernatzen jarraitzen dute; gasoildun ibilgailuak erosi dituzte; ez dute Atez Atekoaren errealitatearen inguruan hitz egin nahi izan (kostua, birziklatze tasa, erreferenduma...). Hau da, desastre hutsa.

## Aldaketak izango dira aurrean: 17 zinegotzi izatetik 21era pasako da.

### Emaitzetan zein eragin izan dezake?

Hauteskundeetan garrantzitsuena da hernaniarrak ilusioarekin bozkatu dezatela, eta ez daitezela etxean geratu. Uste dugu garaia dela herri honek ezagutu dezan kudeatzeko beste eredu bat, askoz ere irekiagoa, etorkizun-sena daukana, hernaniar guztien bizitza hobetuko duena eta Hernani gure inguruko betiko herri erreferente egingo duena. Herri ireki, plural, moderno eta gizarte desberdintasunik gabea nahi dugu, gizarte zerbitzu onekoa eta ingurugiroa errespetatzen duten enpresak dauzkana, haietan lan egiteko hernaniarrak kontuan hartzen dituztenak. Itxaropena dugu botoetan gora egiteko eta horrek alkatezara iristea ahalbidetzeko.

## Gobernatzeko, gainontzeko alderdiekin balizko akordioak egiteko prest zaudete?

EAJ-PNVko zinegotzi guztiak gara, uste osoarekin, akordioen aldekoak, ez dugu

«Uste dugu hasiera batean bi aparkaleku bertikal behar liratekeela: bat Milagrosan, [...]. Eta beste bat, Karabelen»

besterik ezagutu. 2003-2007an koalizioan gobernatu genuen eta ez dugu besterik egin, EH Bildurekin akordioetara iristea saiatu besterik, baina gehiengo absolutuak, 'hemen nik agintzen dut' moduan ulertuta, akordioa galarazi du. Oposizio osoak, banaka edo blokean, kritikatu dugu publikoki bere politika egiteko modua. EAJ-PNVtik askotan jarri behar izan gara harremanetan Datuen Babeserako Euskal Agentziarekin babes eskatzeko, udal gobernu taldea kontrolatzeko dagokigun lana egiteko beharrezkoa genuen dokumentaziora lortzeko ezintasuna medio. Guk, printzipioengatik, ez diogu aterik ixten edozein alderdi politikorekin akordioak egiteari, baina legegintzaldi honetan ikusitakoaren ondoren, errazagoa izango da batzuekin egitea, besteekin baino. Hernaniarrek alkatezara eramaten bagaituzte, akordioak, kudeaketa eta gardentasuna izango dira legegintzaldiko oinarriak.

## Zein dira Hernaniren erronkak, zuen ustez? Zein proposamen zehatz dituzte?

Hernaniren erronka nagusia da, egun, udal gobernu aldaketa. Horrela bakarrik hobetuko da udaletxeko lan giroa, beteko dira lanpostuak oposaketa bidez (egun, 18 udal teknikarietatik 15, aholkulariek edo oposaketarik egin ez dutenek betetzen dituzte), bukatuko da nahierara esleitutako lanpostuekin, hobetuko da trafikoa, aparkalekua, garbiketa, irisgarritasuna, ez da bidaiarik egingo Udalaren kontura helburu argirik gabe, konponduko dira auzoetako arazoak, hobetuko dira erakunde barneko harremanak, kultura eta herrien arteko lana, errespetatuko da desberdin pentsatzen duena... Herriko merkataritza, enpresekiko harremanak eta turismoa sustatzea gai garrantzitsuak dira guretzat, eta zinegotzi postu berria sortuko dugu gai hauek lantzeko.

## Aurreikusitako inbertsioak ez direla gauzatu salatu duzue. Nola egin dakioke aurre egoerari?

2018an inbertsioen %26 bakarrik gauzatu izanak, eta 2017 eta 2018ko Hernani Erabaki prozesuetako proposamenen %9 gauzatu eta ordaindu izanak azaleratzen du EH Bilduren kudeaketa penagarria.



Andoni Amonarraiz Gomez, udaletxeko sotoan.

Hernaniarren dirua haiek erabakitako proiektuetan gastatu besterik ez zuten egin behar. Zortzi urte daramazkete gehiengo absolutuan. EAJ-PNVko koalizioan gobernatu zuen lau urteetan zehar, kudeatzen genituen arloetan aurre-pauso haundiak egin ziren: auzoen eraberritzea, igerileku irekiak, Atsegindegiko plaza eta aparkalekuak, hilerri-rako sarrera, zaharren egoitza berriaren proiektua, jangela soziala, etxeetako laguntza haunditzea... Eta hau guztia oraingoa baino askoz ere udal aurrekontu txikiagoarekin. Konponbidea kudeaketa ona da, eta EAJ-PNVko gobernatzen badu, bermatuta egongo da.

## Legegintzaldiko proiektu potoloetako bat kirol arlokoa izan da, eta horren barruan, igerilekua berritzea. Ez zarete emaitzarekin pozik agertu, ezta? Kirol arloan zer gehiago dago egiteko?

Igerileku berrien inguruan esan dezakeguna da zalantza asko dauzkagula proiektuaren, obra gauzatzearen, erakuntzaren kalitatearen, instalatutako elementuen inguruan, eta jakin nahi dugu, baita ere, zergatik kexatzen diren erabiltzaileak aldageletan egiten duen hotzaz, igerileku txikiako tenperaturaz... Ikuskapena egingo dugu proiektu honetako hainbat eta hainbat alderdik sortzen dizkigun zalantzak ezagutzeko eta arazoei konponbideak bilatzeko. Errugbi eta futbol instalazioei dagokienez, esan beharra daukagu

alderdi politiko guztiok bi klubekin izandako bileretan EAJ-PNVk bi proposamen egin zituela baloratu zitezten. Lehenengoa, zelaiak harrobira mugitzea (EH Bilduk ezetza eman zuen), eta bigarrena, kolektorerraino altxatzea, behekaldea libre utziz uholdeak izanez gero errekarari irteera emateko (klubek onartutako proposamena). EAJ-PNV alkatezara iritsita bakarrik baloratuko da. Horrez gain, uste dugu babesten segi behar direla aisialdiko eta eskola kirola, eta EAJ-PNVtik egingo duguna da lehiari bultzada eman. Errugbi elkartearekin egin nahi dugu lan ekitaldi bat sortzeko, futboleko DonostiCup dagoen moduan, gure herrira erakartzeko errugbi klubak, familiak eta zaleak. Kirola sustatuko genuke, gure merkataritzaren ekonomia hobetuko genuke eta Hernani bisitariei irekiko genieke. Kirol ekintzak eta inbertsioak enpresa pribatuek finantzatu ditzaten eta mezenasgoaren legearen onurak izan ditzaten dauden aukerak aztertuko ditugu.

## Berdintasun arloak garrantzia gero eta haundiagoa hartu du. Emakumeen Etxea errealitate izango dela dirudi. Zein dira zuen proposamenak?

Espero dugu espazio hau azkenean martxan jarri ahal izatea, eta bertan lan egitea gizon eta emakumeen eskubide berdintasunaren alde, gazte nahiz heldu, bertakoak zein kanpotarrak izan, eta orokorrean, desberdintasunak saiheste-

ko. Elkartzeko eta adiskidetasunerako espazio izan dadin espero dugu, muturreko jarrerak tokirik izan ez duten espazioa, eta bertan egingo den lanak berdintasunean oinarritutako Hernani plural bat lortzea ahalbidetuko duena.

### Hainbat parte-hartze prozesu egin dira legegintzaldi honetan, baina batzuetan kritikak izan dira. Zer dago aldatzeko?

EAJ-PNVrentzat herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Beharrezkoa dena da herritarrek erakarriko dituen mekanismoak ezartzea, eta gaur egun ez da egingo. Hernani Erabaki prozesuan 16 urtetik gorako 1.000 lagun inguru ari dira botoa ematen, eta harrobiaren inguruko parte-hartze prozesuan 17k hartu zuten parte. Uste dugu sistema aldatu beharra dagoela, eta aztertu behar litzatekeen sistema berri bat izan daitekeela elkarte eta auzo elkarrekin lan egingo duena, herriaren beharrak antzeman, lehentasunak zein diren bozkatu eta gauzatzea planifikatuko duena. EAJ-PNVtik lan egingo dugu denon artean lortzeko ahalik eta herritar gehienek parte hartuko duten parte-hartze prozesuak martxan jartzea.

### Herri osora iristeko ahaleginean, auzo batzuk ahaztuta daudela salatzen dute. Zer dago aurreikusita arlo horretan?

Hauteskundeetarako gure proposamenek helburu argi bat daukate: urteetan hernaniarrek helarazi dizkiguten arazoak konpontzea. Alkatetzara iristen bagara, trafikoa hobetuko dugu; bi apartakaleku bertikal egingo ditugu; Portu-Elizaxo Kaxkoarekin lotzeko igogailu bat egingo dugu, eta beste bat, Etxeberrin; Etxeberrin parean, Floridako trenbidearen azpiko tunela egokituko dugu ibilgailu eta oinezkoak pasa ahal izateko; Lizeaga eta Gudarien plaza zaharbertzearekin hasiko gara, benetan, eta Zinkoeneako alde bat peatonala egingo dugu. Hau da auzoengan pentsatzea. EH Bilduk 14.000.000 euro gastatzen ez jakin izanaren alderdi positibo bakarra da, alkatetzara iristen bagara, egin diren proiektu guztiak berrikusiko ditugula eta auzoak lehenetsiko ditugula. Uste duzue EH Bilduren kudeaketa ona dela, 1.650.000 euro harrobian gastatzea proposatzen duenean, eta urtetan Lizeagarekin ahaztu ondoren, auzoan 300.000 euro gastatzea proposatzen duenean, hain justu, udal hauteskundeen aurretik?

### Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da, eta kalteei aurre egiteko hainbat neurri hartu izan dira azken urteetan. Zer egitea aurreikusten duzue?

Legegintzaldian zehar hainbat proposamen egin ditugu hernaniarren gauetako bizi kalitatea hobetzeko eta mantentzeko Hernani sagardoaren kulturaren erdigunean, baina ez zen EAJ-PNV gobernuan zegoena. Alkatetzara iritsiz gero, sagarra eta sagardoarekin lotutako egunean zeharreko ekintzak sustatuko ditugu (dastaketak, ikastaroak, estatuko eta munduko ekoizpen guneekin anaitzeak, Hernanira ekarriko ditugu



Hernaniko EAJ-PNVk maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako aurkeztutako taldea.

beste bertako produktu batzuk...). Eguneko ekintza horiek urte osoan zehar egin ahal izango dira. Gainera, gauetako segurtasuna areagotuko dugu udaltzain gehiagorekin, baita Oialumen kontzertuak daudenetan ere, eta ordenantzak betearaziko dira. Guztia pixkanaka, baina gelditu gabe egitea da asmoa. Sagarogileekin batera aztertuko dugu sagardotegietara datozenei zerga turistikoa jartzeko aukera, txotx denboraldian sortzen diren gastuei aurre egiteko.

### Aparkaleku falta ere arazoa da askorentzat. Konpontzeko proposamenik baduzue?

Uste dugu hasiera batean bi aparkaleku bertikal behar liratekeela: bat Milagrosan, hiru bat pisutakoa, azpialdean musika eskolako instalazioak hobetzeko gunea izango lukeena. Eta beste bat Karabelen, bi alturakoa, egungo apartakalekua dagoen tokian.

### Euskararen erabilera omen da datozen urteetako erronka. Zein ildo jarraituko duzue euskerari dagokionean?

Azken Euskara Planaren alde bozkatu genuen, eta ez dugu atzerapausorik eman go euskararen ezagutza eta erabilera babesteari dagokionean. Eredu gisa jartzen dugu gure inguruko herrien artean euskerarekin egingo ari den lan kolektibo ona. Lehentasunezko kontua izango da pausoak ematea hernaniarren arteko komunikazioa, merkataritzan eta enprezetan euskeraz izan dadin.

### Garbiketa publikatu da, eta orain, konposta egitea ere herriaren esku geratzeko ahalegina egin nahi izan du udal gobernuak. Zuek, ordea, kontra azaldu zarete. Hondakin kudeaketari dagokionez, zer proposatzen duzue zuek?

Atez Atekoa gaizki hasi zen eta gezurren gainean mantentzen da. Hernanik ez du esaten digutena birziklatzen, urtean 2.000.000 kirol hondakin Hernanitik kanpora eramaten baitira. Urtero gero eta diru gehiago gastatzen dugu hondakinak jasotzen eta ez da beharrezkoa. Gainera, lotsagarria da hondakin biltzaileei hernaniarren hondakin poltsak

irekitzea baimentzea. Beasainen, Zegaman, Legazpin, Ormaiztegin... bosgarren edukiontzia erekin, hondakin %76 eta 89 artean birziklatzen da, Usurbilek Atez Atekoarekin lortzen duenaren antzera; Hernanikoak baino datu hobekak dira. Bilketa gastua 4 eta 5 aldiz txikiagoa da eta jasotako biohondakinaren kalitatea herri horietan %92 eta 99 artean dago. Atez Atekoa aldatu egin behar da, eta hernaniarrek erabaki egin ahal izango dute aldatu edo ez. Organikoa tratatzea ezinbestekoa dela uste dugu, eta konposta dela konponbidea, baina ez dugu sinesten herriaren erdian konpost etxolak jartzean. Apustu egingo dugu organikoa tratatzeko gune batera bidaltzearen alde, herri guztiei zerbitzua emateko eraikiko dena, eta hernaniar guztiei hondakin biltzetaren gastua txikitzea eragingo diona.

### Elkarbizitzaren alorrean, legegintzaldi hasieran sortu zen Bizikidetzak Mahaia, baina azken hilabeteetan desadostasunak sortu izana kritikatu duzue. Horiek gaitu eta ildo horri jarraitzeko modurik ikusten duzue?

Apirileko Plenoan, EH Bilduk esan zigun haien «etsai» ginela. Elkarbizitzaren alde lanean aritu gara bost urtetan baino gehiagotan, eta horrekin dator orain. Zer egin daiteke horrela pentsatzen duenarekin? Gainera, uste dugu Hernanin EH Bildu ez dagoela prest ETAK gure herrian izandako eragina onartzeko, eta horrela, ezinezkoa da aurrera egitea. Edo autokritika modu argian egiteko gai gara, edo ez dugu aurrera egingo. EH Bilduk iraindu egin zituen EAJ-PNV eta oposizio osoa, eta gezurra esan zuen ETAK eta haren inguruak eragindako sufrimendua errekonozitzearen inguruan aurkeztu genuen mozioarekin erlazioatutako guztiari dagokionez. Bileretako aktekin erakutsi genuen. Hala ere, elkarbizitzaren alde lanean segiko dugu. EAJ-PNVrentzat elkarbizitza desberdinen arteko konfidantza oinarritu behar da, eta konfidantza hori berrezartzeko, EH Bilduk publikoki esan behar luke hernaniar guztiei gezurra esan ziela mozioarekin lotutako guztiari dagokionean. ■

#### Titularrak

1. Andoni Amonarraiz Gomez.
2. Jose Antonio Cuesta Sole.
3. Maria Otaegui Velez.
4. Blanca Alberro Aranzasti (Independiente).
5. Felipe Etxeberria Agirretxe.
6. Mikel Gurutzaga Zubillaga.
7. Felix Etxeberria Balerdi.
8. Maria Jose Martinez Frade.
9. Edume Urkia Aldaregia (Independiente).
10. Miriam Vazquez Vecino (Independiente).
11. Isabel Zubillaga Huici.
12. Jose Ramon Lasarte Elicegui.
13. Genoveva Aguinaga Ortega (Independiente).
14. Andoni Gortazar Peñil (Independiente).
15. Maria Pilar Ugalde Aguirresarobe.
16. Jose Antonio Rekondo Sanz (Independ.).
17. Natalia Ugalde Aguirresarobe (Independ.).
18. Iñaki Arratibel Olaciregui (Independiente).
19. Maria Concepcion Azkue Orayen.
20. Domingo Gainza San Sebastian (Independiente).
21. Silvana Bassetti Duranti.

#### Ordezkoak

1. Aitor Eyheraguibel Bossert.
2. Javier Sagastagoitia Monasterio.
3. Ana Azpiazu Urrutia (Independiente).

### Euskara arloan urrats garrantzitsuak eman dira, baina badago zer hobetua. Lehentasuna non jarriko zenuke? Proposatuta bizpahiru neurri.

Musa, zine foruma e.a. antolatuta euskaltegiatiko oinarritzko mailetakoko ikasleekin, baita ere, irakurtzen edo idazten ez dakiten helduekin. Euskarazko irrati bat sortu ikastoletako ikasleekin eta "bikote linguistikoa" eratu, euskaldun bat erdal-dun batekin, euskara praktikatzeko. Euskeraz oinarritzko bizimodua egiteko beharrezkoak diren hitz, aditz eta esaldi errezak identifikatu; dendan, tabernan ... oinarritzko elkarrizketa bat euskeraz izateko. Euskerara hurbiltzeko lehenengo pausua izan dadila hau. Gazteak sentsibilizatu euskera erabiltzeko, ikastolan, eta antolatutako ekintzetan ere bai. Euskararen erabilerean arabera kalifikatu ikaslea, eta hau izan dadila nota orokorra hobetzeko.

Dobera Euskara Elkarrekin babestutako galdera



HERNANI ELKARREKIN PODEMOS - Jaione Aristregi Cao

# «Oso kezkatuta gaude airearen eta usainaren kutsadurarekin, herri osoa dagoen bezala»

Jaione Aristregi Cao izango da Elkarrekin Podemos-Orain Hernaniren alkategaia, aurreko hauteskundeetan bezala: «gara talde bat kohesionatua, plurala, eta Hernaniren alde lanean jarraitzeko gogoia daukana», dio. Nabarmendu du, herria «oso zikin eta utzita» dagoela.

## Aurreneko legegintzaldia izan duzu pasa den hau. Nolakoa izan da esperientzia?

Ona eta positiboa izan da, baina gogorra momentu askotan. Zaila da tartea ateratzea lanerako, nire alaba zaintzeko eta gainerako lan publikoetarako (bizilagunekin bilerak, batzordeak...).

Gainera, EH Bilduren Gobernu Taldeak, ahal bezainbeste traba jarri dizkigu, gure funtzioak normaltasunez egitea galarazteko. Ez digute informazioa alde aurretik eman, edo ukatu egin digute; eta hiru urte igaro ditugu dekretuetara sarbiderik izan gabe, besteak beste. Beste adibide gogor bat: Nora nire taldekideak elebitan eskatu zuen informazioa, eta Plenoan, alkateak esan zion ez zuela hauteskundeetara aurkeztu behar, euskeraz ez badaki; onartezina da hori, kontutan hartuta hernaniarren %40ak ez duela euskeraz hitz egiten, azkeneko ikerketen arabera. Norak ezin izan du batzordeetara normaltasunez joan, ez dutelako elebitan egin nahi izan, edo berari laburpen bat pasa gaztelaniaz.

Bestalde, zorrea izan dut, imajinatu nezakeen talderik onenak lagundu didalako lau urte hauetan. Eta orain, taldearen zati bat egongo gara berriro, kide berriekin, asko aberastuko dutenak lantalde hau. Eta eskertu behar dugu, udaletxeko langileen prestutasuna, eskatu diegun guztian laguntzeko prest egon baitira beti. Mila esker!

## Legegintzaldian zehar, aldaketak izan dira zuen taldean. Zein da oraingo egoera?

Bai, egia da desadostasunak izan zirela, eta dimisioa aurkeztu zuela gure zinegotzi batek. Baina aldaketa horren ondoren, ez genuen arazorik izan aurrera egiteko; eta gaur egun, gara talde bat kohesionatua, plurala eta Hernaniren alde lanean jarraitzeko gogoia daukana.

## Oraingoan, Orain Hernani plataformaren izenean beharrean, Elkarrekin Podemos koalizioan aurkeztuko zarete. Zer aldatu da?

Orain Hernani, hauteskundeetarako talde bezala, legegintzaldi baterako bakarrik osatu zitezkeen. Horregatik, aukera ezberdinak aztertu ondoren, erabaki dugu Elkarrekin Podemos-Orain Hernani dela aukerarik onena,

egin dugun lanari jarraipena emateko. Izan ere, ildo ideologiko bera konpartitzeaz gainera, aukera ematen digu hautagaitzan integratzeko pertsona afiliatuak eta independenteak, sentsibilitate ezberdinak bilduko dituzten zerrendak osatzen jarraitzeko asmoarekin.

## Aldaketak izango dira aurren: 17 zinegotzi izatetik 21era pasako da Udala. Emaitzetan zein eragin izan dezake? Zer espero duzue?

Espero dugu gehiengo absoluturik ez izatea. Uste dugu, gobernu on batek egin behar duela elkarbanatu, negoziatu eta oposizioko alderdiei parte hartzen utzi, herriaren kudeaketan. Alde bakarreko erabakiak saihestu. Elkarbanatzeak, herritar guztien multzoa aberasten du.

## Gobernatzeko, gainontzeko alderdiekin balizko akordioak egiteko prest zaudete?

Orain ez dugu akordioetan pentsatzen; aurrena, entzun nahi dugu herritarrek esateko daukatena.

## Legegintzaldia hasi zenuten Tokiko Gobernuan sartzen eta aurrekontuen aldeko botoa ematen. Ondoren, Tokiko Gobernutik atera zineten.

## Azken aurrekontuei, berriz, kontrako botoa eman diezue. Zein jarrera izango duzue aurrerantzean?

Hasieran, positiboa iruditu zitzaigun Tokiko Gobernu Batzordearen parte izatea, bere garrantziagatik. Uste genuen, EH Bilduk kontutan hartuko zituela gure ekarpenak. Baina erratu egin ginen, bakarrik nahi gintuen sinistarazteko erabakiak ez zituela bakarrik hartzen; elkarrizketa eta partehartzearen ilusio bat.

Antzeko zerbait gertatu zen aurrekontuekin: 2017koak babestu genituen, onartu zutelako gure emendekin guztiak exekutatzeko, baina oraindik gauzatu gabe daude ia denak.

2018ko aurrekontuetara, iritsi ginen deskonfiantza haundiarekin, aurreko urteko emendekin gauzatu ez zirelako, eta urtean zehar jasotako tratuagatik. Hala ere, haiekin hitz egitera eseri ginen berriro, eta gure proposamenak aurkeztu genituen. Bilera horretatik, oso desilusionatuta atera ginen. EH Bilduk ez zeukan inolako asmorik, urte horretan zehar gurekin kontaktzeko;



Jaione Aristregi Cao, Elkarrekin Podemos alderdiaren alkategaia.

«Espero dugu gehiengo absoluturik ez izatea. Gobernu on batek egin behar du elkarbanatu, negoziatu eta oposizioko alderdiei kudeaketan parte hartzen utzi»

bere irudia garbitzeko ekintza interesatu bat besterik ez zen izan.

## Zein dira Hernaniren erronkak zuen ustez? Zein proposamen zehatz dituzue?

Hernani oso zikin eta utzita dago. Babestu egin dugu kale eta poligonoetako garbiketa zerbitzua Udalak hartzea, baina ez da hobekuntzarik nabari. Baliabide ekonomikoak haunditu nahi ditugu, kale garbiketa hobetzeko, bankuak eta farolak margotzeko, jardinak konpontzeko, eta espaloiak presio-urarekin garbitzeko. Paperontzi gehiago egon beharko liriateke, eta hautsontziak eta animalien gorotzentzako biltegiak gehitu beharko litzaizkieke.

Azpiktratatatu diren zerbitzuen kudeaketa berreskuratuko dugu, eta baita eraikin publikoen garbiketa ere. Oso sektore feminizatua da, lan baldintza prekarioekin eta lanaldi partzialekin, eta hobetu egin nahi ditugu.

Gure herriaren irudia hobetuko

dugu, eta horretarako, beharrezkoa da parke eta jardin batzuk berregituratzea, gure material naturalak konbinatuz erakargarriagoak izateko, mantentzen gastuak ere gutxituz.

Oso kezkatuta gaude airearen eta usainaren kutsadurarekin, herri osoa kezkatuta dagoen bezala. Horren erakusle da, otsailean Orain Hernanik antolatu zuen hitzaldira jende asko gerturatu izana. Hitzaldi horretatik atera zen lagun talde bat, mobilizazioak bultzatu eta erantzukizunak eskatzeko administrazioei. Eusko Jaurlaritzari eta potentzialki kutsakorrek diren Hernaniko enpresei, exijituko diegu beharrezko neurriak hartzea, egoera hau konpontzeko modu urgentean. Kabina gehiago eskatuko ditugu, neurketak egiteko eta airearen kalitatearen kontrolerako.

Jangelen kudeaketa Udalaren esku egotea nahi dugu. Auzolagunen gainkostuen eskandaluaren ondoren, ikusita jangelen monopolioa daukala Euskadin, EAJren eta bere gobernuakideen oniritziarekin, frogatuta geratu da zerbitzu hori kudeatzeko modurik onena gertutasuna dela. Udal sukalde bat jarriko dugu martxan, lehentasuna emango diona elikadura sanoari, kalitatezkoari, garaian garaiko eta Km 0 produktuekin; eta ez da bakarrik arduratuko eskoletako jangelei banatzeaz, baita egoitzei eta baliabide ekonomiko gutxi dituzte herritarrei ere.

Etxebizitza zinegotzigoa sortuko dugu, etxebizitza kudeatzeko, alokairu sozialeko BOE bultzatzeko, eta etxebizi-



**«Parte-hartze prozesuekin konprometituta gaude, baina asko dago egiteko, horiek hobetzeko. Horietan erabakitakoa zentzuzko epe batean gauzatu behar da»**

tza hutsak merkaturatzeko. Horretarako, Kaleratzeak Stopekin egingo dugu lan.

Kalitatezko turismo eredua bultzatuko dugu Hernanirentzat, balioan jarriko duena gure ondare historiko, kultural eta natural aberatsa; eta horretarako, martxan jarriko dugu mugikorrenzako aplikazio bat, eta zabalduko dugu katalogo turistikoa, interes haundieneko puntuak seinalizatuz.

**Berdintasun arloak garrantzia gero eta handiagoa hartu du. Emakumeen Etxea errealitate izango dela dirudi. Zein dira zuen proposamenak?**

Ukaezina da, Hernaniko gizarteak urte asko daramazkiela borroka feministan. Konprometitzen gara, Emakumearen Etxea ahalik eta azkarren bukatzen; izan ere, milioi bat euroko aurrekontua daukan proiektua da, eta EH Bildu ez da gai izan aurrera ateratzeko, bere kudeaketa txarragatik. Emakumeen Etxea izango da, Hernaniko emakumeek erabakitzen dutena.

**Hainbat parte-hartze prozesu egin dira legegintzaldi honetan, baina batzuetan kritikak izan dira. Zer dago aldatzeko?**

Parte-hartze prozesuekin konprometituta gaude, baina asko dago egiteko, horiek hobetzeko. Horietatik ateratzen diren erabakiak, zentzuzko epe batean gauzatu behar dira; eta jende askok utzi dio parte hartzeari, hori ez delako betetzen. Adibidez, duela hiru urte erabaki zen haur parke bat estaltzea, 125.000 euroekin; eta hauteskundeak baino 15 egun lehenago hasi da gauzatzeko, onartutako aurrekontua hirukoiztuz. Ez da onargarria, Hernani Erabakiren azkeneko hiru urteetako 1.500.000 euroetatik, soilik gauzatzea %32 barregarri bat. Horrek erakusten du, beste behin, EH Bildu egiten ari den kudeaketa penagarria.

**Alderdien arteko akordioak bilatuko duzue parte-hartze prozesu gehiago antolatzeko?**

Bai, gure ADNan eta gure programan daramakigu.

**Herri osora iristeko ahaleginean, auzo batzuek ahaztuta daudela salatzen dute. Zer dago aurreikusita arlo horretan?**

Auzo bakoitzak arazo jakin batzuk dauzka, eta auzo batzuk oso utzita daude. Auzo elkarteekin elkarlanean aritu gara, haien eskaerak bideratzeko, eta udal baliabideak modu proportzionalan banatuko ditugu horretarako. Horkonpon aplikazioa jarriko dugu berriro martxan, orain desaktibatua dagoena, herritarrek modu errazean komunikatzeko, geolokalizatutako ar-



Elkarrekin Podemos-Orain Hernanik aurkeztu duen taldea, udaletxeko arkupeetan.

gazki bat bidaliz mugikorrarekin, ikusi dituzten kalteen berri emateko.

**Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da, eta kalteei aurre egiteko hainbat neurri hartu izan dira azken urteetan. Zer egitea aurreikusten duzue?**

Minimizatu egin behar ditugu, txotx denboralditik eratorritako ondorio negatiboak. Udal ordenantzak betearaziko ditugu, gaueko aisialdirako lokalen aforoa kontrolatzeko. Araudi zibikoa ere aplikatuko dugu, jarrera desegokiak saihesteko, lehentasuna emanez herritarren atsedenerako eskubideari eta herriko biztanleen gozamenari. Saihestu behar dugu, haurrak haztea pentsatuz hau dela aisialdirako modelo normalizatua. Autobusen aparkalekuearako gehiengo aforo bat ezarri nahi dugu txotx garaian, alde aurreko erreserba bidez funtzionatuko duena.

**Aparkaleku falta ere arazoa da askorentzat. Konpontzeko proposamenik baduzue?**

Larria da aparkalekuen kontua Hernanin. Auto askok denbora gehiegi ematen dute zirkulatzen, aparkatu ahal izateko; eta horrek oraindik eta gehiago kaltetzen du herriko airearen kalitatea, besteak beste. Horregatik, beharrezkoa da aparkaleku bat eraikitzea, arazoari konponbidea emango diona.

**Euskaraldia egin zen iaz. Soziolinguistika Klusterraren azken ikerketaren arabera, euskeraren erabilerak behera egin du. Zein ildo jarraituko duzue euskeraren arloan?**

Herri euskalduna gara. Jende askok egin du eta egiten du lan euskeraren normalizaziorako, euskeraz egiten ez duten pertsonak barne, haien seme-alabak D erudian matrikulatuz. Ez zaio inorri inposatu behar euskera, eta inor ez da bigarren mailako hernaniartzat jo behar, euskeraz hitz egiten ez duelako.

Euskera erakusteko ereduetan ebo-luzionatu nahi dugu, udal euskaltegiko edukia eta materialak modernizatuz.

Bere erabilera sustatu nahi dugu, jendea euskerara gerturatzeko errespetuz eta maitasunez, inposaketarik gabe. Babestu eta animatu behar ditugu, euskera ikasi nahi duten pertsonak, ordutegi malgukin eta doako klaseekin. Eta euskeraren erabilera bultzatzeko kanpainak lagundu behar ditugu, Euskaraldia edo Euskara Ari Du bezala.

**Garbiketa publikatu da, eta orain, konposta egitea ere herriaren esku geratzeko ahalegina egin da. Hondakinen kudeaketari dagokionez, zer proposatzen duzue zuek?**

Guk apustua egingo dugu, ahalik eta hondakin kopuru txikiena sortzea bermatuko duten politiken alde, sustatuko dutenak berrerabilpena, birziklapena eta elikagaien hondakinak gutxitzea; Hernaniko herritarrek barneratuta daukate hori.

Hondakinen gaikako bilketa sistema

garbiago eta erosoago bat proposatzen dugu, posteak garbituz eta organikoaren poltsak diruz lagunduz. Tasak birbanatu nahi ditugu, sortutako hondakinaren arabera. Beirazko ontziak itzultzeko sistemak sustatuko ditugu, eta kristalezko pitxerrak emango dizkigu ostalaritza establezimenduei, plastikozko botilen erabilera saihesteko.

**Elkarbizitzaren alorrean, legegintzaldi hasieran sortu zen Bizikidetzeta Mahaia, baina azken hilabeteetan desadostasunak sortu izana kritikatu duzue oposiziotik. Horiek gaitu eta ildo horri jarraitzeko modurik ikusten duzu?**

Herritarren eskaera bat da, eta gure arduraren politikoa da hori gauzatzea. Elkarbizitzan aurrera egiteko, ezinbestekoa da guztien sufrimendua errekonozitzea, eta elkarbizitzarako espazioak irekitzea, guztiok batera iristeko elkarbizitza eta bakea eraikitzen. Horretarako, beharrezkoa da iraganaren analisi kritiko bat egitea. Giza eskubideen urraketa oro, bidegabea da. ■

**Euskara arloan urrats garrantzitsuak eman dira, baina badago zer hobetua. Lehentasuna non jarriko zenuke? Proposatu bizpahiru neurri.**

Herri euskaldun bat gara. Jende askok egin du, eta egiten du lan, euskeraren normalizazioaren alde, euskeraz egin ez eta seme-alabak D erudian matrikulatzen dituzten horiek barne.

Euskera ez da inposatu behar, eta inor ez da bigarren mailako hernaniarra euskeraz ez hitz egiteagatik.

Euskeraren irakaskuntza garatu nahi dugu, udal euskaltegiko edukia eta materiala eguneratuz. Euskera herritarren-gana gerturatzeko erabilera sustatuko dugu, errespetuz eta maitasunez, inposaketarik gabe.

Euskera ikastera edonor animatuko dugu, ordutegi malgukin eta doan. Euskara Ari du edota Euskaraldia bezalako egitasmoak ere babestuko ditugu.

**Dobera Euskara Elkarteak babestutako galdera**



#### Titularrak

1. Jaione Aristregi Cao
2. Lurdes Lopez Gorrotxategi (independentea)
3. Pedro Pascual Barquilla
4. Nora C. Rey Rey
5. Asier Bilbao Diez de Salazar
6. Maite Chivite Bengoetxea
7. Aritz Hernani Mena
8. Eva Benkö Zoltan
9. Borja Martin Arozena (independentea)
10. Nagore Arrastua Barbado
11. Marcos Tolosa Oyarbide
12. Isabel Garcia Berrio (independentea)
13. Juan Ramon Jodar Arruiz (independentea)
14. Jaione Zubeldia Tellechea (independentea)
15. Javier Diaz Agredano (independentea)
16. Josune Garayar Garmendia (independentea)
17. Iosu Gonzalez Rollan
18. Mentxu Agredano Muñoz (independentea)
19. Juan Manuel Gonzalez Simon
20. Ixiar Gurmendi Olabiaga (independentea)
21. Txema Mercado Acero

#### Ordezkoak

1. Monica Mora Reluz
2. Txonio Dominguez Cuenca (independentea)
3. Ainhoa Pineda Urruzola (independentea)

HERNANI PSE-EE - Ricardo Crespo Rubio

# «Erronka nagusia da, igarotzea herri haundi bat izatetik hiri txiki bat izatera»

Ricardo Crespo izango da, bigarren aldiz jarraian PSE-EEren alkategaia: «erakutsi dugu fidatzeko alderdia garela, hitza betetzen duena». Uste du, Hernanik aldaketa sakona behar duela bere politiketan, eta azaldu du, akordioetara iristeko gai dela alderdi sozialista.

**Bigarren aldiz izango zara alkategai. Zein balorazio egiten duzu azken lau urte hauen inguruan?**

Lau urte galdu ditugu, balorazioa negatiboa da. Ekimen asko erdizka geratu dira, edo ez dira hasi ere egin. Aurrekontu partehartzailetako proposamen asko ez dira gauzatu; esaterako, orain martxan jarriko den haur parkeko estalpea egitea, Urbietan peatonalizatzea, Emakumearen Etxea, Mañe i Flaquerreko berhiritartzea... 13 milioi euro ditugu gastatu gabe, kajoian sartuta geldirik; egon den geldialdiaren erakusgarri da hori.

Bizikidetzan, Hernaniko ezker abertzaleak ez du eduki, beste herrietan izan duen ausardia. Horren adibide da, azkeneko Plenoan Gobernu Taldeko zinegotzi batek esan zigula etsaiak ginela; garai bateko guda hizkuntza erabiliz, hanka sartu zuen.

**Aldaketak izango dira aurrean: 17 zinegotzi izatetik 21era pasako da. Emaitzetan zein eragin izan dezake? Zer espero duzue?**

Azkenean boto portzentaia da banaketa erabakitzen duena, ez hainbeste banatzen diren zinegotzi kopurua. Hala ere, egia da zinegotzien igoerarekin hobeto islatzen direla alderdiek ateratzen dituzten portzentaiaak. Zinegotzi gehiago banatzea, hobeto islatuko du hernaniarrek hauteskundeetan bozkatzen dutena, gehiago hurbilduko da errealitateari. Egoera hau interesgarria izango da, herritar bakoitzaren botoaren balioa hobe ikusiko baita. Orain, adibidez, ezker abertzaleak zinegotzien %53a du, eta botoetan %46a.

**Gobernatzeko, gainontzeko alderdiekin balizko akordioak egiteko prest zaudete?**

Azken urteetan erakutsi dugu, gai garela akordioetara iristeko beste alderdiekin, eta fidatzeko alderdia garela gainera, hitza betetzen duena. Baina argi duguna da, Hernanik aldaketa sakona behar duela bere politiketan.

*«Lau urte galdu ditugu eta balorazio negatiboa egiten dugu. Proposamen asko ez dira gauzatu eta bizikidetzan ez da ausarta izan ezker abertzalea»*

Edozein alderdiren gehiengo absolutuak ez dira onak; batzuetan onuragarria da besteen beharra izatea, zure proposamen politikoak osatzeko.

**Gai batzuetan, Gobernu Taldearekin negoziatzeko prest agertu izan zarete. Ildo beretik jarraitzeko asmoa duzue?**

PSE-EE ez dago politikan sistematikoki edozeri ezetz esateko. Politika egiten dugu, gure balio eta usteetan oinarrituta. Besteen ideiek gureekin bat egiten badute, babesten ditugu; besteen iniziatibak ongi ikusten baditugu gureak balira bezala defendituko ditugu. Hori bai, ikusi egin beharko da hauteskundeek zein zinegotzi banaketa uzten duten, eta ondoren, alderdi bakoitzak zer proposatzen duen, adostasunak eta desadostasunak non dauden ikusteko.

**Zein dira Hernaniren erronkak zuen ustez? Zein proposamen zehatz dituzue?**

Hernaniren erronka nagusia da, igarotzea herri haundi bat izatetik hiri txiki bat izatera igarotzea. 20.000 biztanleko muga gainditzeak pentsarazi beharko liguke alderdi guztiei, erronka dagoela auzo desberdinetara zerbitzu publikoak zabaltzean. Zabaltzea eta hobetu, herritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak; eta batez ere, beste erakundeei eskatu Hernanin jarri dezatela begirada, gure proiektuak aurrera atera ahal izateko. Floridatik irteera hobetu, AP-15aren loturak, kirol instalakuntzak konpondu eta hobetu, kultur guneak zabaltzea... Historikoki atzeratuta geratu diren guneak hiriritatu, Hernani berdeago eta atsegina baten alde pausoak eman. Eta batez ere, txanponari buelta eman edo irauli, eta bizikidetzan erreferente bilakatzea gustatuko litzaidake.

**Legegintzaldiko proiektu potoloetako bat kirol arlokoa izan da, eta horren barruan, igerilekua berritzea. Zer gehiago dago egiteko?**

Beste sailetan bezala, lehenengo bete-beharra, Udal gisa, hartutako konpromezuak betetzea da; atletismo pistak berritzea, esaterako. Baina badaude beste zenbait instalakuntza, inbertsioa behar dutenak, kiroldegiko frontoia bezala. Hernaniko kirol instalakuntzen



Ricardo Crespo alkategaia.

inbentarioa egitea defendatzen dugu, aurrekontu batekin, gero konpontzeko. Gainera auzoetara zerbitzuak zabaltzeko politiketan, uste dugu kirol zerbitzuak eskaini behar direla, horiek herritarrengana hurbiltzeko. Eta batez ere, nabarmendu nahi dugu kirol talde txikien egiturak indartu nahi ditugula, beraien aktibitatea ziurtatzeko, eta besteei eskaintzen zaien finantziarioa aldatu edo baldintzatu gabe. Gehiago esango nuke; 20.000 biztanleko langa gaindituta, gure kirol taldeen finantziarioa haunditu beharko genuke.

**Berdintasun arloak garrantzia gero eta haundiagoa hartu du. Emakumeen Etxea errealitate izango dela dirudi. Zein dira zuen proposamenak?**

Hasteko, landutako proiektuak eta pendiente daudenak, Emakumeen Etxea bezala, amaitu egin behar dira. Behin baino gehiagotan iragarrita ikusi dugu, baina askoz gehiago ez. Hortik aurrera, herriko eragileekin elkarlanean, Hernaniko puntu beltzen mapa egitea proposatzen dugu. Berdintasunaren alorrean klausulak exijituko ditugu udal kontratuetan, Berdintasun Planak bezala; eta formakuntza eskainiko dugu Udaleko langile eta Hernaniko elkarteentzat, eskatuz gero. Konpromezua ere hartzen dugu, biolentzia matxistaren aurkako leloa ikusarazteko Udalaren ekimen publiko guztietan, baita Udaleko dokumentuetan ere. Eta saiatuko gara emaku-

mearen lana aitortzen hernaniar gizartean, helburu horretarako ekintzetan.

**Hainbat partehartze prozesu egin dira legegintzaldi honetan, baina batzuetan kritikak izan dira. Zer dago aldatzeko?**

Lehenik eta behin esan behar da, kritikak ez direla prozesu partehartzaileentzako, baizik eta Udal Gobernuak hartutako erabakien ondorioz etorri direla. Gogoan dut, kritika nagusienetakoa izan zela herritarren proposamen bat kendu izana, kontsulta bat egiteari buruzkoa, hondakinen bilketaren inguruan, zein sistema behar ote zen. Egoera horretan, EH Bilduk atzera bota zuen proposamena, bere politiken aurka zijoalako; baina orduan, nire galdera da non geratzen den jendearen partehartzea. Guri komeni zaigunaren arabera bideratzen ditugu prozesuak? Uste dugu joko arauak hasieratik argi geratu behar direla. Prozesu partehartzaileak beharrezkoak dira, benetako partehartze-kultura sustatzeko, eta denborarekin prozesu zailagoak garatzeko; ez bakarrik aukera baten alde edo besteen alde bozkatu, tokatzen denean. Beste kritika bat egin da partehartze faltagatik. Egia da oraindik ez dugula parte hartzeko ohitura hori, baina bestetik, sare asoziatibo oso aktiboa dugu, eta garrantzitsua. Agian proposatuko genuke, aurrekontu partehartzaileak auzoetara deszentralizatzea, auzotarrei

ahalmen gehiago emateko, erabakitzeko auzoari eragiten diren proiektuen inguruan. Horrela, agian, partehartze haundiagoa lortuko dugu.

### Alderdien arteko akordiorik bilatuko duzue, parte-hartze prozesu gehiago antolatzen?

Hernanin urte askotan jasaten ari garen arazoa da, Udal Gobernuak ez dela akordioetara iritsi nahi, zerbait gaitzeko daukanean. Bere logika dauka, gehiengo osoa izan duzunean. Baina pentsatzen dugu, hobe dela gehiago inplikatzeko badira, hernaniarren segmentu haundiago batengana iristeko; bestela, beti egongo da biztanleriaren zati bat prozesu parte-hartzaileak baliotzatzen ez dituen, kontutan hartuta beti dagoela jendea, bozkatzeko duenean bakarrik nahi duena parte hartu, eta zilegi da.

### Herri osora iristeko ahaleginetan, auzo batzuek ahaztuta daudela salatzen dute. Zer dago aurreikusita arlo horretan?


Gure arduraren nagusienetakoa da, Udalak eskaintzen dituen zerbitzu publikoak auzoetara zabaltzea. Auzo bulegoak irekitzea proposatzen dugu, oinarritzeko tramiteak eta kontsultak bizkortzeko. Era berean, herri barruko autobus zerbitzua hedatzea maiztasuna hobetzeko; udaltzaingoaren zerbitzua haunditzea, auzo udaltzaingoa eskaintzeko; kultur eskaintzak auzoetara eramatea; edota Florida aldean jartzea Goiz Eguzki jubilatu etxearen menpe egongo den lokal bat. Baina ez hori bakarrik, jakitun gara auzo batzuek berhiritartze urgentea behar dutela.

### Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da, eta kalteei aurre egiteko hainbat neurri hartu izan dira azken urteetan. Zer egitea aurreikusten duzue?

Noski hartu direla neurriak; baina arazoak jarraitzen du, hezkuntzan oinarritutako neurriek kontrol neurriekin uztartuta joan behar dutelako. Behin baino gehiagotan proposatu dugu ordenantzak betearazi behar direla, kalean alkohola edatearena esaterako; ordutegi eta sortzen den zaratarena ere bai, noski. Gainera, jende pilaketak oso zailak izaten dira kontrolatzeko, baina saiakera egin behar da. Proposatu dugu, baita ere, Bertzaintzarekin hitzarmen bat sinatzea, Udaltzaingoaren laguntzarekin. Gainera, Kaxkoko etxeetako bizilagunentzako lehioak aldatzeko dirulaguntzak proposatu genizkion Udal Gobernuari, baina badakigu emateko garaian murriztailea izan dela. Bide hori berriro ere zabaltzea proposatzen dugu.

### Aparkaleku falta ere arazoa da askorentzat. Konpontzeko proposamenik baduzue?

Auzo bakoitzean irtenbide desberdinak daude. Karabelen bertakoentzako utziko genuke barruko aparkalekua, eta berriak zabaltzen ahaleginduko ginateke; Lizeaga, Florida eta erdigunean, zeharka aparkatzea sustatuko genuke. Baina ez dugu pentsatu behar irtenbidea



Hernaniko PSE-EEK maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako aurkeztutako taldea.

aparkaleku gehiago egitea denik; guztiok nahi dugu bizi, oinezkoentzat erosoagoa den eremu batean. Garraio politikak eduki behar dira, garraio pribatua gutxitzen dutenak, eta bizikletentzako azpiegiturak bultzatu.

### Euskaraldia egin zen ia. Soziolinguistika klusterraren azken ikerketaren arabera, euskeraren erabilera behera egin du. Zein ildo jarraituko du udalak euskerari dagokionean?

Udaletxeko hizkuntzak euskara izan behar du, eta gainera, bultzatzeko eta indartzeko egin beharra edo bete beharra dauka. Baina ezin dugu ahaztu, oraindik ere euskeraz ulertzen ez duenik badagoela gure herritarren artean, eta bere komunikatzeko eskubidea bermatu behar da. Ezinbestekoa da euskaldun berriek euskera berea senti dezatela, maitatzen erakutsi behar zaie eta ez dute inposaketa bezala sentitu behar. Nik ezagutzen ditut hernaniarrak, derrigoritutako zerbait bezala sentitzen dutenak. Oztupo horiek gainditzen ez baditugu, ezagutzen ditugun akats berdinak errepikatzen ariko gara.

### Garbiketa publikatu da, eta orain, konposta egitea ere herriaren esku geratzeko ahalegina egin da. Hondakinak kudeaketari dagokionez, zer proposatzen duzue zuek?

Lehenik eta behin esan behar da, esaten denean garbiketa publikatu egin dela, hori gezurra dela. Egin dena da, kudeaketa bideratu titulartasun publikoaren duen enpresa batera, kasu honetan municipal, baina kudeaketa zuzenean ez da Udalarena. Langileen erlazioa enpresarekin laborala da, ez funtzionaria. Gainera, enpresa pribatu batetik Hernaniko Udalak kontrolatzen duen enpresa batera pasa gara, non gobernatzen duenak egin eta desegiten duen, eta oposizioak datuak eskatu dituen beti oztopoak jarri dizkion. EH Bilduk ez dio inoiz eskaini kontrolerako postu bat enpresa horretan, oposizio inoiz. Honekin ez dut esan nahi publikazio

horren aurka gaudenik; hasieratik esan genuen aurrera eramaten bazen gastu berdinarekin, zerbitzua bermatu behar zela eta lan baldintzak gutxienez berdinak izango zirela. Baina zerbitzua ez da hobetu, zikinkeria kexak jasotzen ditugu. Ezin gara isolatu, eta hondakinen gaia Hernanitik haratago doan gaia da. Hondakin biltetaren sistemaz hitz eginez gero, aski ezaguna da alderdi sozialistaren iritzia; beti defendatu dugu edukiontzien sistema. Lan mahai bat sortzea ere proposatu genuen, EH Bilduk eta Podemosek baztertzen zuten sistemaren inguruan. Orain, iritzi desberdinak daudenez Hernanin, herriak erabakitzeko kontsulta egitea proposatzen dugu: gaur egungo atez ateko sistema mantentzen dugun, edo sistema aldatzen dugun, gaikako bilketa mantenduz. Esaterako, organikoa eta erre-fusa etxean; eta ontzi arinak, pixohialak, papera edota beira edukiontzietan. Negoziatzera irekita gaude, eta denak defenda dezakegun akordiora iritsi.

### Elkarbizitzaren alorrean, legegintzaldi hasieran sortu zen Bizikidetzaren Mahaia, baina azken hilabeteetan desadostasunak sortu izana kritikatu duzue oposiziotik. Horiek gaintu eta ildo horri jarraitzeko modurik ikusten duzue?

Zoritxarrez, pentsatzen dugu Hernaniko EH Bildu ez dela gai izan beste herrietan eman diren pausoak emateko. Hernaniko zati baten sufrimendua gogoratu behar izan denean, orain arte aitortu ez dena, ez dute gaitasunik izan egiteko. Oraingoan, bizikidetzaren kontzeptu desberdinak ditugu. Galdetzen badidate gai izango garen desadostasunak gaintzeko, oraintxe nire erantzuna da, ez dakidala. Baikorra naiz, ezer ez delako betiko, eta bide bat zabaldu da atzera martxarik ez duena. Beste kontu bat da, zein momentutan iritsiko garen denak, bidearen puntu berera. Positiboa da, kalean jendea kontziente dela, bestearekiko enpatia eduki behar dela eta zatitzen gintuzten oztopo zaharrak gaintu behar ditugula. ||

#### Titularrak

1. Ricardo Crespo Rubio.
2. Maria Jesus Egido Moreno.
3. Jesus Maria Lopez Sanchez (Independiente).
4. Maria Nieves Jimenez Rol.
5. Pablo Peñacoba Alamo.
6. Maria Pilar Davila Alfageme.
7. Guillermo Perez Areta.
8. Beatriz Alvarez Alaminos.
9. Paulino Garcia Montejo.
10. Maria Del Carmen Iriarte Romo (Independiente).
11. Manuel Bello Miranda.
12. Avelina Garbayo Estanga.
13. Jose Antonio Gorjon Palomino.
14. Maria Carmen Giganto Alvarez.
15. Jose Antonio Sanchez Gomez.
16. Natividad Cerdan Martinez.
17. Jose Francisco Valentin Torres Casanueva.
18. Carmen Alaminos Robles.
19. Jose Morcillo Guerrero.
20. Maria Angeles Rubio Dominguez.
21. Jose Perez Dominguez.

### Euskara arloan urrats garrantzitsuak eman dira, baina badago zer hobetua. Lehentasuna non jarriko zenuke? Proposatuta bizpahiru neurri.

Neurri asko hartu dira euskeraren alde; udalean lan-hizkuntza euskera da, beste instituzioekin harremanak euskeraz izaten saiatzen gara, ikasteko diru-laguntzak oso haundiak ematen dira, e.a. Mantentzeko apustua egingo dugu. Baina, euskeraz ez dakien asko dago oraindik. Horiek euskera maitatzea lortu behar dugu, elkar ulermena sustatuz. Euskaltegian auzoetara joateko zerbitzua sortu beharko genuke, ezagutzen ez duten horien hurbiltzeko. Eta noski, euskeraz egiten diren lanak, babestu behar dituz udalak. Gure izaeraren aldarrikapena da euskera eta ekin-tza edo ikasketekin bakarrik ez da sustatzen; berezkoa dugun kultura sustatuz euskera ere hedatzen baitugu.

Dobera Euskara Elkarrekin babestutako galdera





HERNANI PP - Cristobal Carretero Gomez

# «Auzoetako bizilagunek, erdigunean bizi direnek dauzkaten eskubide berak dituzte»

2015eko hauteskundeetan bezala, Cristobal Carretero Gomez izango da PPren alkategaia, Hernanin.

**Azken hiru legegintzalditan ez duzue ordezkariarik lortu; baina aurten 21 zinegotzi izango dira, 17 beharrea.**

**Horrek onurarik ekarriko dizue?**

Udaletxe guztietara asmo berarekin aurkezten da PP; bizilagunen bizitza hobetu ahal izateko asmoarekin, eta horregatik egiten dugu borroka, nahiz eta badakigun egoera oso konplikatu dela, guretzako. Zinegotzi kopurua haundiagoa izateak ez du zertan onurarik ekarri behar, udaletxean izan dezakegun presentziari dagokionean.

**Beharrezkoa balitz, norekin egingo zenituzkete akordioak, gobernatzeko?**

Akordioetara iritsiko gara, beti ere, akordio horien azken helburua hernaniarren bizitzak hobetzea bada, baina beti zehazten ditugun marraz zeharkatu gabe; hau da, terrorismoa kondenatzea edota Espainiaren parte izatea, adibidez, ez baikaude marra horiek zeharkatzeko prest.

**Zein dira zuen helburu eta erronkak?**

Hernaniko bizilagunek ahalik eta bizi kalitate onena izan dezatela, herriaz goatu dezatela, bizitza bertan egin dezatela, lan egin nahi dutenek lan egin ahal izatea, zergak igotzen ez jarraitzea. Zergadunek egin dituzten ahalegin haundiak egin ondoren, lasaitzeko garaia da, estutzeari uztekoa. Eskaintza kultura zabal bat izatea, eta hala behar duten adinekoen eskura izan ditzatela giza baliabideak.

**Legegintzaldiko proiektu potoloetako bat, igerilekua berritzea izan da.**

**Emaitzarekin gustura geratu zarete?**

**Kirol arloan zer gehiago dago egiteko?**

Hernaniko kiroldegiak beharrezkoak zituen berehalako berrikuntzak, zaharkituta zegoela-eta, baina berrikuntza horiek gauzatzeko hainbeste denbora edukita, ez dirudi oso ondo planifikatu direnik. Bestalde, ulertzen dugu akatsak ez direla hain larriak, eta, beraz, ekintza ez oso haundiekin konpondu ahal izango direla.

**Pasa den legegintzaldi honetan hainbat parte-hartze prozesu egin dira. Zein jarrera hartuko du PPK horrelakoei dagokienez?**

Ez gara sekula herritarren ahotsa entzutearen kontra jarriko, ekintza osasungarria baita. Baina, azken batean, politikariok gara haien bizitzak hobetzeko konponbideak proposatu behar ditugunak. Horretarako aukeratzen gaituzte, baina denen gainetik pasa gabe, hori argi geratu dadila.

**Berdintasun arloak garrantzia gero eta haundiagoa hartu du. Emakumeen Etxea errealitate izango dela dirudi.**

**Zein dira zuen proposamenak?**

Berdintasunaren alde edozer egin ahal izatea aurrerapausoa iruditzen zaigu. Emakumeek hainbat ekintza garatu ahal izango dituzten elkargunea izan dadila, entzunak izango diren tokia, eta batez ere, haien arazoak konpondu ahal izango diren tokia. Emakumeen Etxea errealitate bihurtzen denean, iruditzen zaigu bere helburu nagusietako bat izan behar dela tratatu txarrak jasotzen dituzten edo baliabide ekonomikorik ez duten emakumeentzat konponbideak bilatzea eta laguntza eta aholkularitza zerbitzua eskaintzea. Gutxienez, egiten dituzten eskaerak erakundeetara helarazten laguntzea, baliabideak eskura jartzeko aukera baitute.

**Herri osora iristeko ahaleginean, auzo batzuk ahaztuta daudela salatzen dute. Zer dago aurreikusita arlo horretan?**

Hernaniko auzoetako bizilagunek, erdigunean bizi direnek dauzkaten eskubide berak dituzte, oinarriko zerbitzuak eskura izateko, espaloi eta errepideak behar bezala edukitzeko, kanalizazio egokiak izateko, esertzeko bankuak izateko, parkeak eduki eta garbi mantentzeko... Zentzu horretan lan egin nahi dugu, noski; aurrena, bizilagunen kezak entzunda, aukeratuak izaten bagara, eta haien eskaerei erantzuna emanda.

**Txotx denboraldia onura zein kalte iturri izaten da; kalteei aurre egiteko hainbat neurri hartu dira azken urteetan. Zer egingo zenukete?**

Argi dago ezinezkoa dela denak asebetetzea. Batetik, ostalariak, urte osoan bizirautea ahalbidetuko dien irabaziak lortzeko aukera ikusten baitute denboraldiak irauten duen lau hilabeteetan. Bestetik, bizilagunak, atsedenerako eskubidea dutenak. Uste dugu konponbideak bilatzen hasteko neurri egokiak liratekeela zigor gogorragoak jartzea zikindu eta triskantzak eta zaratak sortzen dituztenei, eta poliziaren presentzia areagotzea. Herri guztietan, tabernak dauden inguruetan dagoen arazo endemikoa da hau, albistegietan etengabe ikusten dugu. Onena litzake gizalegezko kontzientzia hartzea, bai tabernetan lanean aritzen direnek, eta baita tabernetan gozaten dutenek ere. Baina beldur gara, hau ez dela nahikoa izango, eta neurri gogorragoak beharko direla.

**Aparkaleku falta ere arazoa da askorentzat. Proposamenik baduzue?**

Egia da bizilagunentzat hau arazo larri-netakoa dela. Moduren bat bilatu beharko da erdigunean aparkatzeko lekuak egokitzeko, eta kotxearen erabilera murriztea sustatu eta herritarrak garraio publikoa erabiltzera bultzatzeko; azken



Cristobal Carretero Gomez izango da PPren alkategaia, oraingoan ere.

honek kalitate onekoa behar luke. Agian hau litzake gai egokia, herritarren proposamenak jasotzeko.

**Iaz egin zen Euskaraldia, eta euskeraren erabilera omen da datozen urteetako erronka. Zein ildo jarraituko duzue euskerari dagokionean?**

Ahobizi edo belarriprest kanpaina zozagarria iruditu zitzaigun, bete-betean asmatu zen. Kanpaina atsegina da, euskeraz ez dakitenak gutxiesten eta inposiziorik bultzatzen ez duena, eta parte hartzera bultzatzen duena. Uste dugu euskal erakunde guztietan baliabide asko bideratzen direla euskara sustatzeko politiketara, baina trukean ez dira espero diren onurak jasotzen, zerbaitek ahalegina eskatzen duenean, eta gainera, inposatua denean, arbuiatzea eragiten baitu. Horrek are baliotsuago egiten ditu barneratzaileak diren kanpainak, baztertzailen aldean.

**Garbiketa publikatu da, eta orain, konposta egitea ere herriaren esku geratzeko ahalegina egin nahi izan du udal gobernua. Hondakinen kudeaketari dagokionez, zer proposatzen duzue zuek?**

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako 2019-2030 Plan Orokorrean jasotzen diren helburuak lortzeko kanpainak. Gipuzkoa lurralde eredugarria da zentzu honetan, baina oraindik ere ahalegin bat gehiago eskatu diezaiekegu gipuzkoarrei, eta kota europarretara iristea lortu.

**Elkarbizitzaren alorrean, legegintzaldi hasieran sortu zen Bizikidetzeta Mahaia, baina azken hilabeteetan desadostasunak**

**sortu dira. Nola ikusten duzu gaia?**

Moduak egon behar dira, baina zaila da, udaletxean gidari direnek sufrimendu bakararra errekonozitzen badute; Bilduren lagunena, eta ETaren biktimen aurrean ezikusiarrena egiten badute. Baita Hernani egunkarietan agertzen denean ere, institutuan, adin txikikoek, etakideei omenaldiak egiten dizkietelako. Horrelakoei ezinezkoa da Bizikidetzeta Mahaia aurrera egitea, oinarrian, sinesten ez dutelako eta elkarbizitzarako oinarria sekula ezin daitekeelako izan soilik norberaren pentsaerarekiko errespetua. ||

#### Titularrak

1. Cristobal Carretero Gomez
2. Alvaro Bustamante De La Mora
3. Maria Isabel Corral Rodriguez
4. Gema Vicenta Belinchon Duarte
5. Conrado Garcia Calleja
6. Iлона Bodnaryuk
7. Maria Gloria Dominguez De Miguel
8. Maria Eugenia Espinosa De Los Monteros
9. Luis Cubillo Cubillo
10. Pedro Ponce De Leon Hernandez
11. Emma Benitez De La Rosa
12. Javier Lorenzo Moreno
13. Ana Maria Julia Diez De Rivera
14. Santiago Maria Ortiz De Solorzano Cubillo
15. Diana Rodriguez Fernandez
16. Lucas Allende Martinez-Cubells
17. Maria Teresa Talens Bolos
18. Encarnacion Aspron Herrero
19. Alvaro Mayoral Sola
20. Luis Felix Verdeja Lizama
21. Virginia Sanz Rodriguez

#### Ordezkoak

1. Juana Sanchez Hurtado

INFORMAZIO OROKORRA M 26

# Beste hiru zita maiatzaren 26an, Europa, Gipuzkoa eta Nafarroarekin

Hitzordu hirukoitza izango dute maiatzaren 26an, bihar zortzi, Urumea Bailarako herritarrek. Udal ordezkariak aukeratzeaz gain, Europakoak ere bozkatuko dituzte, baita Foruetakoak ere. Gipuzkoan, Batzar Nagusikoko ordezkariak hautatuko dira; eta Nafarroan, aldiz, Parlamentukoak. Ereñotzun, berriz, lau hautetsontzi izango dira mahai gainean.

HAUTETSONTZIEKIN urteko bigarren zita izango dute herritarrek maiatzaren 26an, bihar zortzi. Urumea bailara osatzen duten herrietako alkateak hautatzeko unea izango da, baina beste hiru zita ere izango dira, igande horretan - Ereñotzuko Auzo Alkateaz aparte-.

Hain justu, herri guztietan, hau da, Gipuzkoako zein Nafarroako herrietan bozkatuko dute Europako Parlamentuetako ordezkariak erabakitzeke. Barruti bakarraren bidez aukeratuko dira Espainiari dagozkion 54 parlamentariak. 32 hautagaitza aurkeztu dira, eta horietako batean, hernaniar bat ere bada: Maite Pagazartundua Ruiz, Ciudadanos alderdiko bigarren postuan.

## Foru-hauteskundeak, baita ere

Horrez gain, foru-hauteskundeak ere izango dira, bai Nafarroan, baita Gipuzkoan ere. Nafarroaren kasuan, Goizuetako eta Aranoko herritarrek, Nafarroako Parlamentua osatuko duten parlamentariak hautatuko dituzte. 50 eserleku dira denera, eta horiek, hamaika hautagaitzaren artean bozkatu beharko dute: Navarra Suma, EH Bildu, Izquierda-Ezkerra, PSN-PSOE, Geroa Bai, SAIñ, Vox, Equo Partido Verde Europeo, Representación Cannabica de Navarra, eta Podemos. Emaizta haueetatik osatuko da Nafarroako Gobernu berria, eta hautatuko da lehendakaria.

Gipuzkoarrei dagokionez, hernaniar, ereñotzuar eta astigartarrek Batzar Nagusietarako ordezkariak hautatuko dituzte. Hamazazpi eserleku erabakiko dituzte Donostialdea barrutiko herritarrek, sei hautagaitzen artean. Eta horren ondorio izango da Foru Aldundiaren osaketa. **II**



Hiru hautetsontzi izango dituzte herritarrek; ereñotzuarrek, aldiz, lau.

## EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK

1. Iniciativa Feminista.
2. EAJ/GEROA BAI- Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioa-Coalición Por Una Europa Solidaria
3. Partido Socialista Obrero Español (PSOE)
4. Alternativa Republicana
5. Centristas Por Europa
6. EH Bildu-Orain Errepublikak
7. Contigo Somos Democracia
8. Fe de las Jons, Alternativa Española, La Falange, Democracia Nacional
9. Partido Animalista Contra el Maltrato Animal (PACMA)
10. Solidaridad Y Autogestión Internacionalista (SAiN)
11. Euskadiko Langileen Alderdi Komunista (ELAK)
12. Foro Ciudadanos (FAC)
13. Partido Humanista (PH)
14. Andalucía Por Sí (AxSí)
15. Actúa (PACT)
16. Compromís Per Europa (CPE)
17. Movimiento Independiente Euro Latino (MIEL)
18. Izquierda En Positivo (IZQP)
19. PCPE-PCPC-PCPA
20. Unidas Podemos Cambiar Europa (Podemos-IU)
21. Por Un Mundo Más Justo (PUM+J)
22. Movimiento Corriente Roja (MCR)
23. Ciudadanos-Partido por la Ciudadanía (Cs)
24. Lliures Per Europa (JUNTS)

25. VOX
26. Igualdad Real (IGRE)
27. Pirates de Catalunya - European Pirates
28. Volt Europa (VOLT)
29. Coalición Verde - Europa Ciudadana (CV-EC)
30. Partido Popular (PP)
31. Recortes Cero - Los Verdes - Grupo Verde Europeo (Recortes Cero - LV - GVE)
32. Extremeños PREX CREX (CEX-CREX-PREX)

## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK

1. **EH Bildu**  
Hautagaitzaren burua: Juan Karlos Izagirre Hortelano.
2. **EAJ-PNV**  
Hautagaitzaren burua: Xabier Eceizabarrena Saenz
3. **PSE-EE**  
Hautagaitzaren burua: Denis Itxaso Gonzalez
4. **Partido Popular**  
Hautagaitzaren burua: Juan Carlos Cano Aristoy
4. **Ciudadanos**  
Hautagaitzaren burua: Pedro Ignacio Mendizabal Miguelez
5. **Elkarrekin Podemos (Podemos-Ahal Dugu/Ezker Anitza-Izquierda Unida/Equo Berdeak)**  
Hautagaitzaren burua: David Oliden Cuello.
6. **Esaños en Blanco-Aulki Zuriak (EB)**

Hautagaitzaren burua: Daniel Lizarralde Aguirre

## NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK

1. **Navarra Suma**  
Hautagaitzaren burua: Jose Javier Esparza Abaurrea - UPN
2. **EH Bildu**  
Hautagaitzaren burua: Bakartxo Ruiz Jaso
3. **Izquierda-Ezkerra**  
Hautagaitzaren burua: Maria Luisa De Simon Caballero - Izquierda Unida de Navarra Nafarroako Ezker Batua
4. **PSN-PSOE**  
Hautagaitzaren burua: Maria Victoria Chivite Navascues
5. **Geroa Bai**  
Hautagaitzaren burua: Uxue Barcos Barruezo
6. **SAiN**  
Hautagaitzaren burua: Maria Elena Garcia San Segundo
7. **Vox**  
Hautagaitzaren burua: Javier Homo Gracia
8. **Equo Partido Verde Europeo**  
Hautagaitzaren burua: David Marzo Perez
9. **Representación Cannabica de Navarra**  
Hautagaitzaren burua: Fermin Les Lacosta
10. **Libertate Nafarra/Libertad Navarra**  
Hautagaitzaren burua: Angel Nuñez Chamorro
11. **Podemos**  
Hautagaitzaren burua: Mikel Buil Garcia

EREÑOTZU EREÑOTZU EKINEZ - Unai Erroitzenea Gamio

# «Azken finean, auzotarrentzako auzo bizi eta atsegin bat bilatzen dugu»

Unai Erroitzenea Gamio ereñotzuarra izango da Auzo Udaleko alkate datozen lau urtetan, 'Ereñotzu Ekinez' hautagaitza izan baita maiatzaren 26ko hauteskundeetara aurkeztu den bakarra. Harekin batera lanean arituko dira: Juntan, Eider Lasarte Santa Cruz, Ane Lizeaga Parrizas, Olatz Juantorena Aizpurua eta Jon Susperregi Altuna; eta taldekide izango dira, baita ere, Amaia Otxotorena Gamio, Alazne Arotzena Oruezabala, Aitzol Zerain Miner, Lurdes Oskoz Zugarramurdi, Arkaitz Santa Cruz Otxotorena eta Maitane Santa Cruz Otxotorena. «Ereñotzuarron bizi kalitatea hobetzen jarraitzea» dute helburu.

## HAUTAGAI berria zara, zerk bultzatu zaitu aurkeztera?

Arrazoi nagusia auzotarren nahia izan da. Olak auzo elkarteak antolatuta, martxoaren 10ean, hautagaiak proposatzeko bozketa burutu genuen eta zerrenda horretan bozka gehien lortu genituen 15 lagun bildu ginen datozen lau urteetarako auzo udala kudeatzeko lan-taldea osatzeko asmoz. Lan-taldea osatzearekin batera, auzo alkate izateko hautagaia ere adostu behar genuen eta, bozka gehien jaso nituenez, ni izatea adostu genuen.

## Baduzu eskarmentua erakunde publikoetako kudeaketan:

**Hernanin zinegotzi izan zara eta Foru Aldundian, aldiz, zuzendari. Esperientzia horrek lagunduko dizula uste duzu?**

Diozun bezala, lau urte egin nituen Hernaniko Udaleko zinegotzi bezala eta beste lau urte Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publiko zuzendari bezala. Azken lau urte hauean, berriz, auzo udaleko lan taldean aritu naiz. Azken urteetako ibilbide hau, zalantzarik gabe, lagungarri izango da auzo udaleko egunerokoa ahalik eta hobekien eramateko.

## Zortzi urte dira Auzo Udala sortu zenetik. Zein aldaketa ekarri ditu? Ze onura?

Aldaketa nabarmena izan da; auzotarrek beraien erreferentziazko udal-txea auzoan bertan dute, udala auzotarrengandik gertuago dago eta honek bertako beharrei erantzun egokiagoa ematea dakar.

Guzti horren onurak ere agerikoak dira. Zortzi urtetan auzoan eman diren aldaketak nabariak izan dira; azpiegitura berriak nahiz lehengo hobekuntzak, haur, gazte, nahiz helduentzako zerbitzu ezberdinak, taberna, laister denda ere bai, ondare kulturalaren nahiz natur ondarean arloan ere gauza interesgarriak izan dira...

## Nahiz eta onura horiek ekarri dituen, izango da hobetzekorik, ezta? Zein dira Ereñotzuko dituen erronkak?

Beti izaten da zer hobetua, gauza asko hobetu da baina aurrerantzean ere izango da zer hobetua. Ez nituzke erronka konkretuak aipatuko baina ereñotzua-



Unai Erroitzenea Gamio izango da Ereñotzuko auzo alkatea.

*«Auzo Udala sortuagatik ere Ereñotzuko eta ereñotzuarrek beti izango dute lotura Hernanirekin, azken finean, Hernaniko herritarrak ere bagara»*

rro bizi kalitatea hobetzen jarraitzea, zerbitzu ezberdinak auzotarrei gerturatzeko, kultur ekintzak sustatzea... Azken finean, auzotarrentzako auzo bizi eta atsegin bat bilatzen dugu.

Auzo udala erakunde bezala egonkortzeko ere oinarriak sendotzen jarraitu nahiko genuke, izan ere, hainbat arlotan bada zer hobetua bere sorreratik 8 urte igaro diren arren; adibidez, dirulaguntza batzuetarako aukera mugatu izan zaigu edo Hernaniko udalarekin daukagun koordinazioa eta funtzionamendua hobetu beharra daukagu.

*«Txirrita Eskola osasuntsu eta indartsu batek auzoaren etorkizuna bermatzen duela esan genezake»*

## Zein lotura ditu egun Ereñotzuko Hernanirekin?

Auzo udala sortuagatik ere Ereñotzuko eta ereñotzuarrek beti izango dute lotura Hernanirekin, azken finean, Hernaniko herritarrak ere bagara.

Zerbitzu ugari jasotzeko Hernanira joan behar dugu, Txirrita ikastetxe ikasleek hainbat ekintza Hernanin burutzen dituzte, hemengo haurrak DBH ikastera Hernanira joaten dira, gazteak Hernanin ibiltzen dira, erosketak egitera Hernanira joaten gara...

Auzo Udala eta Hernaniko udalaren

arteko harremana ere etengabekoa da. Hernaniren beharra daukagula esan liteke.

## Taldea ia erabat aldatu duzue. Nola osatu da? Zer da bakoitzak ordezkatzeko duena?

Talde hau auzotarrek emandako bozkaren ondorioa da, orain dela lau urtekoa bezala. Martxoaren 10ean, bozka eman zuen auzotar bakoitzak, bost hautagai proposatzeko aukera izan zuen. Bozketa hartan bozkarik gehien lortu zuten hamabostak bildu ginen eta, ondoren, zerrendako hurrengo hirurekin hitz egin zen. Biler horien emaitza da auzo udalerako aurkezten den taldea. Hiru, aurreko lau urtetan auzo udaleko lantaldean aritu gara eta beste zortziak berriak gara.

Orain dela lau urte zonalde bakoitza ordezkaturik zegoela esaten zen eta, oraingoa ere, Ereñotzuko zonalde bakoitza ordezkaturik dagoela esango nuke. Taldean, Ereñotzuko auzunean bertan bizi garenok gaude, baina baita





Unai Erroitzenearekin batera, beste hamar kide arituko dira lanean.

Epelen, landa eremuan edo Ereñotzu eta Pagoaga artean bizi diren hainbat taldekide ere.

#### **Nola antolatuko zarete zuen artean? Nola funtzionatuko du zuen Auzo Udalak?**

Printzioz, lau arlotan banatuta antolatuko gara:

- Alkatetza, Ogasuna, Ondarea, Pertsonala, Kontratazioak eta Aseguruak lantaldea Lurdes Oskoz eta nik osatuko dugu.

- Zerbitzuak, Azpiegiturak, Obrak, Hirigintza eta Ingurumena lantaldea Alazne Arotzena, Arkaitz Santa Cruz eta Jon Susperregik.

- Zerbitzu sozialak, Osasuna, Hezkuntza, Aisialdia, Turismoa eta Merkataritza lantaldea Ane Lizeaga, Olatz Juantorena eta Maitane Santa Cruzek.

- Kultura, Kirola eta Euskera lantaldea Eider Lasarte, Amaia Otxotorena eta Aitzol Zerainek.

- Arlokako bilerak eta talde osoarenak egingo ditugu baina, momentuz, erabat zehaztekoa daukagu taldekako bileren eta talde osoaren bileren maiztasunak.

#### **Eskola izaten da erdigune moduko bat. Zer ematen dio Txirrita Eskolak Ereñotzuri?**

Txirrita eskolak bizitza ematen dio Ereñotzuri eta auzo udalak oso kontutan hartzen du hau, lehentasunezkoa da guretzat Txirrita Eskolaren jarduera ahalik eta baldintza onenetan burutzea.

Txirrita Eskola osasuntsu eta indartsu batek auzoaren etorkizuna bermatzen duela esan genezake.

#### **Herri txikiak, orohar, biztanlerian beherakada jasaten ari dira. Zein da Ereñotzuren egoera demografikoa?**

Azken urteetako Ereñotzuren egoera bestelakoa da. 2000. urte amaieran 639 biz-

*«Dendaren kasuan, 20 urte badira auzoko azkeneko denda itxi zela eta hau irekitzen denean aldaketa nabarmena izango da»*

tanle ginen Ereñotzun, eta 2007 urte amaieran 569ra jeitsi ginen, gazte asko joan zen urte horietan auzotik etxebizitza aukerarik ez zelako. Azken urteetan aldiz, gora egin du biztanle kopuruak; 2011 amaieran 604 biztanle ginen eta orduz gero 600 biztanleren bueltan gabilta. Zehazki, 2018. urte amaieran 598 biztanle geunden auzoan errolatuak.

#### **Taberna ireki da, eta denda berria ere, irekitzeaz da. Zein helbururekin bultzatzen ditu halako zerbitzuak Auzo Udalak?**

Batetik, helburu sozial bat badute, auzotarrak biltzeko eta harremantzeko gune bihurtzen diren heinean eta, bestetik, auzotarren beharrak asetzeko helburua ere badute.

Dendaren kasuan, 20 urte badira auzoko azkeneko denda itxi zela eta hau irekitzen denean aldaketa nabarmena izango da.

Oso zaila da denda bat, adibidez, partikular batek bere kabuz irekitzea eta auzo udalak esfortzu ekonomiko handia egin du denda hau martxan jartzeko.

#### **Auzotarrak kezkatuta azaldu dira behin eta berriz ibar-ertzeko zaborra dela-eta, eta gai horren bueltan, proiektua egin zuen Auzo Udalak**

*«[Ereñotzu] Arnasgune bat izanik ere, komunitate txikia izanik, euskeraren sendotasun hori hauskorra da»*

#### **Easo Politeknikako ikasleekin. Zertan da gai hau?**

Paperean egin zen proiektua baina bertan jasotako hainbat neurri garatzeko garaian zenbait arazorekin aurkitu gara; gainera, hauteskunde urtea izaki, honek ere ez du lagundu.

Orain, talde berriaren zereginetako bat izango da gai honen gaineko neurriak aztertu eta martxan jartzea. Udara gainean daukagu eta zaila izango da udara hontarako neurriren bat martxan jartzea.

#### **Goienerek hartu du Fagollagako zentralaren gaineko ardura. Nola hartu du auzoak?**

Era honetako azpiegitura batek ibaian eta bertako faunan eragiten dituen albo-kalteak ezkutatu ezin diren arren, zentralak martxan egon behar badu, begi onez ikusten dugu Goiener bezalako irabazi asmorik gabeko kooperatiba batek zentralaren gaineko ardura hartzea, bere xedea energia berriztagarria sortu eta merkaturatzea den heinean.

Gainera, Goiener bezalako egitasmo sendo batek Fagollagako zentralaren kudeaketa bere gain hartzeak, zentrala eta bere ingurua baldintza egokitan mantenduko dela bermatzen du.

#### **2019ko asmoen artean plazaren birmoldaketa aurkeztu zuen Auzo Udalak Batzarrean. Zer egin nahi da bertan?**

Ereñotzuko plazako birmoldaketarako proiektu bat lantzeko asmoa aipatu zen baina orain artean ez da ezertxo ere landu. Aparkaleku erabilera eta oinezkoen erabilera partekatzen direla kontutan izanik, oinezkoen eta autoen arteko elkarbizitza erregulatu eta hobetzea litzateke asmoa baina, orain, auzo udaleko lan talde berriak egin beharko du egitasmo honen gaineko hausnarketa.

#### **Atsolorra mantenduko al da?**

Gure aldetik behintzat, mantentzeko asmoa dago. Beste gauza askotan bezala, auzotarrek erakutsi beharko diote babes, auzotarren babesik gabe alferrikakoa baita auzo udalak ezer bultzatzea.

#### **Euskeraren erabilera kontuan hartuta, arnagunetzat dute adituek Ereñotzu. Zein erronka ditu, zure ustez?**

Hernaniko egoera orokorarekin edo beste hainbat tokirekin alderatzen badugu arnagunetzat hartuko dute adituek baina Ereñotzu, euskerari dagokionez, komunitate ahula da. Esplikatuko naiz.

Portzentai zehatzak ezagutu gabe, Ereñotzun, bizilagunen ehuneko haundi batek euskera dugu ama hizkuntza, euskeraz ulertzeko gai gara %99a, baina gazteleraz hitz egiteko joera haunditzen ari da; umeak gazteleraz hitz egiten topatu ditzakezu, lagunarte jakin batzuetan gazteleraz hitz egiten da, guraso batzuen artean ere bai... Egia esan, kezkatzen nauen gai bat da. Arnasgune bat izanik ere, komunitate txikia izanik, euskeraren sendotasun hori hauskorra da. ■



---

**HAUTESKUNDEAK**  
**2019**

## ■ EH BILDU PRENTSA OHARRA

## «EJk Santiagomendiko ermitaren turistifikazioa sustatzea erabaki du»

«Santiagomendiko Paisai Planaren aitzakiarekin, aterpetxea eraitsi eta zelaigunean eraikin eta aparkaleku berri bat egin nahi ditu» dio EH Bilduk.

«EJ legealdi osoa dabil Santiagomendiko Paisaiarekin atzera eta aurrera» dio EH Bilduk. Printzipioz, begi onez ikusten ditu Santiagomendiko paisaia babesteko ekimen guztiak baina beste eremu batzuekiko EJk izan duen «axolagabetasuna» salatzen du: «Txoritokietan kamioien aparkaleku erraldoia egingo da, eta Putzuta (Rofer-Buenaventura harrobiaren inguruak) inguru degradatuan ez da aurrerapausorik eman»...

EH Bilduren arabera «azken momentuan, EJk Santiagomendiko Paisai Planarekin lortu nahi duena agerian utzi du: egungo aterpetxea bota eta ermita ondoko zelaigunean eraikin berri bat, autoentzako aparkaleku gehigarri bat egin eta parke tematiko bat sortu».

EH Bildu, «zalantzarik gabe», honen aurka azaldu da. Batetik, EH Bilduk ez du uste herri honen lehentasunen artean aterpetxea bota eta berri bat egitea dagoenik. «Astigarragaren lehentasunak beste eremuetan daude: DBH, haur-eskola, garraio publikoa, landa-eremuko bide eta espazioen berritzea». EH Bilduk ez dio zentzurik ikusten Udalak dirutza bat honetan gastatu behar izateari. «Aterpetxea egokitu behar dela begi-bistakoa da baina aterpetxea bota eta berri bat egitea lekuz kanpo» dagoela uste du EH Bilduk.

## ■ SAGARDOETXEA

## ‘Udaberri giroan’ jaialdia, gaur

Festa 17:00etan hasiko da Sagardoetxeko sagastian loraldia ospatzeko.

UDABERRI giroan jaialdia, arratsaldeko 17:00etan hasiko da gaur, sagarrondoan loraldia ospatzeko. Festa berezia egingo dute aurten ere, Sagardoetxeko sagastian, udaberrian. Adin guztientzako festa izango da.

Horrela, antzerkia, musika eta dantza uztartuko dituen emanaldi batekin hasiko dute festa: *Black & White* ikuskizu-

EH Bilduk aurkako botoa eman zion egitasmo hau baimendu nahi duen hirigintza dokumentuari

### «Santiagomendi ez da babesten»

Bigarrenik, «EJren asmoa hasieratik Santiagomendiko Paisaia babestea omen zen» baina EH Bilduren ustez, «ekimen honekin aurkakoa lortzen da. Herriko gune preziatua babestu eta mantendu beharrez, erabat aldatu eta artifizializatuko da. Aterpetxe berria Ermitaren azpialdean dagoen berdegunean kokatuko litzateke eta hauen artean bidezidorez jositako erakusketa gune desberdinak. Azken finean, Santiagomendiko paisaiaren protagonista den belar-gune esanguratsuenetako bat suntsituko litzateke inolako beharrik gabe».

Azkenik, EH Bilduk ekimen honekin ermitaren masifikazioa eta turistifikazioa ahalbidetuko duela dio. «Egitasmo honen helburua ermitara bisitari gehiago erakartzea da eta honek astigarrarontzat zein inguruko herritarontzat zein inguruko herritarontzat elkargune kuttuna dena, erabat desitxuratzea eragingo du.

Trafiko, zarata eta elkarbizitza arazo gehiago izango direnez, argi dago kaltetu nagusiak eta zuzenak inguruko bizilagunak, baserritarrak, eta betiko erabiltzaileak izango direla».

«Honegatik guztiagatik, EH Bilduk ekimen hau jasotzen duen Planaren aurka botoa eman zuen eta jarrera hori mantenduko du, gutxienez, planteamendu hau Planetik kendu arte».

### Santiagomendiko Paisai Plana zifretan

«Gaur-gaurkoz Santiagomendiko herritarrak ezta astigarrarrek orokorrean, ez dute inolako onurarik jaso. Diru publikoa xahutzeko baliagarri besterik ez da izan. Dagoeneko 78.000 euro baino gehiago gastatu dira: «60.000 euro inguru dokumentu desberdinak idazteko, 16.000 euro komunikazio ekimenetarako eta 2.000 euro bidai gastuak ordaintzeko. Herritarrengan izan duen eragin eskasa eta Santiagomendin dauden behar nabariak ikusita», EH Bilduk uste du dirutza bideratu dela egitasmo honetara.

EH Bilduren ustez, «EJk ingurumenarekiko duen jarrera zurtzeko erabili du gai hau baina azkenean, ekimen interesgarria izan zitekeena, diru publikoa xahutzera eta ermita turistifikatzera kondenatzeko arriskua» salatu du EH Bilduk. ■

## ■ ASTARBE SAGARDOETEGIA SAGARTE

## Ekitaldi berezia gaur, Astarben

Jaialdi artistikoa antolatu dute, ‘Bigarren Bizitzak’ erakusketa eta bisita gidatuarekin.

ASTARBE sagardotegiaren SagArte proiektuaren bueltan, beste erakusketa bat irekiko dute gaur. Ekitaldi berezia egingo dute; Sagardotegiaren 456. urteurrenak sorturiko testuingurua erabiliz, artea, kultura, gastronomia eta musika uztartuko dituen jaialdia izango da, hain zuzen.

Goizeko 11:00etan hasiko da jaialdia bisita gidatuarekin eta debalde izango da. Bertan izango dira, besteak beste, Udane Juaristi (Udatxo) eta Maria Altuna artistak, Nøgen musika taldea, eta DJ bat. Beste hainbat jarduera ere izango da.

### Bi serie ezberdin

Eguerdiko 12:15etan irekiko dituzte *Bigarren Bizitzak* erakusketaren ateak. Udane Juaristi (Udatxo) eta Maria Altuna sortzaileekin elkarlanean sortutakoa da; horretarako, bi serie egin dituzte. Erakusketarekin, Astarbe sagardotegiak azaldu-

takoaren arabera, «garai batean landan erabiltzen ziren elementu ezberdinak berriro balorean jarri nahi dira. Objektu, kontakizun, zein istorio hauek kultura garaikidera erakarriz beste ikuspuntu bat eskaintzen diegu belaunaldi zahar zein berriei».

Ildo horretatik, «sagardoa egiteko erabili zen upel zaharkitu bat erabiliz, Udatxok sagardogintzari loturiko hiru pertsonen istorioak kontatuko dizkigun bitartean, Altunak bere bizipen pertsonaletan oinarritutako proposamena egin digu», azaldu dute.

### Musika, arratsalderako

Nahiz eta egun osoan zehar DJ batek festa girotuko duen, arratsaldera arte itxaron beharko da Nøgen taldearen kontzertuaz gozatzeko. Arratsaldeko 15:00etan izango da hori, eta 17:00etan emango zaio bukaera, festari. ■

## ■ HAUTESKUNDEAK

### Hauteskunde txartelik ez dute bidaliko

Hauteskundeen bulegotik jakinarazi dutenez, oraingoan ez dute hauteskunde txartelik bidaliko, zehaztuz non eman behar duen botoa herritar bakoitzak. Hauteskunde Orokorretarako jaso zena gorde behar zen, hauetarako. Mahai berdinetera joan beharko dute bozkatzera herritarrek, etxer aldatu ez badute; eta zalantzarik izanez gero, telefonoz galdetu dezakete: 943 32 76 80, 943 32 76 81 edo 943 32 76 82. Egunero egongo dira, igandeak barne. ■

## ■ FORU ALDUNDIA

### Kamioientzako kanona martxan, A-15ean

Irun eta Etxegarate artean, N-1 eta A-15 errepideetan barrena pasatzen diren pisu haundiko kamioiei bidesariak edo kanonak ordainaraziko dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain zuzen, martxan jarri berri da A-15ean, Astigarraga parean jarri den portikoan kobratzeko sistema. ■

## ■ MUNDARRO

### Asteburupasa familiarra Pirinioetara

Asteburu honetan Pirinioetara joateko mendi irteera antolatu du Mundarrok. Bi egunez egingo dute asteburupasa familiarekin izena eman dutenek. Asmoa da, gaur, Ibon de Anayet eta Vertice de Anayet egitea, eta bihar, Betato basoa, Ibon Pombie eta La Cuniacha bisitatzeta. Kotxe partikularretan joan beharko da, eta Piedrafita de Jaca herrian hartuko da ostatua. ■

na eskainiko dute Astigarragako antzerki eskolako, Astigar dantza taldeko eta Norberto Almandoz musika eskolako ikasleek.

Ondoren, bost musika talderen kontzertuak izango dira: Ttakun, 7 terdik, Kazkabarra, Deblauki eta Eira.

Gainera, bitartean, bitxi-gintza tailerra ere egongo da, loreekin bitxiak egiten ikaste-

ko, Idoia Lizeagaren eskutik. Parte hartzeko, izena eman behar da: 943 55 05 75 edo [info@sagardoarenlurraldea.eu](mailto:info@sagardoarenlurraldea.eu) s. Eta familientzako, beste tailer bat ere izango da, Baratz elkartearen eskutik: sagastiko lanak egiteko aukera izango dute.

Festa borobiltzeko, piknika egingo dute, bakoitzak etxetik eramandakoarekin. ■



## ■ ARANO ERAKUSKETA

# Olazabal hondarribiarraren 20 zeramika-lan, Kontsejun

*Pasa den asteartean inauguratuta, ekainaren 14ra bitarte ikusi ahal izanen dira Amagoia Olazabal artistaren lanak, Kontsejun.*



Amagoia Olazabal hondarribiarra, lanen egilea.

ERAKUSKETA jarri berri du Amagoia Olazabal artista hondarribiarrak Aranon. Pasa den asteartean inauguratu zuen, eta ekainaren 14ra bitarte egonen da ikusgai, Kontsejupe tabernan. Tabernaren ohiko ordutegian ikusi ahal izanen dira haren lanak. Horiek erosi ahal izanen dira, baita ere, erakusketa bertan dagoen bitartean.

### Zeramikaz egindako 20 lan, Kontsejun

Kontsejuk berak antolatuta, zeramika lanak dira Olazabalek ikusgai jarri dituenak. Hain justu, 20 lan biltzen dituen kolekzio berezia aurkeztu du.

Lan hauetan, ipuinetakoak diruditen paisaiak islatzen dira, kolore apalekin tintatutako eszenatoki goxoak.

Azaldu dutenez, «apainga-

rriak dira pieza guztiak eta horietako asko erabilgarriak ere. Pitxarrak, posabasoak, giltzentzako euskarriak edo kutxa originalak». ■

## ■ EREÑOTZU FAGOLLAGAKO IKASLEAK



Taldeko argazkia egin zuten Oianumen bertan, maiatzaren 5ean elkartu zirenek.

### Isabel Espinaco Lera maistrarekin ikasitakoak, Oianumen

Fagollagako eskolan Isabel Espinaco Lera maistrarekin ikasitakoak elkartu ziren maiatzaren 5ean mahaiaren bueltan. 50 ikasle inguru bildu ziren, eta ederki pasa zuten Urnietako Oianume jatetxean garai bateko kontuak gogoratuz. Esperientziarekin oso gustora agertu dira bertaratutakoak, eta seguru daude besteren bat antolatuko dutela aurrerago. ■

## ■ GOIZUETA-ARANO HELPBIDEA



Maria Jose Beaumont, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria, eta Isabel Anaut, Babes Zibileko Zuzendaria.

# Zerbitzuak hobetzeko kodea, baserriek

*Maiatzaren hasieran aurkeztu zuten 'Helpbidea' proiektua Goizuetan.*

HELPBIDEA proiektua jarri du martxan Nafarroako Gobernuak, «larrialdi eta arreta zerbitzu desberdinek Goizuetako baserri eta borda habitatuengaineko datu-base bateratua izateko». Eta harekin bat egin du Goizuetako Udalak.

Proiektua aurkezteko, Goizuetan izan ziren Maria Jose Beaumont, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria, eta Isabel Anaut, Babes Zibileko Zuzendaria, maiatzaren 2an.

### «Errazago eta azkarrago» iristea, helburu

Helburua da, «larrialdi eta arreta zerbitzuak baserrietara errazago eta azkarrago iritsi ahal izatea». Horretarako, baserri bakoitzak kode bat izanen du: «Baserriaren NAN antzeko honekin, zerbitzu publikoengaineko datu baseak eguneratuak eta

Baserriak identifikatzeko plaka indibidualak eta poste horizontalak jarriko ditu Udalak.

koordinatuak egonen dira eta larrialdietara 112ra deituzekoan Helpbidea-kodigoa emanez gero, berehala inongo zantzarik gabe argituko dute nondik deitzen den», azaldu dute.

Gainera, proiektua martxan jartzean diru-laguntzak atera zituen Gobernuak. Udala aurkeztu zen, eta diru horrekin, metro-baserria egiteaz gain, baserriak identifikatzeko plaka indibidualak eta poste horizontalak jarriko ditu. ■

## ■ ARANO-GOIZUETA TOPAKETA

### Haur, guraso eta eskolak bat, Goizuetan

Goizuetan, Arano, Areso, Ezkurra eta Leitzako haur, guraso eta irakasleek bat egin dezaten, XX. Topaketa egiten da Goizuetan, gaur zortzi. Egitarau zabala antolatu dute horretarako, goizeko 11:00ak eta arratsaldeko 18:00ak artean burutuko dutena. Musika, jokoak eta taillerak, bazkaria, merienda... denetarik izanen da. Urtero bezala, berdintasuna, laguntasuna eta festa giroa izanen dira nagusi. ■

## ■ GOIZUETA UMORE ONA TXAPELKETA

### 'Pilota Gozo' txapelketa, gaur zortzi

Pilota Gozo pilota txapelketa azkarra antolatu du Umore Ona elkarteak maiatzaren 25erako. Arratsaldeko 16:30etan hasita izanen da, frontoian. Hasi aurretik eman beharko dute izena parte hartu nahi dutenek; orduan, bikoteka 10 euro ordaindu beharko dituzte. Baina, ondoren, horrek ere, izanen du bere saria. Izan ere, opari ederrak bezain mamitsuak prestatu ditu Elkartek txapeldundentzat. Gogorarazi dute goizuetarrek ez ezik, kanpokoek ere parte hartu dezaketela. ■

## ■ EREÑOTZU MENDI LASTERKETA

# 180 bat korrikalari bihar, Urdaburu inguruetan barrena

Goizeko 10:00etan izango da Ereñotzuko Mendi Lasterketa, eta ordu erdi lehenago egingo dute haurren lasterketa, 09:30etan.

BEDERATZIGARREN edizioa du biharkoa, Ereñotzuko Mendi Lasterketa; eta 180 korrikalari inguru izango dira irteeran, lasterketaren ibilbidea osatzeko, Aiako Harria Parke Naturalean barrena, Urdaburura igota.

Goizeko 10:00etan abiatuko da helduen lasterketa, frontoitik, guztira 11,75 kilometro inguru egiteko, 830 metroko desnibel positiboarekin. Lokatz pixka bat ere ez dute faltako, azken egunetako euria tarteko.

Helduen lasterketa baino lehen, hala ere, haurren txanda izango da, 09:30etan egingo baitute, beraien lasterketa txikienean, auzoan barrena.

**Hernani eta Ereñotzukoak, partehartzaile gehienak**

Atzo bukatu zen izena emateko epea, eta partehartzaileen artean, asko dira Urumea bailarako

Ereñotzuko sei lagun animatu dira etxeko lasterketan, eta 50 baino gehiago dira hernaniarrak.

herritarrak, 60 inguru; gehienak, Hernani eta Ereñotzukoak. Zehazki, 50 hernaniar baino gehiago izango dira irteeran, eta Ereñotzuko sei lagun animatu dira, etxeko lasterketan. Bi astigartar ere badira.

Gainerakoak, inguruko herrietatik etorriko dira asko: Errenteriatik, Oiartzundik, Donostiatik, Lasartetik, Tolosatik... Nafarrak ere ez dira gutxi, baina urrutiagotik etorriko denik ere bada: Valentzia zein Palentzia-koak dira batzuk.

Partehartzaileek, Auzo Etxe-

an jaso beharko dituzte dortsalak, bihar bertan, 08:30etatik 09:30etara. Eta dortsalarekin, poltsa bana jasoko dute denek, opariekin; besteak beste, lasterketako galtzerdiak.

Lasterketako hiru gizon eta emakume onenek izango dute saria, eta baita ereñotzuarren artean azkarrenak ere. Baina zozketa ugari ere izango dira, bukaeran, partehartzaile guztien artean. Eta borobiltzeko, hamaiketako eskainiko dute frontoian, korrikalari, ikusle eta boluntario guztientzat.

Ibilbidean zehar, bi anoa gune izango dira, Akolan (2,5 kilometro) eta Malbazarren (5,5 kilometro); eta beste bat helmugan. Bukaeran, duxak ere izango dituzte; emakumeek frontoian bertan, eta gizonek Txirrita eskolan. Masajistak ere egongo dira, nahi duten guztientzat. ■

## ■ HERNANI ERREMONTEA

## Promozio txapelketako aurreneko jardunaldia gaur amaituko da

*Azpiroz eta Zubiri goizuetarra, Etxarri-Agirrezabalaren aurka ariko dira eta Otaegi-Garces, Seguroa-Zalduaren kontra.*

AURTEN ere Oriamendi 2010 enpresak Promozio Txapelketa antolatu du, Berria Txapelketa 2019 izenburupean. Ostegunean jokatu ziren lehenengo bi partiduko eta gaur, Galarretan, lehenengo jardunaldia amaituko da beste bi partidurekin.

Eguneko hirugarrenengan, eta txapelketako lehendabizikoan Otaegi-Garces, Seguroa eta Zalduaren kontra ariko dira. Jaialdia itxiko duen partiduan, Zubiri goizuetarra ariko da. Azpiroz du lagun eta Etxarri eta Agirrezabala izango dituzte aurkariak. Azken partidu hau B taldeari dagokio eta bestea A taldeari.

**Juanenearen erakustaldia**

Lehendabiziko bi partiduetan emaitza oso bestelakoak egon

ziren. A taldeari dagokionean Juanenea eta Labakak erraz gainditu zituzten Ansa II eta Arruarte urnietarrak. 35-20eko emaitzarekin urnietarrak puntu negatiboa dute.

B taldeko partiduan lehia haundiagoa egon zen eta 35-33 irabazi zuten Goikoetxea V eta Aizpuru IIIak, Aldabe eta Larrañagaren kontra. Beraz, lau eta bi puntu dituzte.

Azpimarragarria da oso Juaneneak jokaturako partidua. Dena egin zuen ongi eta 24 tantorekin amaitu zuen, akats bakarra egin gabe.

**Azpiroz-Zubiri, bi atzelarik osatutako bikotea**

Gaurko partiduen zain egon behar da jakiteko bi taldeetako sailkapenak nola geratu diren.

Oso garrantzitsua da, nahiz eta galdu, punturen bat lortzea edo behintzat puntu negatiborik ez batzea. Horregatik, zaila jarri zaie txapelketa hasiera hasieratik, Ansa II eta Arruarteri.

Zubiri B taldeko partaide da, eta hemen, lehendabiziko partidu estua eta gero, irabaztea edo punturen bat batzea oraindik ere garrantzitsuagoa da, atzean ez geratzeko. Azpiroz du lagun Zubirik.

Horrek esan nahi du, bi atzelarik osatzen dutela bikotea. Huitzikoari, atzelaria izanagatik ere, ez zaio arrotza egiten aurrelari bezala jokatzeko eta bikote sendoa osatzen dute. Hala ere, Etxarri eta Agirrezabala arerio gogorak izango dira, bikote orekatua baitira. Bi atzelariak sakatzaile onak dira. ■

## ■ HERNANI FUTBOLA

## Nesken topaketa, Urumea ikastolan

*Futbol topaketa antolatu du CD Hernanik gaur, 2006-2009 urteko neskentzat.*

CD HERNANIK nesken topaketa antolatu dute arratsaldeko 16:00etan. Helburu nagusia futbolaren bitartez kirola egin, ondo pasa eta lagun berriak egitea da. Urumea Ikastolan izango da topaketa, baina eguraldi txarra eginez

gero Atsegindegin bilduko dira.

Bertan jolas ezberdinak egingo dira eta zozketak egingo dituzte, sorpresak barne. Bestalde, deialdia 2006, 2007, 2008 edo 2009 urtean jaiotako neskentzat izango da. ■

## ■ HERNANI PELOTA

## Hernani-Lapke, bihar Berria Txapelketan

*11:00etan hasiko dira partiduko kiroldegiko frontoian eta arerio zaila da.*

HERNANIK Berria Txapelketako final zortzirenak jokatu ditu bihar, Hernaniko kiroldegiko frontoian. Aurkaria Lazkaoko Lapke taldea da, talderik sendoenetakoa. Aurreko urtean hirugarren sailkatu ziren. Kluben arteko urteko txapelketa pribaturik garrantzitsuenaren final zortziren hau 11:00etan hasiko da. Jubeniletan faborito argiak dira lazkaotarrak, baina senior eta kadeetan lehia estua espero da bi taldeen artean. Beraz Hernanik kanporaketa gainditzeko aukerak ditu. Kadeteetan, Xabier Apaolazak eta Unai Etxarrik Naldaiz eta Telleriaren kontra jokatu dute. Maila parekatua dute laurak eta edozeinek irabazi dezakete partidua.

Jubeniletan, Senar eta Garmendia lazkaotarrak kategoriako bikoterik sendoenetakoa osatzen dute eta Serna aurre-

laria sasoi betean dago. Hernanitik, Xabier Salaberria eta Mikel Lasak jokatu dute. Salaberriaren lana garrantzitsua izango da.

Nagusietan Ioritz Arrieta eta Markel Lizeaga dira Hernani ordezkatuko dutenak; eta Zubizarreta-Quina, Lapkeren ordezkarriak. Hemen ere indarrak parekatuta daude.

**Hiru txapelketa palan**

Hernaniko palistak hiru txapelketetan ari dira jokatzeko aste hauetan; Alde batetik Irazustabarrena eta Huizi Custom Torneoan daude jokatzeko, Ariane Arrieta Euskal Herriko trinkete txapelketan ari da lehiatzen, Garazi Urdangarin eta Ekhine Balerdi bezala, hauek jubeniletan. Eta amaitzeko Estatuko trinkete txapelketan ere ari dira Urdangarin eta Balerdi. ■

## ■ HERNANI ESKUBALDIA

**Finala gaur Legazpin, mutil infantilek**

Denboraldi bikaina osatu ondoren, B azken fasean hirugarren postua lortzeko lehian ari dira Hernani Eskubaloi Taldeko mutil infantilak; eta joanekoa 31-29 irabazi ondoren, gaur jokatu dute bueltakoa. Argikiren kantxan ariko dira oraingoan, goizeko 11:15etan hasita, Legazpiko Bikuña kiroldegian. Bi goleko alde horri eutsi, eta hirugarren bukatu nahi dute hernaniarrek, sasoi ederra borobiltzeko. Mutil infantilen beste taldeak, zazpigarren postua dauka jokoan, baina lan zaila dauka. 31-22 galdu zuen Ormaiztegin, eta kiroldegian ariko da bihar, eguerdiko 12:00etan hasita. Eta berdin neska infantilak: joanekoan jasota porrotari (12-21) eman behar diote buelta gaur, 10:30etan Zarautzen, Alaia taldearen kontra. ■



■ **ASTIGARRAGA-HERNANI TXIRRINDULARITZA**



Donosti Berriko jubentilak, Telmo Semperena eta Ibai Rodriguez tartean, Zarautzen taldekako garaipena lortuta.

# Ibai Rodriguez bigarren, taldekidearen atzetik

Podiumean izan zen hernaniarra, Zarauzko Udaberri Sarian. 10garren sailkatu zen Jaime Romero astigartarra.

OSO gertu izan zuen garaipena, aurreko asteburuan, Ibai Rodriguez txirrindulari hernaniarrak. Bigarren sailkatu zen Zarauzko Udaberri Sarian, jubentiletan, eta Alexander Fernandez Donosti Berriko taldekidea bakarrik izan zuen aurretik.

Eguneko ihesaldian sartu zen Telmo Semperena astigartarra, Donosti Berriko bera ere, beste bi txirrindularirekin. Eta 50 kilometroz ihes eginda aritu ondoren, helmugatik bi kilometro baino gutxiagora harrapatu zituzten, azkeneko igorran. Orduan egin zuten aurrera Fernandezek eta Rodriguezek,

denak gaintuz. 11garren izan zen Semperena, taldekako garaipena ere ziurtatzeko, eta justu bere aurretik, 10garren sartu zen Jaime Romero astigartarra.

**Zilbeti 10garren, Abadiñon**  
Kadeteak, berriz, Abadiñon aritu ziren, Javier Elorriaga Memorialean; eta lasterketa bikaina osatu zuen Aner Zilbeti hernaniarrak, 10garren sailkatzeko. Gainera, taldekako garaipena lortu zuen Donosti Berrirakin, Ekhi Muñoz, Markel Rodriguez eta Unax Urretabizkaia hernaniarrekin batera. 26garren izan zen Muñoz; 67garren Ro-

driguez, ebakuntzatik bueltan; baina erorketa gogorra izan zuen Urretabizkaia.

Gaztetxoak Torneoan ere, taldekako garaipena lortu du Donosti Berriko, horrela.

**Telmo Semperena, Tour de Gironde gaurtik**  
Gaur, Eibarren ariko dira kadeteak, 10:30etan hasita. Jubentilek, berriz, Zumaian daukate zita gaur, 10:00etan; eta Elgoibarren bihar, 16:00etan.

Baina horietan ez, Frantziako Tour de Gironde ariko da Telmo Semperena, gaur eta bihar, Gipuzkoako selekzioarekin. ■

■ **HERNANI JUDO**

# Hernaniko judoek, jardunaldi bikoitza

Kiroldegian ariko dira gaur, txikienak 12:30etan eta benjaminak 16:00etan.

HERNANIKO kiroldegian daukate zita gaur, herriko judoek. Eta jardunaldi bikoitza izango dute, gainera.

Hasteko, txikienek hartuko dute protagonismoa, 6-7 urtekoek; eta erakustaldia eskainiko dute, eguerdiko 12:30etan

hasita. Denboraldian zehar ikasitakoa erakutsiko diete gurasoei, saioan zehar.

Eta ondoren, arratsaldeko 16:00etan hasita, benjaminen txanda izango da. Judo jaialdia izango dute haiek, kiroldegian bertan. ■

■ **HERNANI ATLETISMOA**



CD Hernaniko erreleboetako neskek, podiumeko bigarren kajoian, Arrasaten.

## Atleta infantilak ederki, Arrasaten

Aurreko igandean jokatu ziren, Arrasaten, eskola eta klubean arteko Gipuzkoako Txapelketak, infantil mailan. Eta ederki aritu ziren atleta hernaniarrak. Errelebo proban, bigarren izan ziren CD Hernaniko neskek; eta eskolen arteko txapelketan, laugarren izan zen Santa Barbara, podiumetik puntu bakarrera. ■

ERRUGBIA			
5-18 NAZARTEKOAK	Hernani-Durango	Landaren	Gaur 10:00
5-18 NAZARTEKOAK	Hernani-La Unica	Landaren	Gaur 11:30
5-18 NAZARTEKOAK	Hernani-Txingudi	Landaren	Gaur 12:40
5-18 NAZARTEKOAK	Bera Bera-Hernani	Landaren	Gaur 10:15
5-18 NAZARTEKOAK	Hernani-Iruña	Landaren	Gaur 11:45
5-18 NAZARTEKOAK	Hendayais-Hernani	Landaren	Gaur 13:15
5-18 NAZARTEKOAK	Hernani-Getxo	Landaren	Gaur 14:45
FUTBOLA			
MUT. ONDREZKO ERREK.	Hernani-Deusto	Zubipen	Bihar 16:30
NSK. GORINGOA	Hernani-Aleña Mendi	Zubipen	Gaur 16:30
MUT. ERREK. PRET.	Mundarro-Landetsa	Zarkumendegia	Gaur 16:00
MUT. 100 MALA	Añorga-Hernani	Rozlan	Gaur 15:30
NSK. KAD. 100 MALA	Amara Berri-Mundarro	Martutenen	Gaur 14:00
ALEBNAK	Ordizia-Mundarro	Izoztan-Betegian	Bihar 10:30
ALEBNAK	Eibar-Hernani	Matigolegín	Bihar 11:15
BEJUMINAK	Internacional-Mundarro	Matigolegín	Bihar 10:15

BOLEIBOLA			
NSK. KADETEAK	Fortuna-Hernani	Plo Bajano	Gaur 12:00
NSK. INFANTILAK	Hernani-Summa 1	Kiroldegia	Gaur 10:45
NSK. INFANTILAK	Arantzasko Ama-Hernani	Martutenen	Bihar 10:30
ESKUBALOIA - Hernani			
MUT. KADETEAK	Hernani/Leizaran	Kiroldegia	Gaur 12:00
NSK. INFANTILAK	Aleña/Hernani	Zarauzen	Gaur 10:30
MUT. INFANTILAK	Argiki/Hernani	Legatzen	Gaur 11:15
MUT. INFANTILAK	Hernani/Ormaiztegui	Kiroldegia	Bihar 12:00
PALA			
NSK. NAZARTEKOAK	Errialeor B-Hernani	Aitononos	Gaur 17:00
NSK. ALEBNAK	Su Berri/Hernani	Mendiborn	Gaur 19:00
ERREMONTEA			
100 PARTIDUA	Juanenea/Ansa II	Galarretan	Gaur 16:00
SAGARDAREN TRAP	Urtza-Etxeberria III/Edkuma II-Endika	Galarretan	Gaur 16:00
3 PARTIDUA	Otaegi-Garcos/Seguroa-Zaldia	Galarretan	Gaur 16:00
4 PARTIDUA	Azpiz-Zubiri/Ebarni-Agirezabala	Galarretan	Gaur 16:00

ESKU PELOTA			
Hernani			
TRINKEETA	Pagola-Arizmendi/Adurtza	Iruin	Gaur 11:30
TRINKEETA	Olartzabal-Zugasti/Lagun Onak	Iruin	Gaur 11:00
INFANTILAK	Garcia Bikuña-Urdangarin/Zazpi Iturri	Hernani	Gaur 11:30
INFANTILAK	Artola-Iturbe/Inburre	Hernani	Gaur 11:00
INFANTILAK	Gonobategi-Lizarazu/Inburre	Hernani	Gaur 12:00
ALEBNAK	Pascual-Garmendia/Behar Zana	Hernani	Gaur 19:00
ALEBNAK	Bengoetxea-Otaño/Behar Zana	Hernani	Gaur 18:30
Txapelketa pribatuak			
TXAPELKETA Pribatua	Utzi-Alberiz II/Afarga	Aforgan	Gaur 10:30
TXAPELKETA Pribatua	Ojuel-Esnaola/Juaristi-Arizmendi	Ale Zaharan	Gaur 17:30
TXAPELKETA Pribatua	Eskodero-Labaka/Kereke	Ale Zaharan	Bihar 17:30
TXAPELKETA Pribatua	XXX-Astigarraga/Peruena-Goiakoetxea	Ale Zaharan	Gaur 16:30
TXAPELKETA Pribatua	Etxeberria-Itzausti II/Aluna-Etola	Ale Zaharan	Bihar 16:30
BERRI TXAPELKETA	Hernani/Lapke	Hernani	Bihar 11:00




**GAUR** Euria egingo du eta tenperatura jaitsi egingo da. Zerua estalita egongo da eta zaparradak botako ditu, batez ere egunaren aurreneko zatian. Ipar-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da, eta hotz sententzia areagotuko da. **Min.9° / Max.14°**

**BIHAR** Zenbait lekutan hobera egingo du eguraldiak. Baliteke tenperatura maximoak pare bat gradu igozea. Goizean, haizeak mendebaldetik/ipar-mendebaldetik joko du; arratsaldean, aldiz, baretu egingo da. **Min.7° / Max.16°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauetz: Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## CAF-ELHUYAR SARIAK



Asteazkenean jaso zuen Iñaki Sanz-Azkuek CAF-Elhuyar saria Bingen Zupiria kontseilaria bertan zela.

# CAF-Elhuyar Saria Iñaki Sanz Azkuek, 25garren urteurrenean

*'Hegaztiak, erleak, zomorroak... Sagastien zaindari txikiak' erreportajeari esker lortu du saria Sanz-Azkue biologoak.*

ASTEAZKENEAN banatu zituzten CAF-Elhuyar Sariak CAFen Beasaingo egoitzan, eta bertan Iñaki Sanz-Azkue hernaniarrak jaso zuen garaikurretako bat, sariaren 25garren urteurrenean. Hain zuzen, zientzia-kazetaritzaren arloko lanen kategorian jaso zuen saria, *Hegaztiak, erleak, zomorroak... Sagastien zaindari txikiak* lanari esker. Lan hori Argia aldizkarian argitaratzeko idatzi zuen, eta Kronikak ere argitaratu zuen, Txotx denboraldiaren inguruko gehigarri berezian, urtarrilaren 19an.

**«Xumea bezain erakargarria»** Antolatzaileek azaldu bezala, «zientziaren eta teknologiaren mundua gizarte osoarekin lotzeko asmoa» daukate CAF-Elhuyar sariak. Helburu horren argitaratutako 70 lan jaso

zituzten epaimahaikideek; horietatik 24, Sanz-Azkuearen lanaren kategorian berean, zientzia-kazetaritza arloan. Arturo Elosegi Iurrtia, ekologoa eta EHUko ikertzaileak; Marian Iriarte Ormazabal, kimikaria eta EHUko ikertzaileak; Alberto Barandiaran Amillano, kazetaria eta idazleak; eta Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute, Elhuyar aldizkariako zuzendariak osatutako epaimahaiak erabaki zuen Sanz-Azkuearen lana saritzea: «xumea bezain erakargarria da, eta aldi berean, lanketa sakona duena», adierazi zuten.

**«Poza eta indarra»** Pozik hartu du berria Iñaki Sanz-Azkuek, eta hurrengo egunean ere, zorian mezuak jasotzen jarraitzen zuen: «pertsonek

nalki kristoren poza eta indarra eman dit. Askotan, erreportajeak idazten dituzu, eta horien atzetik lan pila bat dago, baina gero, hor geratzen da erreportajea eta hor bukatzen da». Horrez gain, poza eman dio «badakitelako epaimahaikideak direla pertsona batzuk dagoeneko esperientzia haundia daukatena, eta gainera, lan asko aurkeztu dira». Eta dio, horrek emango diola «konfiantza eta indarra jarraitzeko». Gainera, ekitaldian bertan azaldu zuen bezala Iñaki Sanz-Azkuek zientzia-kazetaritzan izan duen ibilbidea, duela ez hainbeste hasi zuen: «duela bi urte eta erdi idatzi nuen nire lehenengo erreportaje publikoa; nire ibilbidea motza da, eta bi urte eta erdira halako sari bat jasotzea ederra da!». ■

## IRAGARKI MERKEAK

**Mahai elektoralean ni ordezkatu nauen pertsona baten bila nabil.** Maiatzaren 26an. Etxeberri-Floridako auzotarra behar du izan. **Deitu: 615 734 959**  
**Errioxako Alesanko herrian apartamentu bat salgai:** 2 logela, sukalde-egongela eta komuna, dena kanpoaldean eta altzariekin. **Deitu: 676 402 750**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



**ALOKAGAI**  
MERKATARITZA LOKALA,  
BULEGO ETA ERAKUSKETETARAKO APROPOSA

INFORMAZIO GEHIAGO  
688 845 050 / etorlur@gipuzkoa.eus

etorlur

